


Leon Albeniz  
"Iruntxiberri"

# Nere berriketa eta aitortza





*Nere berriketa eta aitortza* du liburu onek izenburua. Lagunarteko berriketa edo itz-aspertu baten bizitasuna eta erreztasuna dituan kontaera da, izan ere, alde batetik; eta aitortza baten seriotasunez jantzita dago, bestetik.

Jokalariak euskal jendearen talde bat dira; baiña beren mundua eta giroa ez dakit inoiz agertu ote diran liburu ontan baiño garbiago eta erosoago. Onako auzure erri-jokoen istorirako bear-bearrezko liburua degu, beraz; gertaera jakingarri askoren kontaera eta testigantza eskeintzen diguna, Aia aldeko euskera jatorra-ekin.

Eskerrak eta zorionak ematen dizkiogu, beraz, beraren egilleari: urteetan punta-puntako korrikalaria izan zan Iruntxiberrin adiskideari.

# **Nere berriketa eta aitortza**

---

Auspoa Liburutegia

285

# Leon Albeniz “Iruntxiberri”

## Nere berriketa eta aitortza



AUSPOA



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
**Diputación Foral de Gipuzkoa**

Diputatu Nagusiaren Kabinetea. Kultura Zuzendaritza Nagusia  
Gabinete del Diputado General. Dirección General de Cultura

Donostia-San Sebastián, 2003

ALBENIZ, Leon

Nere berriketa eta aitortza / Leon Albeniz "Iruntxiberri". – [S.l.] : Auspoa ; Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura Zuzendaritza Nagusia, 2003

280 or. : argk. ; 20 cm. – (Auspoa Liburutegia ; 285)

Aurkibidea

LG SS 1358-2003. – ISBN 84-7907-267-9

1. Albeniz, Leon I. Gipuzkoa. Diputación General de Cultura, ed. II. Título. III. Serie

929 Albeniz, Leon

© Leon Albeniz "Iruntxiberri"

© *edizio honena*: AUSPOA argitaletxea  
Gipuzkoako Foru Aldundia

750 aleko tirada

ISBN: 84-7907-267-9

Legezko Gordailua: S.S. 1358/03

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

# Itzaurrea

---

**I**runtxiberri erri-kirolari bat bazala, eta punta-puntako korrikalaria zala, egunkariak jakin arazi zidaten neri. Noizean bein, baiña urte askoan, aietzek aldarrikatzen zituzten arek egindako azaiñak eta markak. Nik, egia esan, letra aundiak irakurtzen nituan, baiña txikirik ez.

Onekin zera esan nai nuke, eta berak barka dezaidala: beraren berri nik ezer gutxi nekiala. Izen-abizenak Leon Albeniz Maiz zituala ere ez nuan ziur aski jakingo.

Orain, berriz, aren liburuari itzaurretxo bat egin bearean ikusten det nere burua. Nola iritxi ote naiz mail ontara? Ontaraiño ekarri nauan bidea nundik norakoa izan dan adieraztea izan bedi, bada, nere lerro auen gaia.

Berak liburu ontan bere kirolari-bizitzaren eta bere jokoan berri ematen digu batik-bat. Baiña bestela ere, bere bizimodua ateratzearren alegia, jo bear izan dituan burrukak ere ederki asko agertzen dizkigu. Ortan ere gizon saiatua izan dala dudarik ez da.

Beste lanbide batzuk probatu ondoren, *Sendoa* argitaldarian ere asi zan. Orrela ageri da liburu onen orrialdeetan. Ala, ni ara joan nintzan batean, batedobatek onela esan zidan:

–Or dabillen gizon txiki eta bizi ori ezagutzen al dezu?

–Ez.

–Bera dezu, bada, Iruntxiberri korrikalari famatua.

Berak ere itz oiek entzun zituan, eta bai burua jiratu ere. Orduan ikusi nuan nik aurpegiz ordurarte egunkarie-

tatik eta izenez bakarrik ezagutzen nuana. Alkar agurtu genduan, eta itz asperturen bat egin ere bai.

Andik aurrera noizbeinka alkar ikusten genduan, eta beti ere itz batzuk trukatu. Euskera ederraren jabe zala bereala konturatu nintzan. Baiña orrek ustegabekorik etzuan neretzat izan, bera Aiako semea zala banekian eta.

Urrengo pausoa, berriz, kontu kontari ere iaioa zala oartzea izan zan. Artan asi zedilla zirikatzen genduan aldizka; eta berak irripar egin eta gure sakeari erreto onarekin erantzuten zion.

Azkenerako, Joakin Berasategi *Sendoa* argitaldariaren nagusia eta biok alkar artu genduan. Zertarako? Jokogizon ura idazle biurtzeko. Egun batean, beraz, bere oroi-penak papereratuko ote lituzkean galdetu edo eskatu genion. Arentzat batere uste etzuan ordagoa izan zan, noski. Baiña ez ginduan ezezko zorrotz batekin antzarak perratzeraz bialdu. Desafioak egiten eta artzen aspalditik oituta zegoanez, gure eskaria ere alakotzat artu zuala esango nuke. Ondoren, denborarik galdu gabe, lan ori nola egin zezakean pixka bat argitzen asi nintzaion.

Kontu kontari asi zedilla, jaiotetxetik asita; korrikarako griña nola sortu zitzaion; artara nun, noiz eta nola jarri zan; egindako apustuen berri eman zezala, jokogizonen gozo-mikatzak zein eta zer diran azalduz... Baiña izkuntza errikoi batean; etxeko sukaldean edo lagunarte batean ariko balitz bezela; Aiako euskera erabil zezala, eta ez besterik; kontaera oiek naturalidadea bear zutela; ori galdu ezker, berriz, balio gutxikoak izango zirala; ortografiatz zedilla kezkatu, ori nik zainduko nuala; pruebatxo bat egiteko, beintzat, eta aurrera segitzerik merezi zuan ala ez neronek esango niola; eta abar eta abar.

Muestratxo bat bereala ekarri zuan. Bai nik ere irakurri, gustatu eta *sobresaliente* eman ere:

–Balio dezuna ederki ikusten da emen. Mesede ori egin bear diozu, beraz, Euskal Erriari eta euskerari. Joko berri bat bezela ar zazu. Libururik egin duan apustu-gizonik ez dakit oraindaiño izan danik. Izatekotan ere, esku bateko beatzekin konta ditezkenak, ziur asko.

Ondoren, kuaderno edo album aundi bat nik uste baiño askoz leenago bete zuan. Bera lasterkaria izan eta bere idazlana ere azkar egin; iñork pentsatu baiño leenago sartu zan *meta* ontan ere.

Ura ordenadorez pasatzen bereala asi nintzan, txolar-teak aprobetxatuz. Nere lana, olako beste idazkiekin izan oi dedana izan zan: ortografia zaindu, fonetismoak eta itz-laburpenak osatu, puntuazioa jarri, idatzitakoa parrafotan banatu, illun-uneak berari galdetuz argitu, atalak mugatu eta izendatu...

Arreta eskatzen duan jarduna da; baiña gustagarria denbora berean. Alde batetik, izkuntza jator bat irakurtzeak ematen duan atsegiñagatik; euskera ori, urte auetan ainbat aldiz esan oi dedan bezela, euskeraz pentsatuta dagoalako. Ez ditu, beste gaurko idazlan askok bezela, euskerazko itzak eta erderazko mamia. Azala eta aragia ama beraren umeak dira.

Ondoren, berriz, aurretik pentsatu genduan egia zala ikusten nuan. Aren alde trabesa egiña genduan, eta gure ustea etzitzagun aldi ontan erdi ustela atera.

Iruntxiberri onek gauzak ondo kontatzen ditu. Anak mugitzen ez-ezik, luma paperaren gaiñean eramaten ere trebea dala erakusten du. Bere-bereak dituan irizbideak eta barruko sentimentuak azaltzen ditu. Kirolari bezela ez-ezik, gizon bezela ere nortasuna agertzen du.



Baiña bai idazle bezela ere. Euskera ederraren jabe eta kontalari bikaiña dala begien bistan dagoan gauza da. Doai oiek nundik ditu, ordea? Izkuntzarena, leen esan degunez, bera jaio zan erritik.

Eta iztun egokia izatea? Besteak beste, eskola berezia dute ortarako joko-gizonak, liburu ontako orrialdeetan garbi asko ageri danez. Apustua zerratu aurretik taberna batean alkarrengana bildu eta bi aldeak an asten dira txe-etasun eta baldintza guziak eztabaidatzen, batean amor emanaz eta bestean gogor eskatuz. Politikoak besterik egiten al dute beren batzarretan? Sokatira ortan ordu-mor-  
doa pasa ere bai batzuetan, ari-mutur guziak ondo lotu eta batera etorri arte. Esan ere egiten da, jokoa ez dala plazan irabazten edo galtzen, zerratzerakoan baizik. Ortik Keixeta aizkolari ospetsua zanak esaten zuana: «Apustua txamarra kenduta egin bear da, txamarra kendu gabe irabazteko». Billera oiek izketarako eskola onak izango dira, beraz. Naiago nuke tratu oietako bat edo beste magneto-fonoz jasoa balego; eta aurpegiak filmatuta ere bai. Ortik ere jantziko zan, dudarik gabe, gure Iruntxiberri.

Aurretik eskatu genion bezela, gure idazle berri au bere jaiotetxetik asten da. Bai ango giroa eta orduko bizimodua zer zan ederki adierazi ere. Orrialde bikaiñak dira oiek.

Urrena, korrika eta apustuetan ia-ia oartu gabe nola asi zan adierazten digu. Gure bizitzan sarritan gertatzen zaigu ori: bide berri bat ikusi eta andik abiatzen gera, noraiño iritxiko geran oso gutxi edo batere pentsatu gabe. Ala, berak orduan mundu ortan sartu zan, eta orain mundu orren berri ematen digu.

Erri-kirolak edo jokoak esaera zaar asko sortu dituzte: «Jokoa ez da errenta», «jokoa adarrak makur», «jokolaria, laster eskean aterik ate», «jokorako atiek, esperantzagaz

betiek» eta abar, Gotzon Garateren *Atsotitzak* liburu eder eta mardulean ikus ditekeanez.

Bertso-sail asko ere ortik jaiio dira: karga-jasotzailleak, aizkolariak, palankariak, segalariak, lasterkariak, abere-probak... Korrikalariak ere berdin. Adibide bat jartzeko, ortxe daude Fermin Imaz donostiarrak 1915-ean Pedro Prat eta Domingo Ubarretxenak egindako jokoari eskeiñitakoak. Baiña estropadak izan dira, gure joko guzietan, alde aundiz gaiñera, bertso-iturririk oparoena, arestian kaleratu degun liburuak, *Estropadak bertsoan* izenekoak, garbi asko erakusten duanez.

Egunkarietako gai aspalditik izan dira gure joko eta apustuak. Beraiei buruz makiña bat artikulua agertu da eguneroko eta aldizkako prentsaren orrietan. Adibidez, Basarri zanak idatziak, bere *Mi atalaya montañera* edo *Nere bordatxotik* atalean.

Urrena, 1971 urtean, Rafael Agirre Franco-k bere *Juegos y deportes vascos* liburu mardula eskeiñi zigun erderaz aien kondaira edo istoria egiñez; eta 1973-an Iriarte-tar Jose Luisek *Gure erri-joku nagusiak* izenekoak.

Gure jokoak, beraz, literaturaren mail guziak igotzen asiak ziran, pixkanaka bada ere: esaera zaarrak, bertsoak, prentsako idazlanak, liburuak. Eta Iruntxiberrik eskeintzen digun onekin beste pauso bat ematen dute. *Oroipenak* eta *autobiografia* izeneko jeneroak literatura guziak dituzte, izan ere, norbaitek berari gertatuak kontatzen dituanen. Euskerak ere olakorik badu, oietako batzuk, eta ez gutxi, *Auspoa*-k argitara emanak. Baiña olakorik egin duan joko-gizon gutxi dala uste det, naiz eta ortxe gai ederrik eta ugaririk egon. Oso oker ez bagaude, korrikalarietan Iruntxiberri degu liburuak idatzi duan leenengoa; arraira aurren iritxi dana, beste guziak atzean utzita.

Batez ere nobelak, baiña literatura guziak ere berdin, ara-onera dabillen jendearen joan etorriak eta gertaerak jasotzen dituan ispillu bat izan bear omen du. Era ortan, bizitza literatura biurtzen da. Orixe da Iruntxiberrik liburu ontan egin diguna: bere bizitza ez-ezik, apustularien mundua ere literatura biurtu. Gure zorionak eta eskerrak merezi dituala ez dago, beraz, esan bearrik.

Garai batean, bertsoak kantatu baizik etziran egiten, eta aizeak eramaten zituan. Noizbait ere, ez iñola ere guk nai ordurako, kanta-paperetaraiño bide egin zuten, eta azkenik bertso-saillak liburuetan bildu dira.

Jokoak ere, leenengo kontatu egiten ziran; urrena, aiei buruzko bertso-saillak jarri eta kantatu; ondoren, aldizkari-egunkarietan leku aurkitu zuten; gero, beren kondaira eskeiñi ziguten; eta azkenik, Iruntxiberri oni esker, autobiografia edo oroipen-liburu bat osatzeraiño iritxi dira.

Baiña aurreragoko zeregiñak banituan, asko gaiñera, eta gure aiarraren lana ez nuan nik nai bezin azkar bukatu, eta are gutxiago berak nai zuan ordurako.

Ondoren, berriz, egun libre batzuk noiz arrapatu, alkarrengana bildu eta liburuua goitik beera aztertzeke? Dana ondo kopiatuta ote zegoan ikusi bearra zegoan, aren letra nik ez bainuan beti ondo ulertua izango; eta ustegabeko okerrak ere or izaten dira. Ori erosoago egin aal izateko, bera etorri zitzaidan ni bizi naizen Xabier ontara, eta alkarrekin iru egun lan ortan pasa ere bai.

Urrengo pausoa, berriz, liburuari fetxa jartzea izan zan. Noiz bukatua dan azken orrialdean ezarri, alegia: 1999-ko azaroaren 14-garrena. Ori idazterakoan, egia esan, lotsatu egin nintzan. Ia lau urte, alegia, idazlan au nere erruz illunpean egon baita. Iruntxiberri adiskideak orain esan digunez, luze iritzita ez-ezik, etsita omen ze-

goan ez genduala bere idazlanik argitara aterako. Barkazioa eskatzen diot.

Liburua idatzi dan urtea edo garaia zein dan ondo gogoan artu bearke luke irakurleak. Bestela, bertan esaten diran gauza batzuk ez ditu ondo ulertuko eta illun egingo zaizkio.

Liburu baten izenburua billatzea ere ez da lan erreza izaten, probatua duanak dakianez. Nik bein baiño geiago-tan testuaren barrutik edo erraietatik artu izan det. Bai gaurkoan ere. Iruntxiberrik itz auekin ixten zuan bere liburua, gero eranskin bat sartu bazion ere: «bukaera ematera noa nere berriketari eta nere aitortzari». Ori irakurri bezin laster, zera pentsatu nuan: «Au baiño izenburu ego-kiagorik ez degu arkituko».

*Nere berriketa eta aitortza, alegia. Berriketa, lagunarte batean kontari ariko balitz bezelako jarduera dalako; eta aitortza, sakramentu ortarako bear dan seriotasuna berekin dualako. Guk, ala ere, ez diogu gure adiskide Leoni penitentzirik erantsiko, eskerrak eta zorionak eman baizik, idazlan ori egiñez Euskal Erriari eta euskerari alako mesedea egin dielako.*

A. Z.



Iruntxiberri, gaurko egunean.

# Iruntxiberri baserria

---

**N**i, Leon Albeniz Maiz, Aiako Iruntxiberri basarrian mundura sortu nintzan edo jaio nintzan, 1937-ko abenduaren 18-an.

Basarri txiki bat; mendia eta basoa etxearen gaiñeraño. Alde batetik, izugarritzko zugaitz arbolak: aritzak. Beste aldetik, intxaur arbol aundi bi edo iru. Makiña bat intxaur ematen zuten. Apartexeagoan, gerezi aranak. Etxe inguru guzia fruta-arbolez beteta.

Aurreraxeagoan, karobi izandako muestra bat. Nere aitona zanak-eta erre omen zuten karobia, nere aita zana mutil koskorra zala. Berak kontatu izandu zuan zer lan duan karobi batek. Badakizute zertarako izaten dan karobi erretzea: karea egiteko. Eta karea zertarako? Soroko lurak indartzeko.

Aitona zana ere ezagutu nuan. Arek bazituan istoririk asko, len esan detan bezela, karobia erre zutela-ta. Ori arrizkoa izaten da, borobil-borobilla. Arriz kargatu eta arria erretzen dute, karea egiteko.

Beste bat izaten da txondarra. Orrez gain ere asko itze-gin izandu zuten nere aitona zanak eta nere aita zanak. Txondarra, ori badakizute jeneral mendiondoren batean egiten dala. Egur asko bear da ortarako. Ni oroitzen naiz zer esplikazio egiten zuten. Neuk, naiz ez ikusi, badaukat orren idea.

Txondar baten asera, montatzen aurrena. Karobiari bezelaxe, barruan *hueco* bat, arku bat alegia, preparatu bear zaio sua egiteko. Arku orren gañetik kargatu karobia

arriz, eta txondarra egurrez. Egurra zutik, suak barruan arnasa artu dezan. Izugarrizko meta egurra bear da.

Gero egur-meta ori lurrez tapatzen da. Barrua sutan dagoala, lur tartetik kea bakarrik ikusten dezu. Ori da ikatza egiteko sistema. Garai batean asko egiten omen zan mendietan.

Orain dala urte gutxi, Artikuzko edo, obeto esan, Oartzundik Artikutzako bidean, or nunbait mendi-zulo batean egiña dute izugarrizko txondarra.

Orrelaxe ziran, ba, ni mutil koskorra nintzala entzuten nituan kontuak. Gure aitona zana eta aita zanak eukitzen ziguten gonbertsazioa. Neri kontuak entzuten egotea asko gustatzen zitzaidan.

Nere aitona zana il zanean, nik zortzi urte nituan. Udazkena zan. Zortzi bat egun oitik atera gabe egin zituan. Ostiral-gauean, gaueko amaikak-amabiak aldera il zan. Ni oira joanda nengoan, eta akordatzen naiz nere ama zanak nola esan zuan:

-Il da aitona!

Nik asko sentitu nuan. Larunbata eta igandean etxean euki zuten, astelena arte. Traje beltz batekin jantzi ta galzterdi beltzak. Jende asko bueltaka etxean. Makiña bat errosario izango zan tarte artan.

Astelen-goizean eraman zuten entiarruan. Ni negarrez gelditu nintzan, atzetik begira. Zerura joango zan seguru asko. Oso ona omen zan, biotz onekoa. Zeruan ikus dezagula. Ume bati, etxean orrelakoak ikusteak inpresio aundia egiten dio.

Bueno, utzi dezaiedan kontu triste auei eta asi nadin beste gauzak kontatzen. Aseran kontatzen det basarri txiki batean nola jaio nintzan.

Bederatzi senide nere aurretik jaiok. Ni amargarrena. Atzetik ni baño gazteagoak iru. Danetara, amairu senide: sei arreba eta zazpi anai. Ni amargarrena eta kaskarrena; txikiena, alegia.

Ez dakit zergatik ez nintzan geiago azi. Ba, naiko pena da ni olain txikia gelditu izana. Ni aundixeagoa izan banintzan, etzidaten egin didaten aña parre egingo.

Nik basarrian bi asto ezagutu nituan, eta uraxe etortzen zait burura. Danok asto txikiarekin nai izaten genduan. Ba, zergatik? Kargak asto txikiari errezago botatzen baizaizkio. Neri beti orixe bera pasa zait: bear baño karga aundiagoak gañean.

Bertsolaritako txapelketa batean, bertsolari batek kantatu zuan:

Eztegu arrazoirik  
gutxi geralako.

Nik esaten det:

Eztet arrazoirikan  
txiki naizelako.

Gauza askotan orrelaxe ikusten da.

Orain asi nadin ume-umetatik. Basarri txikiaren inguruan zer ikusi nuan? Aseran aitatzen nituan zugaitz-arbolak, intxaur-arbolak, fruta-arbol asko.

Baña ez ditut sagar-arbolak aitatu. Izugarrizko sagar-sagastia. Sagardi bati sagastia esaten zitzaion. Ba, sagar asko izaten zan. Urtero ez dakit izango zan; baña urte batzuetan kamioiak.



Fruteroak agertu izandu ziran, kamioiak kajaz kargatuta. Ura lan gogorra zan. Sagastietara kaja-mordoa jaso eta sagar-arbol puntatik, gañetik alegia, bildu bearra izaten zan kontu aundiz. Kolpeatua edo mantxa zeukana atzera botatzen zuten.

Baña etzan batere alperrik galtzen. Zakutan eramaten zan eta sagardoa ere bastante egiten zan.

Nere ume-denboran etzan gaur bezela ardoa edaten, ainbeste aundiko familia zegoan lekuan. Sagardo edo pitarra udaran bero aundiekin. Lan gogorretan pitarra izaten zan.

Zer da pitarra? Sagardo puroa edan bearrean, ur dexente nastu. Sagarra jotzen zanean tolarean, patsari botatzen zitzaion orrenbesteko bat ura.

Zer da tolarea? Sagarra txikitzen danean, makinaz edo eskuz garai aietan, tolarean jartzen da. Patsa deitzen zaio orri. Egun bat edo bi eduki nastuz edo buelta batzuk emanez. Ala ateratzen da sagardoa, eta upeletara edo barrikarra sartu.

Bere denbora etortzen danean, iru edo lau illabete, botilletan sartu, enkortxatu, eta pitarra urte guzirako. Barriketan kanilla jarri eta txarro batera atera izandu genduan. Bueno, sagardo-lanak eta sagar biltzeak bukatu ditugu.

Orain gaztandietara gaztain biltzera joko degu. Gaztaña asko izaten zan. Batzuk sardaiarekin botatzen; besteak matxardearekin zestotara biltzen; besteak, bei edo idi ta gurdi karreatzen. Etxe ondoan ura pilla egin izandu zan! Gero, apartatu ta ganbarara kaskarra edo jateko ona etzana. Ganadu edo txerri edo ardiei ematen genien. Ona ganbaran negu guztirako naiko gaztaña.

Len oker txiki bat egin det. Basarriko lanetan, udaberriko labrantza ta lur preparatzen asi bearrean, udazkene-ko lanari eldu diot, udaberrikoak atzera utzita. Orain asiko naiz.

Negua pasa ta eguraldi ona datorren bezela, asiko gera neguko gauzak bukatzen: arbiak, paotxa, aillubrea... Soroan egiten diran berde gauzak. Belar sekoak ere ari dira aurreratzen. Beiak berde-usaia, kanpoa mugitu dan bezela. Segala artu ta belar berde billa kanpora.

Bat edo beste ganaduak gobernatzeko, eta esnea ere jectzi egin bear. *Beiak jectzi* esaten da. Garai artan, eta geroxeago ere, etzan beiak jectzeko makinarik. Lan ederra izaten zan. Len esaten detan bezela, batek egingo zituan ikulluko lanak.

Apirilla edo Maiatza. Aurrena, arto-lurrak preparatu bear izaten ziran. Goizean goiz askotan bi ganadu-aldi, bi pare lotuta, soroan lurra maneatzeko buelta ta buelta. Ni bezelako mutil txikiren bat aurrean arrastoa erakusten. Bestea atzetik, eskuan akullua ta golde edo karramarro, besabea, area, laukoa... Ura izaten zan udaberrian oso gogorra.

Maiatzaren erdia baño len artoak egin bear izaten ziran. Garai aietan arto ta babarruna asko egiten zan. Bereala jaiotzen asten zan. An izaten zan, berriz, sokor jotzen, segituan jorratzen. Iru bat pasada eman bear. San Pedrok alde arte edo artoa bastante gora ateratzen zan arte, egunero arto tartean. Ala kuidatuta izaten zan orduan artoa. Pakean utzi lorea atera arte, eta garia eldu zai.

Oso presaka egin bearra izaten zan gari-lana: itaiez ebaki, lotu ta metak egin soroan errenkan. Zeñek baño zeñek eleganteago jarri. Oso dotore eman izandu zuan. Orain ez dago olako gauzarik. Illabete bat edo beste soro-

an eukitzen ziran. *Depende* denbora nola zegoan. Gero zabaldu ta eguzkitan pixka bat eduki. Sortaka bizkarka sartu etxera ganbarara.

Nik arri-losa aundi batzuk ezagutu nituan. An gariak jo edo zatitu, gari-aleak boteka ziralá. Ganbara-baztarrean pillatu. Gero tornuz eskuz eragin da garbitu. Berealaxe gari-taloak jateko preparatzen giñun.

Etxetik gertuan bi errota bai artoa egotzeko eta bai garia egotzeko. Baña etziran beti zabalik egoten. Guk garia preparatzen genduan momentuan itxita egoten ziran. Guk esku-makina txiki bat edo esku-errota bat gendukan garia egotzeko. Mai-ertza bati lotzen zitzaion, da *fuego* eskuz!

Gu, mutil koskorrak, gari-taloak jateko amorratzen egon izandu giñan. Jeneralean, arto-talo geiago jan izandu zan. Arto asko izaten zan gure basarrian.

Bueno, gari-lanak bukatu ditugu. Gari-taloak jaten ere asi gera, ta zerbait egin bearra dago. Gure aita zanaren da gure anai zarragoaren ondoan etzan bromarik egoten: lana gora ta lana bera.

Gari-lanak Uztaillaren erdi alderako bukatzen ziran. Andik aurrera lan asko zegoan: arbi-lurrak preparatu, paotxa-azia, patata-lurrak, oiek pixkanaka preparatu egin bear.

Eguzki ona ikusten zanean, mendira belar ontzera. Au da, belarra segaz ebaki ta sekatu edo igartu egin bear izaten da, ta etxeratu negua datorrenerako. Kosetxa pillatu.

Len aitatzen ditudan bezela, udaberritik asi ta arto ta babarrun, ta geroxeago gari-lanak. Segiduan belar sekatzea. Artoa ere ari da eltzen. Babarrun biltzen ere lan asko izaten zan. Geroxeago, artoa sartzen etxera, sagar biltzea, garotara... Batzuek esaten diote garoa, besteak iratzea,

besteak iñastorra. Ortarako ere mendira bastante apartera joan bear izaten genduan. Udazkena, lanez gañezka itota izaten giñan.

Ni, naiz umea izan, ala ere gustora. Ganaduak baldin baziran uztartuta, nerekin etzegoan problemarik. Neri lendabizi lanean erakutsi zidaten, oso umea nintzala, naiz gure aita zanak etzuan gustoko eskolara bialtzea, etxeko lanak egin ezinda. Gure ama zanak esaten zion aitari:

–Bueno, lana egitea ondo dago. Baña gure Leon txiki-  
ren eskolaz ere pentsatzen asi bearko degu.

Aitaren erantzuna:

–Eskola ondo egongo da, baña umeari lanean erakutsi  
bear zaio. Lanean ikasten ez bada, ez dago zer egiñik.

Ikusten dezute nik zer entzuten nuan, da neuk uraxe  
ondo artzen nuan. Nik, bai aita ta bai ama, asko maite  
nituan.

Nere amak oso serio artzen zituan errezo ta orazioak.  
Lenbizi, komonio txikia izaten zan, zazpi urterekin.  
Ortarako, orazioak ondo ikasi bear ziran. Erretore aundia-  
ren aurrera joan bear konprobatzera, ea nola zeunden ora-  
zioak ikasita. Bestela, etzizun ametitzen.

Orrela, zazpi urtetik zortzira nintzala egin nuan Jauna  
artzea. Artean pekatu txikiren bat egin bazenduan ere,  
barkatuta zegoala esaten zuten.

Bein Jauna artze ori egin ezkeru, dana pekatu zan: igan-  
dero mezetara, naiz urruti euki edo eguraldi txarra egin;  
naiz ta elurra, etzizuten barkatzen. Igandeetan, lenbiziko  
lana etxera etorri, gosalduta ta lanera. Zerbait beti egin bearra.

Andik laster eskolara asi nintzan. Kilometro ta erdi  
edo orrela egongo ziran basarri ortara: Telleria izeneko  
basarri bat zan, neu jaio nintzan San Pedro ballaran.



Iruntxiberri 1961ean.



Iruntxiberri baserria.

Askotan ni korrika joan da etorri, egunean bi buelta. Atajuz jotzen nuan, sagasti edo baso, zuzenean. Bestela, buelta aundiagoa egin bearra zegoan. Andereño edo maestra: Josepa, basarri berekoa, oso jatorra eta elizkoia. Orazioak eta dotriña oso gogozko zituan. Arekin ondo ikasi bearra zegoan zer dan kristau izatea.

Ez baziñan zuzen jokutzen, makilla txiki bat, gorosti egurra, eukitzen zuan. Etzan bereala makilla ura autsiko. Buruko azkureak ederki kentzen zituan. Orregatik ez det esan nai gaiztoa zanik. Askotan umeak zerbait bearra izaten dute errespetua ikasteko.

Eskola ortan urte ta erdi inguru egingo nituan. Eskola ori itxi bearra izan zuten, nere ustez eskola nazionala etzalako. Or gertuan, beste basarri batean, eskola nazionala baizegoan. Maestra kastillana izaten zan.

Gure Josepak momentuan eskola ortara joaterik etzuan gustokoa, ta orregatik illabete batzuetan eskolara gabe etxean egondu nintzan, lan da lan basarrian, naiz ta berriro asi bearra neukan zerbait ikastekotan, nola amabi urtez komonio edo Jaunartze aundia egiten zan, eta ortarako ondo preparatu bearra izaten zan.

Iru basarri zeuden edo daude alkarren segidan, naiz gaur bat utsik dagoan, gu jaio giñan Aiako San Pedro barrioa: Iruntxi-errota, Iruntxia, Iruntxiberri. Gaur antxe mendi-baztarrean dago bakarrik gu jaio giñan Iruntxiberri basarria. Iruntxia basarriaren nagusiak, len aitatu detan bezela, eskola nazionala bere etxean eukitzen zuan. Orrera joaten asi nintzan berriro. Ez dakit amairu urtera allegatuko nintzan. Jaunartze aundia egin nuan arte, iru bat illabetez, Aiako errira igo bear izan nuan, dotriña nola ikasten nuan konprobatzera.

Erretore aundi bat, bere sotana aundia arrastaka zuala ibiltzen zan, askotan eskuz elduta bere sotanari, pixka bat altxaz. Egunetik egunera bere lezioa jarriko zizun, eta urrengo egunez ea nola ikasita zeunden.

Batzuei atentzio gutxiago jartzen zien. Ortarako erre-galo on samarra eginda euki bear zan. Nik ez nion erre-galorik egin, da nola atakatzen zidan! Onela esaten zuan:

–Leon txiki, etorri adi nere ondora.

Igual belarritik eldu ta tirazoak emanaz bein baño geiagotan. Ura bildurra edukitzen nuan aren ondora joa-teko! Bai; dotriña ondo ikasi bearra izan nuan. Ez nintzan asarre Jaunartze aundia egin da libratu nintzanean.

Ontara allegatu naizen ezkerro, kontatu bear dizuet. Erretore aundi onek izena Don Ilario zuan. Zertaraño alle-gatuta zeudela esango dezute garai aietako gauzak.

Ba, erriko festetan –badakizute, nik ala ezagutu nuan– orkestaren bat kanpotik ekartzen zuten, eta piezaren bat edo beste jo izango zuten, dantza lotuan esanda entendi-tzen da. Baltsean esan izandu zan elduta egiten zan dantza.

Iru neska uste det, edo lau, seguru ez naiz; seguru dakitena da dantza lotuan egin zutela erriko festetan. Erretore jaunak, ez dakit berak ikusita edo besteren batek esanda, neska aiek kartzelara sartu zituan. Egun bat edo bian zokoan egon bearra izan zutela.

Gauza au kontatzen ari naiz oietako bat nere arreba Juanita zana zalako. Nik ez dakit jaioa edo munduratua izango nintzan, ori pasa zanean.

Nere senideetan bigarrena zan. Ni amargarrena nola naizen, ni bataiatu niñutenean nere arreba Juanita izan

zan, nere amandrea esaten genduan, nere amapontekoa. Ni aren besoetakoa.

Emakume fin askoa zan. Asko sufrituta il zan, abenduaren 18-an, nere urtebetetze egunean, 1992-an, irurogei ta amar urte zituala. Zeruan alkartuko al gera berriro! Esperantza badaukat Juanita zana zeruan egongo dana.

Dantza lotuan piezaren bat edo beste egin zutela-ta, izugarritzko pekatua nola egin zuten, konpesatzera joan da asoluzioa eta barkazioa eman bearrean, kartzelan pagatu bear izan zuten.

Gauza au ez pentsa gezurra danik. Zerbait duda edo sinistu eziña badezute, Aiako errian aguro enteratuko zerate. Erri koskorretan olakoxe gauzak pasatzen dira. Gero arritu egingo zerate gaurko egunean gazte asko elizara joateko bildurrez daudela. Eta konpesatzera, berriz, nola joango dira?

Len neska bat etzegoan ikutzerik; eta musu bat ematea pekatu mortala. Orain telebistaz erakusten ari dira. Guk pasatu genduan gazte-denbora eta orain erakusten ari diran gauzak, naiko zer pentsatu jartzen digute.

Kontzientzi-gauzetan ez det geiegi mintzatu nai. Pertsona bakoitzak diferente pentsatzen du. "Ni oso ona naiz eta zu oso gaiztoa zera" esatea oso erreza da. Len pixka bat ikutu det apaiz edo erretore jaunaren istoria. Orrek ez du esan nai ura gaiztoa zanik. Errian besterik etzan egongo agintzen zuanik, eta bakarren batek agindu bear.

Etzait aztuko bein apaiz bati entzundakoa. Bertsolari bati jarri zion gaia kantatzeko: "Odolkia eta apaiza egiten diran bezelakoak izaten dira". Orren erantzunik ez nuan ikasi.

Bueno, eskolak bukatu dira. Jaunartze ori egin ere bai. Lanerako preokupazioa etxe ta kanpo. Inguruan giñuzten basarri bat edo bi. Nik ez nuan pake aundirik izan.



Eskolara joaten nintzan garaian, auzoko basarri batera asko joaten nintzan. Ittulean edo edozer gauzetan laguntzen genduan. Iruntxi-errotako *aitona* deitzen genion. Antonio zuan izena. Baña nere aitona balitz bezela baizan.

Zerbait egin bear zuten guzian, gure billa etortzen zan. Ni oso gustora joaten nintzan. Igual zan jai-eguna izanda ere. Egun guztirako, goizetik illuntzera, amar pezeta. Arratsaldetik bazan, duro bat ematen zidan. Naiko jana eta edana ere izaten zan. Ni beti prest egoten nintzan.

Oso umore onekoa zan Antonio ori. Bere gisa izketan edo errezatzen jarduten zan. Aren inguruan zebiltzan ganaduak ere bazekiten izketan. Aitona on askoa.

Azken urteak pasatzen purgatorio latza izan zuan. Uste det gangrenak arrapatu zuala, Bi anak belaunez goitik moztuta, karroz erabiltzen zuten. Zenbat errosario errezatu ote zuan, naiz desgraziz beteta egon? Zeruan ikus dezagula gure aitona Antonio zana.

Beste basarri bat, lendabizi eskolara joaten nintzan lekua, Telleria. Basarri ortan lan asko egin bear izandu nuan. Udazkena zan. Bi edo iru illabetez, sagar biltzeak, sagardo egiteak, garotan... Izugarrizko garo-metak egiten zituzten urtero.

Askok ez dezute jakingo nun dagoan Telleria basarria, ta nun dauden Aiako Aiaola eta Atxurria basarri ziranak: Zarate inguruan. Oiek danak gaur ustuta ta utsik daude, Garai artan, bi basarrietan ere jende asko ezagutu nituan, neska ta mutil.

Goizean nagusiak ganadu-lanak egiten zituan. Nik, gurdi-belarra preparatzea. Neuk ebaki bear segaz, eta bildu ta kargatu ta ekarri. Gosaldu ta martxa egun guzira.

Ordu beteko bidea garo biltzen asi bear genduan lekura, piñu tartean ezin pasaz. Eguerdirako gurdikada bat kargatu eta nagusia martxa ainbeste bidean etxera. Izugarrizko zama. Idi-parea ere alakoa zegoan. Indarra sobrate zeukaten. Ni an gelditzen nintzan garo biltzen, piñu tartean. Bazkaria ara bertara eramaten zuan –Inazi zuan izena–nagusiaren arrebak.

Illuntzea baño len kargatzen genduan bigarren gurdikada. Artzen genduan etxerako martxa. Eguraldiak laguntzen bazuan, egunero martxa bera. Gauean berriketarako gogo aundi gabe allegatzen nintzan etxera.

Goizean jeiki seiak edo sei ´erdiak aldera. Korrika martxa. Gero, zuek esango dezute: «Nola etzan geiago azi Leon txiki?». Ba, artean amairu urte egiteko nengoalako.

Ordurako arrastaka asko ikusita nengoan. Ez ni bakarrik; zer esanik ez, gure aita zana eta anai-arrebak oraindik geiago. Arrastaka geiena ta zer lan egiten zituan gure ama zanak? Egunero goizean, bost ´erdiak edo seiak baño len jeiki, ta gauean azkena oira.

Garai artan goizean goiz beia jetzi bearra izaten zan. Esnezalea puntual asten zan esne biltzen. Kamio-bukaera edo asera an gendukan Illarramendi basarrian. Oriotik zazpi kilometro daude. Esne-zalea andik asten zan esne jasotzen ere. Etzuan itxoiten.

Bein baño geiagotan nere ama zana, ta ni ere bai amari laguntzera, esne-zalearekin Oriora. Zerbait falta, erosketak edo milla gauza, edo plazara zerbait eraman bear zenduan saltzera, gero konprak egiteko.

Goizean aprobeztatzen bazenduan esne-zalea, naiz denbora asko pasatzen zuan esne biltzen, gero Oriotik Iruntxiberrira zazpi kilometro, karga-karga eginda buru eta besoak. Gure ama nola joan izandu zan ez naiz aztu-

tzen. Ura ikusi ez duanak ez dauka sinisterik. Bein baño geiagotan ikusi nuan arnasik artu eziñik. Etxera allegatu ta deskantsatzerik ez.

Basarrian urik ere etzegoan: etxetik gertu, eun bat metro egongo ziran. Bai alde batera eta bai bestera, bi erreka zeuden distantzi berdintsuarekin. Bi aldeetatik ere, ura jasotzeko, aldapa zegoan. Eguraldi onarekin or nunbait ibiltzen zan. Baña euria egiten zuanean, lokatz aundia sortzen zan. Beiak ere erre kara egunero ura edatera jeixten giñun

Geuk edateko iturria aparteago gendukan. Ur billa askotan joan bear izaten genduan iturrira.

Orrelaxe ziran orduko gauzak. Eta, orretaz aparte, gu jaio giñan basarria etzan gurea. Maiztarrak giñan. Gorriak erakutsi zizkigun nagusiak. Nik bederatzi urte nituanerako edo lenago asi ziran abisuka, basarria utzi ta alde egiteko esaten. Urtetik urtera errenta eskatutako guzia pagatu bi testiguren aurrean, eta ala ere mordo bat eramaten zitzaion gari ta arto ta patata. Alaz ta guztiz ere, ez da danak esaten erreza. Etxe ondoan aizeak botatzen zituan egur arbol bat edo beste surtarako jasotzen ere etziguten uzten.

Gaztaña-arbola asko zan. Tarteka igartu egiten ziran, zutik zeudela. Noiz edo noiz, ni mutil koskorra nola beti ganaduarekin ibili bear izaten nuan, nagusiak beti tartean arrapatzen niñuan.

Ustez bistaz edo kontrabandoan bezela larunbat-arratsaldez edo ixilka gaztaiñ arbola zarren bat edo beste bota, gurdia kargatu ta etxerako bidean alto. Gurdia ustu ta batere gabe utsik etxera, bronka ederra entzunda. Emen kontatu detan kaso ori bezelakoa askotan egin ziguten.



Aiako erria.

Beste kaso bat ere kontatu bear det. Naiko istori badu. Oiek gure nagusiak ziran. Iruntxia basarria bere izena. Len esan bezela, eskola nazionala ere oiek eukitzen zuten. Ni orrera joaten nintzan.

Eta badakizute, udaberriko zizak, apirilleko zizak, gaur fama aundia izaten dute, eta nere ume-denboran ere bai. Ala, urte bat edo bian izugarrizko afizioa sortu zitzaidan.

Goizean goiz jeiki ta eskolara joan baño len egingo nuan rekorridoren bat. Eskolatik irten da berriro. Libre zegoan zizak biltzea. Zelaitik zelaira ibili bear.

Belarrean alako seiñaletxo bat izan izandu da: barra beltz bat zizak ateratzen diran lekuan. Naiz barra ori ikusi, danean ez dira egongo; baño orrela ibili bearra izaten du zerbait nai duanak.

Nagusi jauntxo oien sagasti batean ziza-leku bat zegoan, eta urte-pare batez bastante ziza nik eramaten nuan.

Ustez kontu aundiarekin ibiltzen nintzan; baño etxe ortako seme bat sasoikoa, Alejandro zuan izena, baño askok *Azaria* esanda ezagutzen zuten, usaia artuta egon, zeñek eramaten zituan zizak.

Egun batez, bazkaldu eta eskola sartzetako ikusi det denbora daukatela. Beste eskola-lagunak jolasean zebiltzan garaia. Nik, joan da zizak eraman nituan etxera, ta korrika eskolara.

Ondora arrimatzean, *Azaria* antxe egon nere esperoan, eskolara sartu baño len. Zarpatu zidala uste det; baño ondo eldu gabea izango zan. Ni saltatu ta erio batean alde goitik bera. Malkar txar bat zegoan. Ez dakit lepoa nola ez nuan autsi. Bera ere saltatu zan nere atzetik. Baña laster nintzan etxean. Ango eskolak uste det orduan bukatu zirala.

Ez dakit orregatik edo beste zerbaitegatik, noiz edo noiz arrapatu izan niñun, eta paliza eman ere bai.

Etzan ori nerekin bakarrik; danekin berdiña, Danak anka azpian edukitzea gustatzen zitzaion, eta bera bakarrik jaungoikoa. Edozein lekutara joan da azioa egitea zan bere gogotakoa.

Ala ere, nere partetik danak barkatuta dauzka. Alejandro zana, gorriak eta beltzak ikusita mundu ontatik joana. Gangrenak jo ta bi anak moztu ta denbora askoan karro batean erabiltzen zuten.

Nere lengusu batekin ezkondu zan: Maria Anjeles, emakume latza. Makiña bat lan egin bearra eta bizitza gogorra tokatu zaio, naiz orain ondo bizitzeko modua badaukan. Eta Alejandro zana zeruan ikus dezagula.

Oiek orrela dirala, nagusiak maiztarraren kontra jui-zioa, auzia, jo zuten. Gauzak estutzen eta ala ikusi zute-nean, gure aita ta ama zanak beste basarri bat erostea pentsatu zuten, Aiako erritik gertuan, kilometroren bat bide. Aiatik Oriorako bidea zuzen-zuzen jesten da Arruti ballaran bera. Azkorte basarria erosi zuten

Eta olaxe segitu zuan nagusi-maiztarren arteko jaleoak. Juizioa Azpeitin zelebratu zuten aurrenekoa. Testiguak ere eraman bear izan zituzten. Nagusiak galdu, ta etzeudela konforme. Berrero Iruñera jo zuten, zerbait egingo zutelakoan; eta berrero galdu zuten.

Momentu artaz akordatzen naiz. Zer egiten zuten etzekitela, beste basarritar batekin ere izugarrizko jaleoa armatu zuten. Argi-alanbre edo kable mendian pasatzen ziranak arbola tartean, eta zerbait okerra gertatu. Izugarrizko diskusioak.

Etxekoandre zarra zan danean sartzen zana, iñori obeditzen etziona. Au jaleoan zebillela, erori ta anka autsi

izan bear zuan. Seguru ez dakit autsi edo erasan. Andik bukatu zuan bere bizitza. Fetxa aietatik bost edo sei illa-beterako il zan etxekoandre zarra.

Guk alde egin genduan. Danak nazkatuta geunden orrenbeste jaleoz. Naiz bi basarriekin segitzeko indarra gendukan, nai izan ezkerero.

Iruntxiberrik etxe-puska bat gure aita zanak-eta egin-dakoa zeukan: sagar-lekua, sagardo egiteko tolaareak eta abar, puska aundi samarra.

Guk ura uzteko, nagusiarekin arreglatu bearra zegoan. Alaxe arreglatu zuten: bost milla duro izan zan.

Orain 1998 urtean gaude, eta orduan 1950 urtea zan. Berrogei ta zortzi urte.

Urte zar gauerako izan zan aldaera. Gaueko amabiak bitarte genduan epea. Probatu ez duanak ez daki zer dan norbera jaiotako basarri-txokoa utzi ta beste aldera joan bearra. Eta zer lan! Ainbeste gauza izaten da basarri batean.

Ordurako beste basarriko lana ere geu eramaten ari giñan: udaran belar ontzeak, udazkenean gari ereitea, arbi egitea, eta jo ara eta jo onera gelditu gabe.

Azkeneko illabetean neuk pasa bearra izan nuan bakar-bakarrik basarri berrian, Azkorte ortan. Bi bei eta bi txekor zeuden. Aiek gobernatu ta etxea zaindu. Egunez ere naiko triste eta gaua etortzeko bildurrez. Zer iruditzen zaizu? Amairu urte trantze oiek pasatzen nengoala kunplitu nituan, Abenduaren 18-an.

Nere aita zana eta anaiak etziran gelditzen. Bi edo iru ganadu-aldiak karreoan, gurdiz kargatuta, kamiorik etzegoan eta.

Urte zar gaua, gure jaiotetxeari agur esanda, basarri berrian juntatu giñan, naiz batzuk erdi negarrez. Urte

zarreko aparria an preparatu zuten. Uste det koadrilla ederra juntatu zala.

Ni ere asko lasaitu nintzan, gu danak alkartuta ikusi giñanean. Denbora askoan ardi galduak bezela ibili giñan, al zan bezela. Pentsa nik ordurako zer pasatuta nengoan. Gero arritu egingo zerate ni gelditu nintzan bezelakoa gel-ditzea, azitzeko denborarik ez nuan izan da.

Nere bizitzako trote-aldi gogorra orrera bitartean izan zan; lendabiziko trote-aldia. Berriro esango dizuet zer des-grazi sortu ziran gure nagusiaren etxean.

Etxekoandre zarra iru illabetera il zan, guk aldegin-da. Ez da orrekin bukatzen. Aren alaba, Maria Luisa, andik beste iru illabetera il zan. Seie illabete barruan, ama eta alaba. Oraindik ere nere begietan aurrez aurre ikusten detala iruditzen zait. Bere arpegia beti parrez parre, ain sinpatika zan. Ta, kasualidadez, ura ta ni eskolan alkarre-kin ibiltzen giñan, eta jostatzen ere bein baño geiagotan. Biak urte berean jaiok giñan. Pena izugarritzua eman zidan. Ain zan salada.

Ni ordurako alako neska gustagarriei begiratzen asita nengoan, naiz ni ain txikia eta kaskarra izan. Jende kari-ñosa beti gustatu zait.

Utzi ditzadan kariño-kontuak. Oraindik badaude aurreragoko kontuak. Berriro ere bizimoduari eldu egin bear, eta laneko martxa gure Azkorte basarrian, gure aita zana eta anaiekin batera.

Sartu giñan basarri edo leku berri ortan. Bazegoan zer egiña pranko. Terrenoak bastante aldapak, eta urak arrastatuta, luiziak ondatutako lekuak. Leku aiek atxurrez berdindu ta belarra izateko moduan jarri bear ziran. Eta sagar-landare asko sartu ere bai.



Len esaten nuan bezela, terrenoak oso aldapak, eta piñu-landarea ere bastante jarri genduan. Ganaduairekin uztartu ta gurdiz lana egingo bazan ere, bideak ebaki eta bide berriak egiten, urte pare bat edo orrela pasa nituan, basarrian laguntzen, gurasoekin.



Jauregiko belardian, 1971ko abuztuaren 22an,  
Jose Aierberen kontra segan eta korrika irabazitakoan.  
Ezkerretik: Bernardo Irastorza, Iruntxiberri, Juan Carlos bere semea,  
Bizente Uegun eta Patxi Alkorta.

# Morroï

---

**A**mabost edo amasei urtez asi nintzan auzoko basarri batera lanera joaten: Argin basarrira. Gure etxetik gertu dago, Azkorte basarritik alegia.

Len morroi bat zeukaten, eta arek alde egin zien, Bakarren baten premian arkitu ziran, eta gure etxera etorri zan nagusia, Andres zana.

Iru ume zeuzkaten: neska bat, zarrena, Arantxa, eta beste bi mutil koskor, Felix eta Jose. Artean oso gazteak ziran. Eskolara joaten ziran.

Ni ere artean naiko gazte eta kaskarra nintzan; baña etzegoan beste bueltarik: lanari serio eldu bearra.

Argin basarria bi bizitzako etxea, terrenoak oso aldapak geientsuenak. Garai aietan gari asko egiten zan, eta lur preparatzea laiaz egiten zan, leku askotan golderik sartzerik etzegoalako, aldapagatik. Egun osoak, eta igual bat baño geiago segiduan, etxe ta kanpo pasa bearra izaten zan laitan.

Itz au, *laitan* esanda, askok ez dezute entendituko, ez dezutelako ikusi ere, eta probatu gutxiago. Aspaldiko urtetan ez da ezagutu orrelako lanik. Gaurko gazteak jarriko nituzke, zer dan jakiteko.

Ni, mutil koskorra, berrogei kilotan allegatu ezin, eta laiak nik baño geiago pisatzen zuten.

Eta altxa egin bear izaten dira lendabizi, anka-puntetan jarriz, bi laiak, esku banatan bat. Zoia izaten zan bost lagunekoa, edo igual zazpi lagun errenkan. Ni aien

tartean, ikusi ere egiten ez niñutela. Baña an danak batera altxa ta jo beera ta lurrari eldu zuzen egin bearra izaten da. Bestela, batek fallatu ezkeror, segituan ezagutzen da. An ez dago barkaziorik, zu txikia zerala-ta. Bein linean jarri ezkeror gizon tartean, kunplitu egin bear.

Esaeizu estropalariei ere. Nik ez det probatu estropada jokutzen. Baña an ez badute danak batera kolpea jotzen, aguro ezagutzen omen da baten falloa. Ba orrelaxe da, ba, laitako asuntua ere.

Amasei urtetik ogeira asko jardun bearra izan nuan. Oso lan gogorra zan. Basarrian zan lanik gogorrena.

Segan umetatik jarduten nintzan. Baña sega oso gustokoa izan det nere denboran.

Beste lan bat esplikatu bear det zer izan dan basarrian, lotsa emateko modukoa, gure ume-denboran. Orain orrelako gauzarik ikusi ezkeror, parre egingo dezute, arrazoi aundiz egiña.

Basarri batzuetan idi-parea ikulluan lanerako, uztarri-rako alegia. Terreno aldapa dala eta leku askotan mendibideak bear dan bezela ebaki edo egin gabe gurdi edo lera ibiltzeko, eta dana bizkarka. Guk esaten genduan sortaka.

Igual egunean amar, amabost edo geiago sorta belar. Igual zan belarra, igual zan arbia, igual zan paotxa, igual zan allubrea, basarrian ainbeste klase izaten ziran. Igual sagasti-sulo ta malkar zarretan, tente ibiltzeko moduko leku txarretan.

Artu ta sorta aundia jaso ezin lenbizi, eta gero al zenduan bezela sorta eraman eziñik. "Etxera allegatuko ote naiz? Ez ote naiz?". Allegatutakoan, bota sorta lurrera, eta lenbizi sortaren gañean pixka batean arnasa bueltatu eziñik. Berriro askatu soka eta beste biaje baten billa korrika.

Leku batzuetan ezagutu nituan astoarekin ere lan asko egiten zala, bizkarka baño aixago edo errezago. Ni morroi egondu nintzan lekuan etzegoan astorik, eta geuk egin bear asto-lanak.

Esaten ari naiz lan traketsa asko egiten nuala; baño esan bearra daukat lana gustora egiten nuala. Ez nuan lana egiteko bildurrik eukitzen. Zergatik? Oso jende ona zalako: nagusi, etxekoandre, aitona zarra eta iru gazteak.

Aitona, Felix zana, eta nagusia, Andres zana, il ziran. Seguru nago zeruan daudela; ni ere egunen batean allegatzen banaiz, an ikusiko degula alkar berriro. Eta ez nintzan oroitzen: amona Frantxiska zana. Etzan makala.

Etxekoandre Maria, oraindik bizi dana. Makiña bat lan egin duan etxekoandrea, bere alaba Arantxa eta bi seme, Felix eta Jose, inguruan dituala.

Neri oso ondo tratatu ninduten. Ez nuan bein ere burla txiki bat izan. Emakumeak, bat ala bestea, bai amona zanak, bai Mariak eta Arantxak, zer esanik ez nagusi Andres zanarekin, izugarri istimatua izandu nintzan, etxekoa bezelaxe.

Nagusiarekin lanera joaten banintzan edozer lanetara, bakarrik joanda baño obeto pasatzen nuan. Bakarrik joaten banintzan, askoz lan geiago egin bear izaten nuan. Nere buruari tarea jartzen bainion. Nagusiak bein baño geiagotan esaten zidan, egiten nuan lana ikusita:

–Motell, bi lagunen lana egin dek.

Beste baterako ere arrazoi txarra ematea baño ohea izaten da nagusia gustora ikustea. Ortan izugarri saiatzen nintzan: nagusia gustora edukitzen.

Ezin esango det ez nuala bein ere pekaturik egin. Zuzenena saiatuta ere oso zalla da ori, deskuido txikiren bat izan gabe. Deskuidatzen ez dan gutxi izango dira.

Len aitatzen nuan bezela, Argin baserria bi bizitzakoa da. Ta beste bizitzan ere oso jende berezia ta zuzena ta jatorra. Izugarri ondo eramaten genduan alkar, eta orain ere ala tratatuko dute, naiz nik gaurko berririk ez det.

Len, garai artan, basarrian egiten ziran ainbeste lan, alkarri lagunduz egiten zituzten. Len aitatzen nuan bezela, laitan ere bai. Etzegoan beste erremediorik. Auzoak bata besteari txandan lagundu bearra izaten zan, jendea osatzeko.

Bat, laitan. Gero, gariak eltzen ziranean, itai-lana izaten genduan. Oso lan sagradua. Eguraldi on eta txar egin bear izaten zan.

Itaia ortarako aproposa izaten zan: agin-ortzakikoa, zerra bat balitz bezela. Ainbeste añako soroak eskuz ebaki ta gero, lotu ta metak egin. Lan oiek txandan, bata besteari lagunduz, egiten ziran.

Zenbait aldiz Jose Mari Lertxundi ta biok alkarrekin ibiltzen giñan lan oietan. Nola zan ni morroi egondu nintzan baserri ortan bestekoa, askotan alkarrekin gertatu giñan gure lanetan.

Akordatzen naiz: garai aietan ere beti bertsotan edo txisteren batzuk kontatzen zituan, eta beti umore onean izaten zan. Artean etzan gaur añako artista bertsotan eta liburu kaleratzen. Gaur ez da edozein Jose Mari Lertxundi aiarra. Orrelaxe segi dezala urte askoan.

Bueno, ainbeste lan-kontu ta arrastaka-kontu esan dizuet.

# Korrikarako griña

---

**P**ixkanaka urtetan ere aurrera eta korrikarako griña ere sortzen asi zan. Lendabizikoa uste det San Donato jaie-tan izan zala, eta urrengoa San Isidrotan. Basarritarrak zerbait montatzen zuten karrera bat, errian iñor baldin bazan, korritzeko aukera.

Ni orduan badakizute morroi nengoala eta etzegoala entrenatzeko denborarik. Baña nola lanean ondo ezita geunden, etzegoan karrera koskor bat egiteko kuidaorik. Gaur baño aixago joaten nintzan orduan.

Ala, amazapi urte izango nituan. Morroi nengoan lekutik, Argin baseritik, gau-eskolara joaten nintzan; eta egun batez, edo gau batez obeto esanda, zarauztarrak etorri ziran, esanez ea iñor zegoan Aian korritzeko moduan, eta karrera edo krosa organizatu bear zutela.

Garai artan jende asko zebillen korritzen krosak erriz erri. Ni ez naiz danekin akordatzen; bakarrik Orioko Alberdi ta Zarauzko Iturzaeta, *Ttenttia* esaten ziotena, karrera danak irabazten ari zana. Eta Orioko Alberdi bigarren zebillen. Eta Aiako Benito Aldai ere orduan sartu zan karreretan, federatuta alegia.

Ala, ni ateratzea nai zuten, naiz ez preparatuta egon, Aian bertakoa izateagatik. Alaxe, animatu nintzan korritzera, eta susto ederra eman ere egin nien.

Krosa izan zan Aiako plazatik irteera eta allegaera. Rekorridoa: jetxi-igoera kanposantu-bueltak, eta errian

goitik barrena, zortzi bat kilometro. Ogei ta amar lagunek korritu genduan.

Aiako errian lendabiziko krosa ori izan zan, eta jendea oso gustora gelditu zan egun artan. Eskerrak zarauztarrak izan zirala lenengo sua piztu zutenak.

Ni bigarren gelditu nintzan, Zarauzko Iturzaetaren atzetik orpoz orpo sartu nintzan. Jendea arrituta gelditu zan. Irugarrena Orioko Alberdi izan zan; eta Aiako Benito Aldai laugarren gertatu zala uste det.

Federaziokoak eta antolatzaileak onela esan omen zuten:

–Au nola liteke? Lurrean ia ageri ez dan mutiko batek ai zer nolako sorpresa eman duan!

Erriän orrelako gauzak pixka bat mugitu egin bear izaten dira, afizioa sortzeko ere. Ez badezu biderik jartzen, ezin da iñor berotu.

Orrelaxe, aurrera ere morrontzan segitzen nuan, basarriko lan-borrokak egiñez, baña oso gustora.

Nagusiari ere asko gustatzen zitzaion korrikalari bat bere etxean sentitzea, afizio aundia zuan eta. Oso orgulloso jarri zan, eta berak ere asko animatzen niñun. Nik ikusi izan banu nagusiak etzidala ikusi nai, neretzako oso ixtillu txarra izango zan.

Urrengo krosa Ordizin korritu nuan. Aiatik autobus aundi bat, neska ta mutil, kongregazioan geunden jendez beteta joan giñan.

Ni ere oso gustora sentitzen nintzan garai artan luistar kongregazioan sartuta. Don Jesus zan gure zuzendaria. Illero joaten giñan konpesatu ta Jauna artzera, zinta urdiña lepoan jarrita.

Batek igual galde egin lezake zer pekatu egiten ote genduan. Ba, garai artan, len esan bezela, dana pekatu zan. Pentsamentuak ere pekatu ziran. Etzegoan neska bati musu ematerik ere. Orrela ziran orduko gauzak.

Ni gaztetan oso raroa izana naiz. Lana besterik ez nuan buruan. Igandeetan ere nola egiten genduan lana! Bazkaltzera artean, aste-egunetan bezela, beti zerbait egin bearra. Jai-arratsaldez, zerbait jostatzen inguruko lagunekin. Askotan ezta festara joan ere.

Batzuetan joaten nintzan kalera, bueltatxo bat ematearren. Lagunekin zerbait kontu txiki esanda, amarrak jotzerako etxera. Nik ikusten nuanean nere ordua, lagunak azkar uzten nituan. Esango nien:

–Bueno, mutillak, nik ordua diat etxera joateko.

Banekian etxean zein egoten zan nere zai. Nere aita etzan oieratuko, ni ez banintzan garaiz apaltzera etxera joaten. Neri izugarritzko arreta edo atentzioa jartzen zidan. Ni baño anai gazteena falta bazan ere, etzion kasorik egingo.

Gauzak orrelaxe izaten dira, eta ni izugarri saiatzen nintzan aita eta amari gustoa egiten. Pertsonak bear ditu bere ilusioak.

Lentxeago aitatzen nuan Ordiziako krosa, eta asi naiz nola joan giñan kongregazioko jendea, eta bidea nastu egin det, Elizako gauzekin sartuta.

Krosa nola izan zan? Ba, garai artan edo nere gazte-denbora artan ez nengoan etxetik iñora ateratzen oituta. Baña pozez txoraturik joan nintzan nere taldean, Don Jesus apaiza, oñatiarra, buru genduala, koadrillako artzaia alegia. Oso ondo arreglatzen giñan berarekin.



Ala, gerturatu giñan Ordizi ortara. Nik ez nuan iñor ezagutzen, ez korrikalaririk eta ez besterik. Baña etzitzaidan batere ajola.

Bi karrera zeuden: *junior* eta *senior* bezela; bi malla, alegia, Lenengoa, sei bat kilometroko karrera; eta bigarrena, zortzi edo bederatzi kilometrokoa.

Aukera eman zidaten zer karrera korritu. Nik orduan emeretzki urte neuzkan, eta lanik aundienari eldu nion.

Akordatzen naiz nola irteera Merkatu ondo edo plazatik eman ziguten; Beasain aldean barrena, an zubi bat kruzatu ta karretera jeneralera atera giñan. Irteeratik kilometro paren bat izango ziran, grupoan joan nintzan; eta andik aurrera motoristaren bat eta bizikleta-zaleren batzuk bidea erakusten. Rekorrido aundia baitzan bi bueltatan.

Karrera guzian, al nuanean, atzera begiratzen nuan, ea etsaiak inguruan ikusten nituan. Ez nuan iñor ikusteko moduan izan. Orrela izan zan nere amaiera: arraira bakarrik.

Naiz erri askotako jendea izan, Ordizin bertakoa izan zan bigarren sartu zana, karrera irabazteko faborito zegoana.

Ura atentzioa jarri zidaten, batez ere Federaziokoak eta organizatzen ibiltzen zan jendeak! Artean ezagutzen ez eta ain txikia ikusten niñuten. Berrogei ta bost edo berrogei ta sei kilo izango nintzan.

Egun ortako premia termo bat eta trofeo bat. Emen au eskribitzen ari naizela, bururatu zait egun ortako trofeo zarrari begiratzea. Naiz berrogei ta amar trofeo ori baño berriagoak eduki, orrixo atentzioa artu diot.

Ara nola dauzkan bere gorputzean letrak nere kopa zarrak: *Día diocesano de la Juventud Católica. Villafranca 1957. Vencedor II Cross Juventudes Católicas de Guipúzcoa.*

Ez da gaur goizekoa. Naiago nuke orduko sasoia baneuka. Baña zer egingo det? Konformatu egin bear. Nik baño gutxiago izan dutenak ere uste det badirala munduan franko.

Ba, ondoren artan bereala Aia errira joan ziran nere billa, ea animatzen nintzan karreretarako, Federatu egin nai izan ninduten. Nere partetik sartuko nintzan Federazioan, eta karrerak korritzen asi. Baña nere aita etzan konforme karreretan sartzea.

—Or etzegok ezer, trofeo zar batzuk besterik, denbora galtzen ibilita. Nik esana aditzen badek, korrikalaria aiz, eta irekin danak menderatu bear dizkiagu. Ortarako saiatu egin bear dik, zintzo ibili eta parrandak alde batera utzita.

Nik ondo ikasi nizkion ark esandakoak, eta ark esanda bezelaxe allegatu nintzan danak menderatzera edo danen gañean jartzera.

Berriro ere kanbiatzera noa nere tema, korrika-asuntoa gerorako utzita.

Basarrian ari nintzan lan da lan. Ordiziko karrera Ekainaren 18-an izan zala uste det; eta urte-sasoi ortan ez da bromarik basarrian: arto jorratzeak, belar ontzea, gari-lanak... Danak batera izaten ziran garai artan. Etzan gaurko konturik.

Zenbat aldiz bi sega pikatu ta jarri bezperan, eta urrengo goizean eguna argitu zai malkarrean segan asteko, goizeko bostetan jeikita! Freskuran lana errezago egiten baida.

Sega nola oso gogorra dan, ni beti apustuan bezela jarduten nintzan, neukan guzia emanetz. Inguruetako jendea arrituta egoten zan ez ote nengoan normal ala jarduteko, egunero apustuan.

Goizeko zortzi t'erdia edo bederatzietarako izugarrizko belar ebatea egiten nuan, askotan tente egoteko moduan ez nintzala.

Orduan gosaldu. Arrapatutako guziak jan, eta beste botilla bat sagardo edo iturriko ur freskoa edan. Ez pentsa, gaur bezela, ardoa edaterik zegoala orduan edozeñek. Gari-lanetan edo laitan eta lan gogorretan ari giñanean izaten zan ardoa ere, pixka bat, bizitzeko.



Tolosako Berazubín, 1974ko apirillean, Profesionalen Txapelketa.  
Ezkerretik: Irazu, Iruntxiberri eta Olarra

# Kanpora lanera

---

**B**ueno, pixkanaka bagoaz aurrera. Ogei urte egin nituan, eta bereala soldaduska ere arrimatzen, eta burua bueltaka, zerbait pentsatu bearrean.

Basarrian ainbeste lan gogor eta ainbeste ordu sartu bear, eta diru gutxi irabazten zan: illeko milla pezeta. Garai artako gauzak. Naiz gutxi irabazi, basarri artatik alde egitea pena artzen nuan. Zergatik? Ba, arreman one-nak nitualako danekin.

Baña momentu ortan aukera neukan diru geixeago irabazteko konstruzioan, etxe bat egiten, Usurbillen. Nola planteatu ez nekian nagusiari. Banekian kolpea artuko zuala.

Nere aitari esan nion zer pentsatzen nuan, eta ea nola esango nion nere nagusiari. Illuntzetan askotan alkartzen ziran nagusia eta biak kalean, baxoerdiak edanez eta kontu kontari. Alaxe, esan zion, eta bai eman ere kolpea. Nun zegoan etzekiala eta zer esan etzekiala gelditu omen zan.

Urrengo egunetan ez genduan kontu asko. Ala ere, ondo arreglatu giñan azkeneko partieran.

Alaxe egin nituan Usurbillen iru bat illabete, etxe bat egin bitarte erriaren alboan. Bi ofizial eta bi peoi. Masa eta dana eskuz egiten genduan, eta eskuz edo bizkarka jasozten genduan materiala. Etzan etxe aundia: bi pisutakoa bakarrik.

Ala, etxe ori bukatu bezin azkar, beste lantegia. Aiako errian bertan nere moduko baten billa zebillela Blas Odriozola panaderotzarako. Ala, presentatu nintzan itzegitera, eta tratua zerratu eta segituan asi nintzan lanean.

Blas au, ni morroi egon nintzaneko nagusiaren koña-dua zan. Nagusi orrek, len esan bezela, Andres zuan izena; eta beraren arreba, Karmen, bigarren etxe ortako etxekoandrea, Blasen andrea. Ziranak esan bear gaur, danak il ziran eta. Joanak mundu ontatik. Zeruan ikusi ditzagula.

Etxe ori oso famatua izan da. Nik, umea nintzala, eza-gutu nuan. Iruntxiberritik erosketak edo falta zan guzia, rasionamentuko ogia eta abar, andik ekartzen genduan. Makiña bat buelta egin izandu genduan. Ni oso txikia nintzala, nere amarekin askotan joan nintzan. Aiako Perresenia deitzen zitzaion. Denda komertzioa, jenero danetik izaten zan lekua.

Geroztik, nik ogei urte nituanean allegatu nintzanean etxe artara, mutil bat falta zutela eta nagusi-etxekoandreak onela mintzatu ziran, tratua egiteko denboran: lana egiteko orduak, goizeko iruretatik goizeko zortzirak ingurura arte. Ortik aurrera, neronek nai nuana egiteko denbora izango nuala.

Oiek izan ziran itzak, tratua egiteko denboran. Illeko milla pezeta soldata.

Len esan detan bezela, denda zeukaten ferreteri bezela, drogeri-gauza, ardo-almazena, taberna edaritegia, pensu-almazena eta, esan bearrik ez dago, panaderia. Ortarako falta zuten laguna.

Egunean berreun bat kilo irin enpleatzen genduan ogitan. Illean kamioi bat egur erretzen zan labea berotzeko. Ogia erretzeko labearen alboan zeukan ataka bat, egurra-

rekin sua egiteko. Egunean bear izaten zan egur-mordo bat, labea bear zan gradutan jartzeko.

Len aitatu detan bezela, illean kamioi bat egur ekar-tzen genduan menditik. Kamioi batzuk neuk preparatuta, Aiako Leola basarriko mendietan, Altzuzelai inguruan. Arratsaldeetan joaten nintzan bizikletan, atzeko parrillan aizkora bat artuta, eta zato txiki bat ardo-trago bat edo beste egiteko, ogi-koskor batekin.

Egur-lana dana aizkoraz egiten nuan. Moztu ta prepa-ratzen nuanean, gurdi edo lera idiekin kamio ondora jar-tzen nuan, eta gero kamioia kargatu, dana eskuz; eta etxe aurrean ustu ta gero, lan ederra ematen zuan, ura txikitu eta bizkarka sartu barrura.

Tratua egiteko denboran edo soldata jartzeko garaian etzan olako lanik. Ortaz aparte, mostradorearen barran ardo-txikitoak serbitzen ere jarduten nintzan.

Oiek orrela dirala, neri bildur geiena ematen zidan kamioia irin-zakuz kargatuta etortzen zanean. Garai artan zaku iriñak eun kilokoak ziran. Ura bizkarka artu kamioi-tik eta barrura. Ogia erretzeko zegoan labearen ondoan pillla egiten genduan. Ogei ta bost edo ogei ta amar metro zeuden, eta eskallerak ere pasa bearra zegoan. Kamioi aundiak izaten ziran.

Zaku iriñak jartzen zituzten kamioi atzeko puntan tente, eta ni ez nintzan allegatzen beren alturara. Nola edo ala artu egin bear. Ni jartzen nintzan aurrean, eta gañera botatzen zidaten.

Zakua gañera botatzen zizuten momentuan, anak eta gerriak doblatuta gelditzen ziran. Baña ala ere eramaten nituan. Eskallerak izaten ziran txarrak aiek pasatzen. Ez pentsa zaku bat eta bi zaku. Asko, buelta asko egin bear izaten zan. Ederki txikituta gelditzen nintzan.

Len esan dedan bezela, zaku iriñak eun kilo pisatzen zituan. Nik berrogei ta lau edo berrogei ta bost, geiena jota. Ortik kontuak atera. Bakarrik auxe: ogei edo ogei ta bat urte neuzkala. Edade ortan edo sasoi ortan dana abuantatzen dezu.

Soldaduskara joateko tallatzea ere or nengoala izan zan. Bakarren batek edo lagunuen batek esan zidan soldaduskan *peluquero* edo ille-moztalle edo ille apaintzen zekitenak ondo izaten zirala.

Ba, berealaxe asi nintzan ofizioa ikasten. Aiako Ziel-tzeta basarriko, Manuel Aldalur zuan izena, Bentaberri taberna Aiako kale barrenean zeukan. Eta taberna-baztarrean pelukeri txki bat, illea apaintzeko lekua; eta bizarra ere ebakitzen zuan. Nik berarekin amistadea neukan, eta itze-gin nuan nola pentsatzen nuan, eta oso ondo artu zidan.

Alaxe, illuntzetan asi nintzan berarekin pixkanaka, eta bereala jarri nintzan lana egiten nuala. Eta kuestioa zan, nola denbora gutxi neukan, soldaduskara joateko ofizioa ikastea.

Ba, alaxen egin nuan. Bastante poliki jarri nintzan nere ofizioarekin, eta soldaduska bai ondo pasa ere. Orain uztera noa soldaduskako kontuak. Eskerrik asko, Manuel zana. Il zan eta zeruan alkar ikus dezagula.

# Zalantzak

---

**P**anaderian nengoan garaian banituan lan geiago ere egin bearrak, naiz lo egiteko denborarik artu ezin. Zer ote da afizioa eta sua eukitzea?

Igande-illuntzetan, zenbat aldiz Aiako kale-baztarretik ezkutuka ateratzen nintzan, eta Pagoetako mendira edo Pagoetako Gurutze aldera. Beste bein edo bein, gau erdian, jendea lotaritzen zanean, Laurkingo buelta. Oso leku famatua zan ori. Kamio ortan prueba askotan egin-dakoa naiz. Noiz edo noiz Andazarrateko buelta ere bai. Ori kamio luzeagoa da.

Aian bertan neuzkan kontrarioak, eta ez nuan iñork ikusterik nai izaten. Ixilka ibiltzen nintzan.

Oiek orrela dirala, nola nai dezute ondo ibiltzea? Ez dakit nola bizirik abuantatu nuan. Ez nuan lo egiteko denborarik. Egun osoak lanean. Goizeko iruretan panaderian asita, gaueko amabiak askotan oiratu ezin.

Ba, orrelaxe zerbait pentsatu bearra izan nuan, soldaduskara joateko illabeteak falta zirala. Badakizute zer griña neukan barrena sartua: nere kirol-bizitzari eldu edo ez. Bietako bat aukeratu nai nuan.

«Kirol-bizitzari eltzekotan –esaten nion nere buruari–, oso gogor eta serio artu bearra daukat; eta erdizka edo besteen atzetik ibiltzeko, ez asita obe». Orduan artu nuan nere erabaki sakona.

Soldaduskara joateko, len esan bezela, ofizio txiki bat ikasi nuan ille apaintzen. Orrekin baneukan alako garanti



bat. Ortaz aparte, pentsatu nuan serio: «Soldaduskara joa-terako, erakutsi bear det zerbait banaizela».

Oroipen bat izan nuan: Zumaiako San Migel Artadin bizi zan gizon bat, Sotero Gorriti, oso kirol-zalea. Lasterkariak edo korrikalariak... Garai artan guk korrikalariak esaten genduan; baña gaur, nik uste, obeto dagoala lasterkariak esanda.

Ba, len esan detan bezela, jo nuan Zumaiako San Miela, eta oso ondo artu niñun. Ordurako zerbait ezagutzen niñun. Nik agertu nion Aian neukan egoera txarra utzi bearra neukala eta zer deseo nuan.

Etzuan denbora askoren bearrik pentsatzeko zer egin gentzaken. Ortarako, Aian neukan plana utzi edo moztu egin bearra zegoan.

Esan diot nagusi jaunari, Blas Odriozolari. Nola jarri zan, asko nai zidan eta!

–Motell, ez didak olakorik egingo! –esan zidan.

Neuk ere sentitu nuan nagusia ala ikustea. Baña etze-goan beste erremediorik. Alaxe, utzi nituan eta martxa. Urte bete egin nuan panaderian.

Nagusi-etxeakoandre biak joan ziran mundu ontatik, eta zeruan ikus ditzagula edo an gerta gaitezela. Bere aien seme bi eta alaba, maja askoa, Aian bizitzen dira. Izan dezatela suerte on. Orrelaxe dira mundu ontako gertakizunak.

Egun bat edo bi pasa nituan basarrian, nere aita eta amaren ondoan; eta alaxe joan nintzan Zumaiako San Migel Artadira.

Ura baño toki politagorik billatzen ez dago erreza. Getaritik Zumaiara sarreran, ezkerretara, arrobi baten ondoan dagoan kamioan betik gora artu bear da, eta bi

kilometro inguru, kasko-kaskora, ermita ondora, irixteko. Oso eliza polita.

Elizaren alboan soziedade bat barrioko jendea biltzeko edo alkartzeko edo denbora pasatzeko.

Ni joan nintzan etxe artan bi anai bizi ziran: Sotero, zana esan bearke, il zan eta. Zeruan ikus dezagula. Bere anai Inazio oraindik bizi dana, eta segi deiola urte askoan. Etxeko lanak bere oien illoba Mari Karmenek egiten zituan. Sotero zanak bere emaztea eta alaba Zumaian eukitzen zituan, kalean alegia bizitzen zirala, nola alabak lana enfermera egiten zuan. Nagusia, Sotero zana, askotan ura ere kalean egoten zan. Gaurko aien berririk ez daukat, eta ezin det ezertxo esan.

Len esan detan bezela, barrio polit ortan, alde batera begiratuta, Zumaiako erria, itxasoa, plaia eta abar ikusten dira. Eta geiago, zer esanik ez. Beste aldera begiratuta, aurre-aurrean Oikina. Arrona ere bai. Izarraitz mendia ere bai. Zenbat basarri eder eta kanpo zoragarri!

Ni artu niñutenak ere basarria zeukaten. Ganadu asko ez, baña terrenoa bai. Etxe inguruan, arte arbolak asko. Berago jetxita, piñudiak. Makal arbolak ere bai. Neuk bota nituan sail bat, beste lagun batekin, arpanez edo trontzaz. Emen ere badago zerbait: batzuek trontza eta besteak arpana esaten dute. Naparroan geiena arpana.

Bueno, emen esango dezute zer kondiziotan etorri nintzan barrio ontara. Lenbizi, lasterka egiteko edo preparatzeko idea.

Lendabiziko momentutik ez nuan iñork jakiterik nai zer asunto neukan. Ortarako, nagusiak eta biok bakarrik jakin bear genduan; eta morroi bezela joan nintzan, lanera. Egunez lana egin bear nuan, zerbait despistatzeko; eta gauean, illundu ta gero, ateratzen nintzan laster-

ka egitera kamiora, erbiak eta konejuak ateratzen diran bezela.

Jakingo dezute geienak erbiak eta konejuak gauez larrera ateratzen dirala. Goizean egunsentian gordetzen dira lo egitera, iñork ez baditu arrapatzen. Ba, nik ez nuan orrenbeste egingo; baña pixka bat antzera.

Kamioz entrenatzen nenbillela, or sentitzen nuanean kotxe edo argiren bat, laster gordetzen nintzan. Pasatzen zanean, ekin berriro! Nere sekreto au ixilka ibili bearra izaten nuan, apustua lotu edo zerratu bitartean. Bein apustua zerratu ezkerro, ez orrenbeste ezkutuka.

Obeto esanda, apustua lotzen da kontrato baten bidez. Gauza asko izaten dira lotu bearrekoak: zer lan, zein fetxatan jokatu, zer diru, kondizioak jarri ta bi aldeak konforme jarri bear dira, eta egindako apustu-papela izenpetu, eta diru-señaleak bota. Orduan gelditzen da lotuta.

Ortik aurrera, bat dala edo bestea, atzeraka asten bazera, botatako dirua galtzen da. Bestela, plazara joan bear zer gertatzen dan ikustera. An bukatzen da auzia.

# Lendabiziko apustuak

---

**N**ere bizitzan lenbiziko apustua, Zumaiako San Migelen nengoala, 1958 urtean, zerratu nuan. Orion San Nikolas festak ziran eta or egin genduan alkar ezagutzeko modua aginagar gazte birekin. Ortik aurrera asi giñan izketan, eta apustua lotzeko bidea izan zan. Aiako plazan jokatu genduan, 1959-ko Urtarrillaren 18-an, arratsaldez, zortzi kilometro bueltaka, kondizio igualetan. Estuasun aundirik gabe irabazi nion. Aginagako Juan Tapia zan nere kontrarioa. Il zan eta zeruan gerta dedilla.

Garai artan, nik ere gazte jende asko neukan neri segitzen zidana. Zumaiatik jende asko etorri zan, eta Aginaga aldetik ere bai. Aian jende asko izan zan.

Ni pozez txoraturik joan nintzan Zumaiako San Migel Artadira. An lagun asko egin nuan, neska ta mutil.

Orduan asi nintzan bizitzen. Lan pixka bat egiten nuan. Baso-lana zegoan: mendiak garbitu eta piñua aldatu. Beiak eta txekor batzuk bazeuden, eta aientzako janaria etxeratu edo karreatu bear zan, belar edo arbi.

Asto aundi bat bazegoan etxe ortan lanerako. Oso asto ondradua zan, baña nik kargatzen komeriak izaten nituan. Ezin allegatu izaten nintzan. Ni ain txikia eta asto aundia, pentsatu besterik ez dago.

Uztar-beiak zeuden izugarritzko onak. Aiekin gustorago ibiltzen nintzan. Dema-proba jokatzeko modukoak bairiran. Nik bein edo probatu nituan: kargatu izugarritzko gurdi belarrak eta *benga!*

An dana betik gora zegoan karreatu bearra. Terreno batzuk, Oikina ondolik Zumaiara dijoan erriorearen ondoan zeuden soro-lurrak.

Nik korrika entrenatzeko plaza edo uztaiare ere soro oietako batean euki nuan. Euria egiten zuanean, naiko motela jartzen zan. Soro artan bueltaka ibili aspertu arte, eta andik San Migelko puntara tirada ederra betik gora, entrenamentua amaitzeko.

Len esaten nuan bezela, Aian jokatu korrika-apustua eta bigarren apustua segituan preparatu zidaten, Azpeitin jokatzeko, nola denbora gutxi neukan. Martxoaren 8-an soldaduskara Loiolan sartu bearra, eta 1959-ko Urtarrillan Aian eta Martxoaren 4-an Azpeitin jokatu nuan, eta 8-an koartelera.

Bigarren apustua Arrua-goiko Ramon Azpeitiaren kontra: zortzi kilometro bide, zezen-plazan larogei buelta nik; kontrarioak buelta ta erdi gutxiago: eun da berrogei ta amar metro gutxiago. Ori da nik ematen nion bentaja.

Martxoaren 4-an jokatu genduan, Azpeitiko plazan, jai-arratsaldez. Bastante jende izan zan. Ziur esateko ez nago zenbat lagun ziran. Baña gaur baño gazte jendeak obeto segitzen zuan.


Oso gustora joan giñan tasisa artuta. Garai artan kotxea zeñek eukitzen zuan? Jende asko trenez ibiltzen zan.

Lentxeago esaten nuan oso gustora joan nintzala. Etxera gustorago etorri edo bueltatu giñan, apustua irabazita.

Ez nuan estuasun aundirik izan. Iru edo lau kilometro egin arte atakatu zidan. Andik aurrera neuk nai nuana egin nuan.

Orduan pena bakarra zan. Ala preparatuta nengoan, ez nuan sentitzen zer zan korrika egitea. Baña danak utzi ta laugarren egunera soldaduskara. Egun ortan oso ondo zelebratu edo ospatu genduan. Apaldu, Azpeitin. Andik Oikinara etorri giñan. An ere lagun aundiak genduzkan. Lasai beraiekin egondu giñan, eta etxera nere lagunekin, azkenik naiko triste, lagunak despedituta.

Urrengo egunez Aiara, basarrira, nere aita eta amaren ondora, egun bat edo bi pasatzera, Loiolako koartelera joateko. Ala ere, aita eta ama eta senideak oso gustora zeuden, bi apustu irabazita nola nengoan. Alaxe, korrika pixka bat atzendu eta beste bizimoduari eldu bearra zegoan. Bueno, ordua etorri da, eta burua makur-makur jarri umil-umil, eta morrontzara koartelera.



Tolosako zezen-plazan, 1969ko maiatzaren 19an,  
Irazuren kontra jokaturako apustua.



Ordiziko korrika irabazi ondoren, 1957ko ekainaren 2an.  
Ondoan, Don Jesus Iturruzpe apaiza eta Manuel Mari Aldalur.

# Soldaduska

---

**D**onostiko *Gobierno Militar*-ean presentatu giñan, Martxoaren 8-an, goizeko zortzi t'erdietan. Andik Loiolara danak, kamioa betean, prozesioan bezela, oñez. Alaxe sartu giñan koartelera.

Ni artean gauza asko ikusi ere egin gabea, eta bildur antzean aurreneko egunean. Baña bereala konturatzen zera zu bezelako edo ni bezelako asko dirala alboan. Naiz batzuk aundiagoak ikusi, ni bezelako koskorra ere asko izaten da, eta segituan konturatzen da zer martxa dagoan.

Lenengo konpañian tokatu nintzan. Koartelera sartu ta berealaxe, sarjentoak galde egin zuan ea pelukerorik ba al zegoan presentean. Ni preparatuta joan nintzan, nere maleta aundia jaso eziñik. Segituan presentatu nintzan, eta alaxe jarri niñun ille luze samarra zeukatenei illea mozten. Ba, orrela izan zan nere soldaduskako asera.

Ortik aurrera, nik ere, besteak edo gañontzekoak bezela, instruzioak eta an egin bear izaten diran gauzak edo ibillerak egin bearra neukan. Baña tarte edo utsune txiki bat arrapatu eziñik ille-apainketarako.

Oso polita da, soldaduska ondo pasatzeko, ille-apainketako ofizioa. Jende askorekin eta ofizialekin, danekin artzen dezu izugarrizko ezaugarria eta amistadea. Gañera, bein ere patrikan txanpon-faltarik ez.

Etzaizkit fetxa guztiak oroitzen. Bakarrik Martxoa zala eta Loiolatik Naparroara, Carrascal-era, Campanas-tik aurrera nola eraman giñuzten.



San Jose eguna pasa eta ondorengo egunak ziran. Asteazken santu illuntzean Donostiko estazioan sartu giñan merkantzi-bagoitan, eta Ostegun Santu goizean, zortzirak aldean, Campanas-ko estazioan atera giñan eta martxa betik gora kanpamentura, iru bat kilometro.

Elurra ere bazegoan. Izugarritzko otza egiten zuan. Soldadu bakoitzak bere tresnak, mosketoi, mantak eta motxila aundi bana, bear genduan erropa guztia, kartutxerak, oiek danak...

Nik oiez aparte maleta dezentea neramakian, nere pelukeritzako tresnak eta abar. Etzuten ametitzen maletarik. Baña neri utzi zidaten edo ametitu zidaten, ille-moztallea nintzalako.

Baña komeria zan ezin nituala jaso. Aurrena, Loiolako koartetik Donostiko estaziora, oiek danekin kargatuta, ler eginda. Gero, alako gaua pasa: goseak, lorik egiterik ez, lurrean etzanda bata bestearen gañean edo al zan bezela, amar edo amabi ordu.

Campanas-tik gora arrankatu genduanean, animo ederra zan, tente ezin eta ala kargatuta segi egin bear. Ikusten zuten nik ezin nuala inguruan nituan lagunak, eta txandaka artzen zidaten maleta, eta alaxe allegatu giñan noizbait ere kanpamentu artara.

An etzegoan iñon sartzerik. Lendabizi jende taldeak egin, emezortzi lagun, tokatzen zan bezela, tienda-kanpañak altxatzen asteko. An etzegoan bromarik. Ixil-ixilik koadrilla bakoitzak montatu egin bear alojatzeko. Bestela ez gendukan nun babestu edo nun sartu gauerako. An egiten zuan otza, elurra txispeatzen! Alaxe, gauerako zerbait armatu genduan, tabla gañean lo egiteko modua.

Urrengo eguna, Ostiral Santu. Berriro lanean, gauzak ondo txukundu edo ordenean jarri arte. Orrela izan zan Pazko-eguna pasa bitarte.

Astelen-goizetik asi siran kornetak mugitzen. Bein diana jo ezker, etzuten erropak jazteko denborarik ematen: «*¡A formar como sea!*». Ba, goizean atentzio aundiz esnatzen bagiñan, al dan ixillena preparatzen asi bearra zegoan.

Len esan dedan bezela, bein kornetarekin asi ezker, azkar atera bear formatzera. Bestela, ba, sarjentoren bat an izango zan aguro korrea batekin. An ez pentsa iñork bar-katuko dizunik. Euria ari baldin bada ere, berdin. Lista pasako zuten eta «*¡Rompan filas!*».

Eta berriro aguro, formatzera, kafe-esne beroa edo epela artu nai badezu. An etzuan iñork obligatzen.

Berriz segituan galtza motxetan jimnasia eta *paso ligero* ordu bete bat.

Ori bukatu eta berriro buzoa, botak eta abar jantzi, mosketoia artu eta instruziora. Egoarte guztia askotan, bazkalteko ordua arrapatu eziñik. Bat baño geiago lurrera mareatuta, auldadeak jota. Arratsalde teorika, eta illuntze aldera lasai.

Ba, lau bat illabete oso gogorak izan giñun bandera juratu arte edo bitartekoa.

Nik, illuntzetan eta larunbat eta igande-goizetan, ille-apainketan edo mozten goizean eguna argitu orduko asi bear izaten nuan. Jendea esperoan jartzen zan. Geunden pelukeroak ezin giñun danak arreglatu.

Nola obligatzen zuten, rebisioa pasatzen zuten igandero mezetarako formatu arazten zutenean. Bein mezako momentu ura pasatzen zanean, igandeetan libre gelditzen giñan, illuntzeko lista pasatzeko ordura arte.

Orduan saiatzen giñan: inguruetako erri koskorak pasatzen giñun eta jan edo edan arrapatzen genduana. Lagun-kuadrillak joaten giñan. Billatzen giñun ondo jan

eta edan egiteko lekuak. Len esan dedan bezela, igandee-tan oso ondo pasatzen genduan.

Nik garai batean zer esango nuan soldaduskari buruz, ezagutzen ez nualako? Eta beste edozeñek zer esango luke, arrazoi bategatik? Dirua gastatzeko morrontza dalako; ez dirua irabazteko. Garaia allegatzen zanean, len etzan edozein moduz eskapatzerik egoten. Ixil-ixilik joan da pasa.

Nik esan bearra daukat soldaduskara sartu nintzane-tik aurrera asi nintzala bizi izaten. Egun gogorak eta latzak izango ziran; baña egunik oberenak ere soldaduz-kako denboran. Asko ikusi, eta ikasi ere beti zerbait.

Lagunak ere an istimatu egiten dira, tratatzeko modu-koak badira, naiz askok besteren ona ezin eramana eta ezin ikusia izaten duten.

Alako kabo eta kabo primera ta reengantxatuta erdi goseak erreta daudenak, zerbait agindu nai, reklutak azpi-ratu nai ta ezin, agintzeko ez dutelako bear aña galoi. Aien ondoan zabiltzan garaian, naiz tontoa izan, oraindik tonto-papel aundiagoa egin da aurrera. An txulo burua goien dezula jartzea okerragoa da. Al dan umillena aien ondoan.

Andik libratzen giñanean, eta lagun jatorrak juntatu: «*j Viva la Pepa!*». Euskaldunak mordoa biltzen giñan. Aiakoak ere lau edo bost bagiñan; eta ortik aparte edozein erritakoak.

Illuntzetan, zato ardoa bete ta beste bokadilloren bat artuta jartzen giñanean kontu kontari, giro izaten zan gurekin. Kastillanoak ere izaten dira euskaldunak bezin jatorrak eta onak.

Tienda-kanpañan alkarrekin lo egiten-eta, famili bat egin bear izaten da edo izaten zan. An ederki ezagutzen da artu-emanetan-eta bat nola portatzen dan. Ala, bat edo bi naikoak dira tienda batean dana ondatzeko.

Ustez lo egiteko lekua tabla gañean jarrita daukazu txukun-txukun, eta asten zera illunpetan manta azpira sartzan, eta ezin. Zer pasatzen da emen? Petaka egiña batenbategen. Eta zuk orduan komeriak. Oia berriro egin bearra illunpetan. Beste batzuk, parrez lertu bear. Beste batzuk bullaka, lo egiten uzten ez diezulako, arrazoiarekin.

Seguru ez nago, baña uste det emezortzi lagun tienda bakoitzean. Badakizu zer saltsa izaten zan ura? Orregatik esan bearra dago pertsonatik pertsonara zer alde dagoan. Olako leku batean ondo ezagutzen dira edo ondo ezagutzen gera.

Momentu ontan akordatzen naiz tiendan alkarrekin zein izan giñan. Bat, Aiako Jose Mari Labaka zana, oso mutil jatorra eta bromosoa. Zeruan gerta dedilla, eta berriro alkar ikusteko argia izan dezagula. Soldaduskan alkarrekin izan giñanak, asko daude illak.

Eta Aiakoa beste bat ere, Uzkudun basarrikoa, Antonio Arruti, bakaziotara zijoala bere familiarekin azidentez illa. Mutil bat alegrea eta bromosoa. Asko akordatzen naiz berarekin. Zeruan alkartu gaitezela.

Zerbait bageralakoan, alkar jan bearrik zertarako ibiltzen gera? Jakin gizonik aundienak eta bizkorrenak ere xomorro txikienak baño geiago ez degula balio.

Utzi deiodan kontu triste auei. Neu jartzen naiz sentimentuan, danekin akordatzen jarrita; eta neu ere, nola urtetan aurrera nijoan, ez gerala denbora askorako izango.

Berriro ere obe izango det soldaduskako gauzei bueltatxo bat ematen segitu. Pertsonak orduan izaten du sasoi: ogei ta bi edo ogei ta iru urte. Gaur jende asko soldaduska orren igesi dabil, naiz orduan baño bastante motzagoa dagoan. Asko ta asko ari dira libratzen. Ondo egiten dute. Baña ni gustora joango nintzake, orduko

sasoia arrapatzeagatik. Orrelaxe izan zan bandera juratu bitartea Carrascal-en. Bastante gogorra. Martxoan eraman giñuzten. Bueltan Loiolako koartelera Uztaillaren ogei aldera sartu giñan, eta gauzak ederki aldatu ziran. Nik andik aurrera ez nuan soldaduskarik izan.

Abuztuaren aurrenerako etxean nintzan iru illabeteko permisoarekin, Urrian azkenera arte. Oso ondo etorri zan. Udara guzia lanean pasa nuan etxe edo kanpo.

Ala, berriro bueltatu nintzan koartelera, eta neri ille apaintzeko lana jarri zidaten.

Nai zuana rebajatzeko eskubidea edo libertadea bertako jendearentzat. Goizean zortziretarako sartu eta eguerdiko ordubata arte serbiziorik ez daukana, urrengo goiza arte libre. Nik orixe egin nuan: rebajatu eta noiz edo noiz guardiren bat neukan egin bearra. Beste serbiziorik ez neukan.

Nik, ille apaintzeko pelukero bezela kuarteleko pelukerian lana egiten nuan, eta kanpora ere atera bearra izaten nuan, ofizialak arreglatzera, beuren etxeetara. Aitzaki orrekin, ate printzipalean nai nuanean atera eta sartu egiten nuan, arratsaldez ez banuan lanik.

Bazkaltzera Mendiola baserrira joaten nintzan. Atera koarteletik eta Altzara gañez gaiñ, Mirakruz gaña pasa eta Trintxerpe gañean dago Mendiola, leku famatua. Merientatzera jende asko len beintzat joaten zan. Arratsaldez lanean zerbait laguntzen nien, eta apaldu ta lo egin.

Goizean ematen zidaten bokadillo aundi bat eguerdirako, eta korrika koartelera, eguerdia pasatzera. Ogei ta bost edo ogei ta amar minutu bear izaten nuan batetik besterako rekorrdoa egiteko. Igoal goizean azkartxeago, Mendiolatik koartelera aldapa bera neukalako. Eguerdian edo arratsaldez, noiz nijoan, denbora geixeago, betik gora

egin bear nualako. Ala ere, garai artan ez nuan aldaparik sentitzen. Orrela gozatzen nintzan.

Azaroa, Abendua, Urtarrilla pasa nituan, eta berriro bi illabateko permisoarekin etxera bidali niñuten; eta uste det geiena bi illabete oiek Mendiolan laguntzen, edo lan pixka bat egiñez alegia, pasa nituala, berriro bueltatu nintzan bitarte; eta ostera lengo martxa bera koartelean, lizenziatu artean.

1960-ko Uztaillaren 11 edo 12-an *carta verde* eman ziguten, eta len ere esan det oso ondo pasatu nuala. Baña izugarrizko ilusioa izaten da koartelari atzea eman da alde egiteko. Orrelaxe bukatu genduan morrontza-klase ura.

Nere soldaduskako koarteleko ainbeste gauza kontatu det, eta auxe pasa zait aidean: lizenziatu baño berrogei edo berrogei ta bost egun falta zirala, Loiolako koartelean ez dakit edo ziur ez naiz oroitzen zeñek planteatu zigun, sarjento edo teniente edo kapitanak, bi boluntario falta zirala Carrascal-era joateko: *ordenanza de comedor* izateko.

Lagun bat baneukan benetakoa. Alkarrekin oso gustora eta beti ondo konpontzen giñan, eta alkarri esan diogu, berriro len pasatakoak akordatuz:

–I: biok zergatik ez?

Txolloa zegoan. Lagun ura Jose Azpillaga zan, Errezilkoa, nere dobleko mutilla. Ni aren ondoan ez nintzan ikusi ere egiten. Aita-semeak bezela presentatzen giñan.

Ba, alaxe egin genduan plan ori, eta etzitzaigun damutu. Ez koartelean gaizki geundelako. Bakarrik Carrascal aldean aize sanoa artu eta bost lagun geunden reklutei otorduak serbitzeko. Goizean, lenbiziko, sukaldaritzan ari ziranak preparatzen zituzten kafe-esne peroladak, eta kalean jarri sallean eta burruntzaliz ura partitu.

Ura bukatzen genduanean, sukaldean aparte preparatzen zan kafesne ohea, ofizial eta an lana egiten zutenentzat naikoa. Gosari txiki ori egin da berriro oira joaten giñan amar t'erdiak edo amaikak arte.

Orduan etortzen zan panaderoa, eta ogi-bollo bana artu ta joaten giñan kozinara. An arrapatzen genduan onenarekin ogi-bolloa bete eta *Hogar*-era.

Amabiak eta erdietan edo inguruan asten giñan komedorea edo jangela eta maiak prestatzen. Artu zaku ogiak eta bakoitzarentzat ogi-bollo bat jarri beren lekuetan.

Ordubatean, jendea sartzen zanean, bazkaria serbitu; eta, bukatzen zutenean, maietako zikinkeria jaso ta dana garbituta uzten genduan. Lan au egiten genduan eguerdian eta gauean, naiz gauean jende gutxi izaten zan. Guretzako obeto: azkarrago egiten giñun lanak.

Len esan dedan bezela, jangelako lanak amaitzen giñunean, geuk jaten genduan. Sukaldari ari ziranak jatekoa apartatzen zuten beraientzat eta guretzat. Oso ondo jaten genduan.

Sueldoa ere sukaldariei bezela edo berdin pagatu ziguten. Ziur ez nago, baña uste det eguneko zortzi pezeta zala.

Nik lan asko egiten nuan illuntzetan eta astearen azkeneko egunetan ille apainketan edo burua edo lepoa garbitzen, txandarik artu eziñean. Batek baño geiagok esango du:

–Soldaduskan ille-apainketa kobratzen al da?

–Segituan esango dizuet: ez da kobratzen; borondatea bakarrik.

–Orduan zer egiten uan?

Serbizio bakoitzak edo arreglo bakoitzak bost pezeta. Duro bat ematen etzuanik etzan izaten. Zergatik? Rebista pasatzeko arreglatu bearra obligatzen dizute. Bestela, kas-

tigoa; eta danak arreglatu nai, eta askotan ezin: pelukero-  
eskasia izaten zan. Batek nai eta besteak nai, orduan bada-  
kite, ez badu propinarik ematen, urrengo txandan jai dau-  
kala.

Larunbata eta igande-goizetan, eguna argitu orduko,  
jendea zai edo esperoan, lo egiten genduan tienda-kanpa-  
ñaren ondoan. Ogei edo ogei ta bost bat pasatzen nituan:  
orduko lau lagun. Garai artarako jornal polita ateratzen  
zan, lanean saiatuta alegia.

Orrela izan zan nere soldaduskako bukaera.

Carrascal-dik bera Loiolara reklutekin batera etorri  
giñan, eta ez genduan geiago ezer egin bearrik izan: azke-  
neko despedidako desfilea eta «*¡Rompan filas!*», eta  
«*¡Adiós, Loyola y compañía!*».



Donostiako Loiola Kuartelean, segarekin jardiñean, lagun batzuekin.





Arrua-goiko Ramon Azpeitia eta Iruntxiberri,  
Azpeitiko zezen-plazan, 1959ko martxoaren 4an,  
korrika apustua asteko garaian.

## Ezin erabakiz

---

**O**rrelaxe gure bizitzako zati bat pasatu da ala-ola, eta momentu artan familira, gurasoen eta senideen ondora, bildu nintzan, basarrira; eta an etzan faltatzen zer egiñik.

Bi edo iru illabete pasatu nituan etxekoei lagunduz; eta zerbait pentsatzen asi bearra nengoan nundik nora jokatu. Zer bizimodu artu, alegia. Naiko buruauste pasatzen nituan, nola jokatu ez nekialako.

Nik ikusten nuan etxean nere aitak zer nai zuan: nola edo ala nik korrikarako griña artzea; eta nik gauza asko pentsatzen nuan. Nere buruari esaten nion: «Ni apustu-munduan sartu ta ez banaiz allegatzen danen gañean jartzera, ez dik balio. Eta ori danok badakigu oso zalla dala. Ez da basta aitak eta amak eta senideak nai izatea baka-rrik. Norberak bear du ortarako. Lendabizi, berezkoa eka-rrri bear du. Obeto esanda, aurrena jaiio eta gero pertsonak pixkanaka azi edo bere estaturatxo bat bear du, gizon jato-rrren kontra plazan ibiltzeko».

Danok dakizuten bezela, ni Iruntxiberri basarrian jaiio nintzan, 1937-ko abenduaren 18-an; baña oso kaskarra gelditu nintzan, bear aña azi gabe. Berrogei ta amar kilora allegatu gabe pasatu ditut berrogei ta amar urte. Ikusten nuan oiek danak orrela dirala, eta nere buruarekin ezin erabakia artu, eta pertsona bati galdera auxe egin nion:

–Aizu: zer iruditzen zaizu? Nere buruarekin borroka au daukat: deporte-munduari eldu edo total atzera utzi.

Erantzuna auxe izan zan:

–Leon, nik zu ondo ezagutzen zaitut, eta zuk ez dezu balio apustu-munduan ibiltzeko. Fiñegia zera. Apustuan dabillanak libre du al duan ainbat egitea. Lagunak edo lagun ustekoak okerrenak ateratzen dira.

Nik gauza au ederki ikusita nago gaur.

Beste gizon serio batek esan zidan –ez da apustuan ibilitakoa–:

–Leon, apustuan kontuz ibili. Jende asko arrimatuko zaizu, zuk dakizuna jakin naiean galdezka. Ba, orrelakoei gezurra esatea libre da. Baña ixilik dagoanari gezurra esatea ez dago ondo. Ez bazaizu komeni, ixilik egon, gezurrik esan gabe.



Tolosako zezen-plazan, 1969ko maiatzaren 19an, Irazuren kontra jokaturako apustua.

## Iru apustu

---

**N**aiz gauza au orrela ikusi, pixkanaka astea erabaki genduan. Nola esango zenduke? Len ere esan dedan bezela, Donostiko Errera edo Trintxerperen gañean, Ulia mentitik aurrera, Pasaiko puertoaren aldera dago Mendiola basarria, merendero bezela garai artan, eta oraingo berririk ez det nola segitzen duan. Len lan asko egiten zan basarri bezela ta merendero ta sagardotegi bezela.

An konfiantza aundia neukan lendik, soldaduskan nengoala ere ara joaten nintzalako Loiolatik; eta an beti morroi-falta izaten zan, naiz beste mutilen bat edo bi eduki. Ala, ni aiekin batera lan puska bat egiñez, korrikarako entrenamentu batzuk egiten nituan disimuluan. Baña postura txarrean ibiltzen nintzan: lan asko eta ezin arrastoan sartu.

Katarroak ere asko atakatzen niñun, bronkioetakoa baineukan barrena sartua, eta asko ondatzen niñun. Au zan 1960 urtean. Udazkenean joan nintzan Mendiolarara, eta negu guzia orrela pasatu nuan.

Etorri da udaberria; Martxoaren aurrenaldean geunden. Zerbait egin naia ta or agertu zaigu Patxi Irizar, andoaindarra: zerbait egiteko pronto zegoala ta ea joko koskor bat alkarri jokatuko genion.

Alaxe lotu giñan. Nik ere zerbait egiteko gogoia, naiz ez egon ari frente emateko moduan. Zortzi milla metro korritzeko, bi buelta bentaja eman zidan; baña ala ere naiko justuan galdu nuan. Ez nintzan animatuta plazara joan.

Soldaduskara bi joko irabazita joan nintzan; eta soldaduska pasa ta lenengoarekin asera txarra eman nion. Baña joko orrek asko erakutsi zidan nola jokatu bear dan. Esperientzia ere bear baida plazan, eta artean ez nekian zer zan preparatzea, eta geroxeagoan ere ez.

Ortarako oztopo asko pasa bear da. Ez deportistaren preparatzea bakarrik. Askoz okerragoa zan, eta peligro aundiagoa eta zallagoa, deportistaren inguruan arrimatzen ziranak eta konpromisoa ematen zizutenak ezagutzea.

Orain aurretik aitatu detan apustua jokatu nuan Mendiolan nengoala, Tolosako zezen-plazan, Apirillaren 30-an, 1961 urtean.

Urte berean, Ekainaren aurrenaldean, aldatu nintzan Ulia menditik Ernaniara, Altzueta basarrira. Jende jatorra eta ona arrapatu nuan an. Lan asko egiten zan: sagardotegi, baratza, ganadu-mordoska ta abar. Ni or sartu nintzan.

Lan piska bat egiñez, egunero korrika entrenatzen nintzan. Iraillaren aurrenean lotu giñan korrika-apustu bat egitera, Abenduaren aurrenean, Tolosako zezen-plazan, zortzi milla metro, Juan Ugarte Txantxon agiñarraren kontra.

Joko au jokatzeko preparatzen nengoala, or presentatu zaigu Bautista Baleztena, Naparroako Uizikoa. Astelen batean, nere anai Antonio arrapatu zuan mutil onek, eta esan omen dio:

–I, Iruntxi: ire anai korrika ibiltzen dan orri jokatuko nitxeokek.

–Nere anai orrekin ola ta ola gatxeudek gu, Abenduaren aurrenean korrika-apustua jokatzeko.

Besteak erantzuna:

–Bai; bazekiat. Orregatik etziok inportik. Ni ere pixka bat preparatuta natxeok, eta gure apustua aurretik jokatu-

ko diagu. Emendik berrogei bat egunera ni prest egongo nauk.

Nere anai Antonio pixka bat sustatuta gelditu zan zer ikusiko, ain baliente kontrarioa ikusita, ezagutzen ez ta. Ala, nere anai orrek esaten omen dio:

–Zer moduz ibiltzen aiz? Zertxo egiteko esperantzak dauzkak?

–Zortzi milla metro ogei ta sei minutu ta erdi bat inguru egin bear nitek.

Nere anaiak:

–Motell, zer esaten ari aiz? Ori asko dek. Gure txikia ez dek orrenbeste. Ik orrenbeste egiteko esperantzak badauzkak, bentaja pixka bat bearko diagu.

Ala beren artean mintzatu eta bereala lotu ziran, nere berri gabe: zortzi kilometro, Aiako plazan. Berrogei ta amar metro bentaja, buelta erdia, eman zidan.

Azaroan, 1961 urtean, jokatu genduan. Eguraldi ederra egin zuan; egoaizea zan. Napar gaztea ere naiko arro etorri zan, aurretik jende guziari esaten apustua aixa irabaziko zuala eta bere alde dirua jokatzeko esanez.

Jende asko arrituta zer pasatzen zan: dirua dana aren alde. Suerte ederra izan zuten: gu etxeko familikoak bakarririk geunden, eta diru-jokatzaille txikiak. Jokalari aundiak egon baziran egun artan nere aldetik, ederra artuko zuten.

Korrika egin gabe irabaziko zutela uste eta oso marka kaskarra eginda irabazi nion: 28' 40". Ez dakit seguru, baña ogei ta amar minututara uste det joan zala bestea.

Aiako plaza ez da izan marka egitekoa: larogei metro-tako plaza txikia eta arrautz-itxurakoa. Ala ere, garai batean jokatzen ziran bastante apustu-korrikak. Gaur ez da olakorik Aian.

Len aitatzen nuan atal ontan nola neukan agiñar Juan Ugarte Txantxonen kontra jokatzeko apustua Abenduan. Ba, Aian ikusi zuan korrika-apustua. Ondorenean, botata zeuden edo, obeto esan, joko-dirua depositatuta zegoana galdu ta erretiratu ziran, esanez etzetzozela jokatzera. Artan bukatu zan iru illabetean jokatzeko zegoan jokoia.



Esteban Agirrezabala eta Iruntxiberri korrika.

# Esteban Agirrezabala, Bedaiokoa

---

**N**ik Ernaniko Altzuetan segitzen nuan, basarriko lane-tan lagunduz; eta, jakiña, nere entrenamentuan ere zearo aztu gabe, beti aurrera begira nun erbiren bat azalduko, ni eskopetarekin zai. Negu guzia udaberri alderarte orrela pasatu nuan.

Berriro agertu zan kontrarioa, jokoa egin nai zuana: Esteban Agirrezabala, Bedaiokoa. Tolosako *Bar Cantábrico*-n, San Jose egunarekin, juntatu giñan eta jokoa zerratu genduan.

Pelea ederra jo genduan apustua lotzeko. Bi aldeak irabazi nai izaten dute. Ortarako peleetzen da. Kontrarioak bentaja aundia eskatzen zidaten; eta nik ere bildurra, aiek eskatzen zutena emateko. Nik jarri nien nere topea: eun metro zortzi kilometroan, buelta bat alegia. Aiek geiago nai eta nik abuanta nerearekin. Azkenik konformatu ziran zortzi kilometrora, eun metroko bentajarekin.

Azpeitiko zezen-plazan jokatu genduan. Erramu-egun bat zan, arratsaldean: 1962-ko apirillaren 15-ean. Au bostgarren apustua zan, eta bastante errez irabazi nion.

Oroitzen naiz nola jokatu bear genduan baño ordu-bete lenago plazara sartu eta izugarrizko inpresioa egin zigun neri eta nere lagunei. Izugarrizko ondar librea zegoan arro-arro. Oso kondizio txarrak, plazan korritzeko.

Nola zekien ni oso kondizio txarrean joan nintzan, aste osoa oian griperekin egon da batere indarrrik gabe, nere



aitak kondizio artan etzegoala jokatzetik esan zuan, eta izan ziran bulla batzuk.

Bereala danak suabetu nituan nik. Orrela esan nien edo erantzun nien:

–Neretzako plaza txarra badago, bestearantzako ona egongo al da, indar geixegoarekin etorri dala eta?

Alaxe gertatu zan. Apustua irabazi ta etxera: 27 minutu eta 59 segundo marka.

Azpeitiko plazan orrelakoak geiagotan ere gertatu dira. Zergatik? Plaza-nagusiak baño geiago edozeñek agintzen zualako.

Etzait aztuko beste batean egin zidatena. Artean garai artan oso umea nintzan, eta gauza besteen esku utzi. Orain esatera noan au oso mingarria izan zan. Tolosako plazan Txikito Arruizi irabazi ta ondorenean, illabeteren barruan pentsatu ta joan nintzan Aldatzen marka, amabi kilometroko marka, egin naian. Bezperan etorri nintzan Palentzitik eta sartu naiz zezen-plazara. Dana ondarrez beteta zegoan, pausoan ibiltzeko ere oso gaizki.

Esan diet ango enkargatuei plaza ez dagoala korritzeko moduan, eta orrela kontestatu zidaten:

–Ba, Iruntxiberri, nai badek, korritu; eta, nai ez badek, ez korritu. Baña emen ez dek plazarik ikutuko. Guk agintzen diagu emen.

Geiago ez nuan onik izan. Gaua lo asko egin gabe pasata, negar egiten nuala, joan da pasa nituan amabi kilometro.

Kontu triste auek utzi alde batera eta segi deiotan aurrerako martxa. Nola izan zan len kontatzen nuan bostgarren apustua bedaioarraren kontra, Azpeitin.

# Polipaso eta Ergobitik Sosperrira

---

**O**rain datorrena, seigarren apustua, 1962-an, lengoaren urte berean, Ernaniko Txantxillan, Maiatzean. Pena da, baña apustu askoren fetxarrik ez da agertzen, naiz-eta jakin zein urtetan eta zein illabetetan izan zan.

Apustu au Polipaso famatuaren kontra jokatu nuan. Ark egin bearreko lana izan zan amabi tronko berrogei eta bostekoak moztu bear, eta nik sei kilometro korritu, Ernaniko Txantxillan, eun metroko uztaia edo bueltako plaza montatuta.

Igande-arratsaldez jokatu genduan. Aixa irabazi nion, eta beste baten billa.

Orain jartzera noan au zazpigarren apustua izango da. Gaurko egunean asko ez bada aitutzen ere, garai artan edo lenagotik asko aitatu eta apustuak jokatzen ziran leku famatua zan: Ergobitik Sosperrira.

Basarria eta taberna ezagutu nuan an garai artan. Gaur jatetxe famatu bat dago. Ba, nik ortxe jokatu nuan apustua.

Bera aundietakoa izan nuan. Ekainaren 17-an, 1962-an, eguerdiko amabietan, irteera Ergobiko kalearen erdi-erdi-tik. Karretera jeneraletik, nai nuan lekutik joan libre neukan: Astigarragatik kamioz joan lenbizi edo Santiomendiz.

Nik zuzenean betik gora jo nuan Santiomendiko punta arrapatu arte. Gaña arrapatu nuanean, mendi zikin bat

goitik bera, beko zokoa arrapatu arte. Astigarragako Frantzilla jatetxea baño goragotik pasa nintzan, eta ura erdi bidetzat jotzen zan. Or zelai bezela sartu nintzan bastante bide, eta azkeneko kilometro ta geiago arkaitz tartetan betik gora, oso leku zikiña. Garai artan etzegoan kamiorik.

Bakarren batek galde lezake:

–Nun dago Sosperrri?

Errenteriko partean, baño Errenteritik oso aparte, gain batean, Goizueta aldera. Len esan detan bezela, artean etzan kamiorik. Gaur egun oso kamio ona eta jatetxe berri bat egiña dago.

Ba, au desapio bat izan zan. Len an jokutzen ibiltzen zan bat izan zan kontrarioa, dirua jarri zuana, ogei ta amaika minututan egin ezetz.

Eguna eta ordua jarri eta iru gizon izan ziran Federaziokoak. Ordu ta erdiz aurretik jarri zituzten erlojuak martxan Ergobin, eta bat gelditu zan neri amabietan justu-justu salida emateko. Beste biak kotxea artu eta erdi bideraño, Astigarragatik barrena kotxez. Erdi bide inguru kotxea utzi ta Sosperrira.

Ni allegatutakoan gelditu bear zuten kronometroa. Basarri-etxeari musu eman bearra nuan. Nere denbora: 29 minutu eta 29 segundo, Minutu bat eta 31 segundo sobratu.


Izugarrizko beroa eta naiko estu eta larri allegatu nintzan. Egun artako istoria ez dago aztutzerik. Zer jendetzak ziran ez dauka ura ikusi etzuanak sinisterik. Irteera ikusteko, Ergobin, bidea egin ezin. Gero, erdi bide ingurua kotxez izugarri joan zan. Andik gora, baztar guziak beteta. Bukaerarako, Sosperrri inguruan, etzan lekurik.

Orduko gauzak akordatzeak naiko sentimentu jartzen dit. Gaur jende guzia markak jartzera eta markak borrazera dedikatzen da, abilitade pixka bat daukatenak. Gaur nola ez dijoa iñor Iruntxiberriren marka ori borrazera, 1962-ko Ekainaren 17-an egindako marka? Irteera eta sarrera leku berean daude, nai duan lekutik joatea libre. Gaur orduan baño bide ohea, nai badu kamioz ere joateko moduan.

Ez al dira urte askotxo pasatzen ari? Ogei ta amazapi bat urte au zala. Badakit ondoren artan bakarren bat-edo ibili zirala probatzen. Gaur normala izango litzake garai artako marka borraztea. Neri gustatuko litzaidake bizi naizela ikustea.



Soldaduzkan, ille-apainketan, Carrascal-en.



Tolosako zezen-plazan, 1973ko abuztuaren 26an.  
Ezkerretik: Esteban Aguirrezabala, Agustin Argiñarena,  
Jose Aierbe eta Iruntxiberri.

# Doneztebe

---

**N**aiko soka edo istori luzea kontatu det eta aurrera segitu bearko. Nere bizitzako ibillerak nola izan ziran garai artan Ernanioko Altzueta basarrian? Askok obeto ezagutuko dute Altzueta sagardotegia esanda.

Ba, ortik jokatu nituan lau apustu, eta irabazi. Etxe ortako jendea edo familia ez da bein ere apustularia izan. Baña ni ortxe ibili nintzan txakur txiki bat bezelaxe. *Txor-txor* nere orduetan entrenatzen nintzan, eta aparte pixka bat zerbaitetan laguntzen nien, eta oso ondo arreglatzen giñan, jende ona zalako.

Sosperriko apustua jokatu ta gero, bukatu ziran kontrario koskorak, eta aurrera begira oso asunto serioa ikusten genduan.

Aiako errian erritarrekin gendukan sua ta gerra. Askotan izketaldi edo teman ibiltzen giñan. Ni oso txikia ikusten niñuten, eta alamoduz tratatu ere, eta ezin genduan geiago abuantatu. Gauzak oso serio artzea pentsatu genduan, eta erabaki gogorra izan zan: Altzuetatik Naparroako Doneztebera eraman niñuten serio preparatzera.

Errian neuzkan bi anai ziran korrika jo ta ke preparatzen ari ziranak, Benito eta Jose Mari Aldai, neri jokatzeko. Kondizio batzuk eskatuta zeuden, eta pentsatu genduan berak eskatuta zeukatena onartzea.

Urte bete eskatzen zuten, amar kilometroan, zezen-plaza batean eta milloi bana jokatzeko. Garai artarako diru asko zan.

Danak onartu eta bi anaitatik nai zutena bat ateratzeko aukera, eta illabetea eman genien beren esku pentsatzeko, eta an bukatu zan auzia. Etziguten kasorik egin.

Nik naiko pena izan nuan. Famili guzia geunden arrazoi txarrak entzuten aspertuta, emen aitazerik ez diran itzak. Orregatik izan zan oso erabaki fuertea.

Nola uste genduan seguru bat edo bestea aterako zala, ez azaltzearekin, momentu artan zer egin ez nekiala jota gelditu nintzan, ezertarako ilusiorik gabe.

Momentu artan Naparroako Donezteben nengoan. *Hotel Mailin* nuan nere ospedajea, jan eta lotarako lekua. Zakardi deitzen zioten lekua, arbola aundi batzuen azpian, nere korrikako lekua edo plaza, eun metrotan jarrita.

Zerbait egin bearra neukan; eta, alaxe, apustu kaskar bat, bi gazteren kontra jokatzeko, egin nuan. Zortzigarrena izan zan: 1962, Urrian. Naparroako Elizondon, feri-egun famatua izaten da urtero Urrian. Ba, egun ortan jokatu genduan: zortzi kilometroan. Futboleko zelaian montatu genduan korrikako eun metroko uzaia.

Kontrarioak Narbarteko Norberto eta Legasako Perurena, bi gazte. Bosteun metrotik kanbiatzen ziran. Izugarritzko bentaja da ori. Bost bueltatik kanbiatuz, izugarritzko topea ematen dute. Nik segi egin bear, eta besteak deskantsatu.

Oso apustu polita izan zan. Erdi denboran berak ni menderatuta, buelta erdi bat artuta. Baña andik aurrera izan ziran komeriak. Azkenerako menderatu nituan. Naiko larri, baña irabazi egin nien. Eta jende asko, publiko geiena, aien alde ziran: biak baztandarrak, gipuzkoar baten kontra.

Len esaten nizuen bezela, Donezteben nengoan, eta 1962-ko urtea oso gogorra pasatzen ari nintzan. Lau apus-

tu jokatu ta irabazi nituan; baña ez neukan bear zan bezelako kontrolik. Orrek esan nai du ez nengoala bear bezela. Entrenadore bat bear nuan.

Donezteben bi gizon neuzkan, asko nai zidatenak; eta beren ustetan asko laguntzen zidaten: Don Jaime, medikua, eta Don Pako Eraso. Lau illabete oien eskuan pasa nituan. Egurra geiegi. Egunero entrenamentua. Astean bi prueba: amar milla metro eta bost milla.


Bereala konturatu nintzan martxa artan etzegoala abuantatzerik. Artean neuk ere esperientzia falta. Nola neuk ere interesa neukan esandakoa egiteko, sufritu egiten nuan.

Eta zer pasatu zan? Gaixotu. Lendik ere bronkioetakoa neukan, eta oso erreta. Jota zearo, alegia, gertatzen nintzan. Amar kilometro egiten asko galtzen nuan. Baja aundia. Ikusi zuan Don Jaimek erreta nengoala, eta:

–Zer egin bear degu orain, ba? –esan zidan.

Ea klima kanbiatzeko modurik neukan: leku legorra, Kastilla aldea-edo.





Tolosako zezen-plazan, 1967ko San Jose egunean,  
Iruntxiberri eta Jose Mari Aguirrezabala.

# Venta de Baños

---

**K**asualidadez. Venta de Baños-en arreba neukan. Bolara baterako joanda zeuden, nere koñaduak an lana zeukalako. An bizi ziran, eta alaxe joan nintzan nere arrebaren etxera.

Ez naiz aztuko lendabiziko aldiz zein egunetan joan giñan anai Antonio ta biok: Santu Guzien eguna zan. Donostin euria bota ta bota ari zala, trena artu genduan estazioan goizeko bederatzietan, eta arratsaldeko iruretan Venta de Baños-en trenetik atera.

Dana zuri-zuri zegoan. Izotza edo jela egiten zuan, izugarrizko aldaketa edo kanbioa, naiz ez egon ain aparte Donostitik Palentzia.

Lau bat illabete oso latzak izan ziran neretzako. Klima oso gogorra. An egiten zuan otza. Egunez ere jela egiten zuan. Bein Martxo edo Apirilla aldera sartu giñanean, andik aurrera eguzkia indarra artzen asi zan, eta udara oso ondo. Egunez bero eta gauez freskura ederra.

Ni nola joan nintzan neguaren aseran, eta bronkioetatik naiko gaizki, antibiotikoak eta indizio asko jarri bear izandu nuan, eta aparteko porkeri asko.

Gerora asi nintzan konturatzen oso ondo zetorrela klima legorra neretzako. Eta izugarrizko bentaja egin zidan.

Oiek orrela dirala, osasun-kontuak alde batera utzita, ea pixka bat aztertzen detan kirol-mundua. Len esaten nuan negua oso gogorra pasa nuala; naiz osasun aldetik prolema batzuk izan, deporte atzendu gabe.

Alaxe egin genduan apustu kaskar bat. Kontrarioa: Juan Ugarte, *Txantxon*, Aginagako Txantxon baserrikoa. Zortzi kilometroan jokatu genduan, Tolosako zezen-plazan, 1963-ko Martxoaren 8-an, nik eun metro bentaja emanda. Plazako buelta bat geiago nik egin bear. Aixa irabazi nion.

Joko ori bederatzigarrena izango zan, eta pixkanaka aurrera nere entrenamentu-lanetan, zein ikusiko urrengo kontrarioa.

Urte ortan, 1963-ko udaran, denbora oso ondo aprobe txatu nuan. Aurreko urtean galdutako puntuak edo nere atzerapena ederki recuperatu nuan, eta salto aundia izan zan aurrera. Izandu nuan zerbaiten bearra.

Garai artan bi korrikalari zeuden kategori aundikoak: Arruizko Txikia eta Aldatz. Nik, aiek arrapatzeko lepoa nun jarri ez nekian. Oiek biak alkarrekin oso ondo arreglatzen ziran, eta neretzako usai txarra zeukaten. Alde egiten zidaten.

Migel Aldatz oso korrikalari ona, partikularra, izan zan. Neu ari begira zoratzen egon izandu nintzan. Oso zuzena, ariña, elegantea. Nik esan bear banu, Aldatz izan zan korrikalari fenomenoa.

Garai artan baldin bazenduan inguruan gizonen bat zerbait ematen zizuna, aiek esandakoa egin bear. Ez zuk nai zenduana. Ori pena izugarria da deportista batentzako. Zu oraintxe zaude momentu onenean, eta zere markarik ez daukazu erakusterik. Ez baidu pertsonak beti sasoi iguala izaten. Eta ondo preparatuta ere ez da beti egoten. Or gora-bera asko izaten da.

Nik neuk dauzkat pasatuta ainbeste kaso, eta orregatik pentsatzen det besteengatik.

Iru korrikalari ziran momentu berean: Patxi Irizar, Juan Kruz Arruizko Txikia eta Aldatz, zein baño zein

obeak, ezagutu nituan, alkarrekin jokoak jokatzen. Ni atzeraxeagotik oiei nola atakatu pentsatzen.

Ni soldaduskara joan aurretik, lenbizi ikusi nituan, 1958-ko ilbeltzaren 12-an, Tolosako zezen-plazan, Txikito eta Patxi Irizar, amabi kilometro korritzen. Eguraldia kas-kabarra egiten zuan. Plazako sarrerak, aurrez danak sal-duta. Eguraldi txarra izanda ere, etzegoan gaur bezelako prolemarik, jendea etorriko ote zan edo ez eguraldiari begira. An kosetxa seguru zegoan. Amabi kilometro manorik mano, berdiñean alegia, jokatu zuten. Txikitok irabazi zuan. Marka: 40 minutu eta 15 segundo.

Andik ez dakit zenbat denborara, berriro jokatu zuten biak, leku berean, amabi kilometroan, Apirillaren 20-an. Txikitok buelta bat bentaja eman zion Irizarri. Apustu ori Irizarrek irabazi zuan. Txikito erdi denboretan erretiratu egin zan plazatik. Amaika kilometro eta bederatzireun metroren marka: 41 minutu eta 4 segundo.

Urrengo apustua, Migel Aldatz eta Patxi Irizar. Bi apustu egin zituzten. Bat, Azpeitiko zezen-plazan, amabi kilometrotan, manorik mano. Biak izugarrizko apustua jokatu zuten, eta Aldatzek irabazi, bere denboran egin duan lanik aundiena, eta marka uste det ogei ta emeretzi minutu ta amabi segundo.

Ondoren artan, bereala, nola zeuzkaten bi apustu lotu-ta, Lasarteko hipodromoan jokatu zuten, eta au ere Aldatzek irabazi. Apustu auek jokatu zituzten 1959-ko neguan.

Neuk ere fetxa oietan jokatu nuan Azpeitin korrika-apustua, Ramon Azpeitiaren kontra, Martxoaren 4-an, eta irabazi. Eta 8-an koartelera, Loiolara, soldaduskara, urte pare bat.

Txikito eta Aldatz Tolosako zezen-plazan berriro amar kilometrotara neurtu ziran, 1961-ko apirillaren 4-an, Txikitok Aldatzi buelta erdia bentaja, berrogei ta amar metro alegia. Marka: 31 minutu, 39 segundo eta 3/10. Juan Kruzek bere denboran egin zuan markarik aundiena, eta Aldatzek ere oso ona, naiz apustua galdu: 9.950 metro: 31 minutu, 40 segundo eta 8/10. Oso pelea ederra izan zan. Asi ta bukatu, biak ondo lagundu zuten marka egiteko.

Garai artan, Joan Krutz, Txikito zana, ogei ta amaika urte egiten edo kunplitzen zituan, eta bere denboran izan zuan sasoirik onenean gertatu zan. Bi edo iru illabete Alemanin egondu zan bere prestaketak egiten edo preparamatzen, eta oso ondo etorri eta eman zuan emaitza ona.

Etzan or bukatu Txikitoen eta Aldatzen borroka. Berriro lotu ziran leku eta urte berean: 1961-ko iraillaren 24-an, Tolosako zezen-plazan. Txikitok Aldatzi amar kilometrotan buelta bat bentaja: 10.000 eta 9.900 metro. Txikito bederatzigarren kilometroan erretiratu zan. Aldatz irabazle, beraz.

Emendik denbora gutxira, 1961-ko Urriaren 29-an, Txikitok eta Aldatzek, Donostiko zezen-plazan, Gordon Pyrie-ren kontra, amar kilometrotara: Txikitok bost kilometro eta Aldatzek beste bost kilometro. Pyrie orren marka: 31' 23"; parejaren marka: 31' 08". Bikoteak irabazi, beraz.

Berriro, 1961-ko abenduaren 31-n, jokatu zuten Gordon Pyrie eta Txikitok, Tolosako zezen-plazan. Pyriek 10.000 metro, marka: 31' 59"; eta Txikitok 9.875 metro, marka: 31' 49". Berriro Txikito izan zan irabazle.

Txikito or gelditu zan kontrariorik gabe. Nik ere ez neukan artean presarik. Orrengana joan baño len pasa bearrak neuzkan kontrario kaskarragoak, eta urte bete ta lau illabetera izan zan nerekin jokatzeara.

Tarte ortan nik badauzkat komeri batzuk, eta apustu bat edo beste, Txikitorengana joaterako.

Beste oker bat eginda nago. Orri bat edo bi lenago aita-tzen nuan nik ezagutu ditudala korrikalari onak. Bi one-nak aitatu eta pasa zait aitatu gabe Frantzizko Aldaregia. Txikito Arruitz, Patxi Irizar eta Maiz bestea, Aldaregiak arrapatu zituan apustu onak. Korrikalari bezela oso indar-tsua eta gogorra, eta apustua egiten geiago zekiana. Onenei jokatzeko igoal etzan allegatuko, eta bentaja kendu eta apustua irabazi: Billabona-Aia Aldatzen kontra, bi minutu bentaja artuta.

Berriro Tolosako plazan, amar kilometrotan, minutu bat artuta. Zer joko ikusi genduan! Iru buelta ta erdi egin zituan Aldaregiak Aldatz asterako, eta indar askoko mutilla zan. Korrika pasatzeko denboran min aundia egiten zuan. Barrungo aldetik jo egiten zuan. Oso apustu onak arrapatu zituan. Nik aurreraxeago agertuko det Aldaregiarekin jokaturako apustua.

Orri batzuk aurreraxeagotik aitatzen nuan Palentziko lurretan nola nengoan, klima aldatzeagatik Kastilla aldera joanda, ango otz-beroekin entrenatzen.

Udara aurrera zijoan eta zerbait egiteko gogoarekin nengoan. Eta or abisua eman didate Juan Ugarte, Aginagako Txantxon baserrikoa, prest zegoala Ondarretatik Mendizorrotzera, minutu baten bentajarekin, edozein korrikalariri jokatzeko.

Etorri nintzan onuntza. Juntatu giñan Usurbillen apustua egiteko, eta naiko diskusio izan genduan. Baña lotu giñan Donostiko Ondarretatik, Igeldoko plaza pasa eta Polipasok gaur Mendizorrotz jatetxea daukan tokiraiño.

Alaxe, 1963-ko azaroaren 17-an, egoaizeak fuerte jotzen zuan, eta eguraldi beltza zegoan. Ura jendetza! Ura

ikusituz gaur ez dauka sinisterrik. Milla eta millaka. Donostiko Ondarretatik minutu bat aurretik atera zan nere kontrarioa, txistu batean esanez:

–Gaur ez nauk arrapatuko! Bidea libre izango dek!

Atzetik joan bearko nuala, alegia. Ez nintzan lasai egon ura ala ikusita. Etzan minutu motza izan. Bein salida eman zidatenean, ez nuan alboetan zan jendeari begira egoteko denborarik, an aurrean bistatu nuan arte. Erdi bide inguruan anaiak jotzen dit orrua kotxetik:

–Begira zak aurrera!

Altxatu nuan burua aurrera begiratzeko, eta an ikusi nuan. Bein ikusi nuanean, laster sartu nintzan beraren ondora. Ura zan drogarik onena!

–Kaixo, motell! –esan nion–. Emen nauk!

Igeldoko plazara arte berarekin batera joan nintzan, arnasa artuz. Igeldoko plazan jendea txingurria bezela zegoan. Motoristak bidea ezin libratu. Etxeak tellatue-taraño ere beteta. Ango orrua!

“Ba –pentsatu nuan–, plazan pasa bear diat”. Pasa ta arrankadatxo bat jo nuan. Aurrerraxeago jarri nintzan, ondo bijilatzen nuala. Ango “*Benga! Benga!*” kontrarioaren alde kotxeetan atzetik zijoazenak. Bosteun bat metro falta zirala, jo ta alde aurrera. Marka: 24’ 17”. Txantxonek: 25’ 37”.

Neuk ez dakit zer abilidade neukan. Beste minutu bat bajatu eziñik ez nuan egun artan. Gaur gain bera baño orduan betik gora azkarrago igotzen nintzan.

Bide ortan, Ondarreta-Mendizorrotz, orduko nere marka dago oraindik. Eta egin nezakeana egin gabe, ori da pena barruan daukatana, ni orduan nengoan bezela egonda.

Urrengo jokorako neukan kontrarioa Arruitzko Txikia izan zan. Txantxonek bera izan zuan laguntzaille. Aurretik ere pruebetan biak ziran ibiliak, eta ez dago esan bearrik Txikitok ere bide ori ondo probatu zuala.

Zerbait entzun nuan nerekin bildurtzen asita zegoala. Au esan bearra daukat: garai artan etzegoan neri puerto edo kamio-aldapetan irabaztekorik. Txikito ere etzan aldapa gorakoa. Zelaian obeto ibiltzen zan. Ni, berriz, beste aldera: proportzioan, markarik aundienak aldapan gora.

Txantxonon apustua jokatzeko, Palentziko lurretan eta mendi-kamioan gora ta bera entrenatzen nintzan, askotan nere koñadoa izango zanarekin. Artean ezkondu gabe bainengoan, naiz andregaiia neukan: Mariano Haro-ren arreba. Ba, asko ta asko alkarrekin ibiltzen giñan.

Zortzi egun falta zirala, egin nuan prueba serio, Palentziko mendi-putoan, lau edo bost kilometroz. Ba, aurrena, aldaparen barrenean, puertoan asi baño lenago, zelaian Haro-k erlojua jarri zuan martxan, eta bakarrik utzi niñun korrika. Bera kotxez aurrera. Beste lagun bat edo bi baziran, eta esan zidan:

–Ik segi goiko punta arrapatu arte jo ta jo. Ni aterako nauk puertoaren erdi aldean, iri animatzeko.

Esanda bezela, an atera zait albotik, eta biok jo ta jo. Goiko punta arrapatzeko lareun edo bosteun metro falta zirala, atzera gelditu bearra izan zuan, segitu ezinda. Ni arritu nintzan; baña bai bera ere. Ala esan zidan:

–*¡Cómo estás, León! ¡Estás increíble subiendo cuesta!*

Askok ez dute sinistu ere egingo; baña ori orrelaxe gertatu zan.



Nik orduan ura ikusita, txoratzen etorri nintzan Donostira, ostegun-illuntzerako, trenez. Donostin apaldu ta gaua pasa.

Ostiral-eguerdian, txandarra jantzi ta Donostiko Ondarretatik Mendizorrotza igo eta jetxi. Sentitu ere egin gabe buelta egin nuan. Nere burua ikusten nuan gustora. Ez nuan pentsatzen apustua galtzerik.

Aiara joan nintzan bazkalondoan, aita eta ama bisitatzuz, eta anai edo arrebaren bat. Ni baño nerbioa egoten zan aita apustu aurretik.

Apustua jokatzeko bezperan, etxean bazkaldu ta larunbat-bazkaldondoan jetxi giñan nere anai Antonio ta biok Donostira. Sartu gera Parte Zarrera eta alako diru jokatzetik egun guztian!... Korredore-mordoa, *Bar Jose Mari*-tik asi eta *Bar Urola* tarte dana beteta.

*Restaurante Aldanondo*-ko nagusia apustulari famatua zan garai artan. Asko ezagutu eta tratatu ere egiten genduan. Oso gizon bizkorra eta ona, eta asko zekiana. Makiña bat apustu-asuntu eramaten zuan bere jatetxean eta azpiko bodegoian. Arek arrapatu giñun bi anaiok eta esan zigun:

-Zer egiten dezute? Izugarrizko diru jokatzea ari dek. Bi aldetatik aukera zegok. Nik ez diat pentsatzen ik apustua galdu bear ukenik. Baña nik gizon batzuk arrapatu dizkiat izketan ari dirala gaur. Ala esaten ari ituan: «Biar Iruntxiberrik apustua, nai badu eta nai ez badu, galdu bearra izango dik».

Apustua egin baño bastante lenagotik, gaua edo goizalde batean, izugarrizko otza egiten zuala, prueba egin arazi zidaten; eta nere prueba segi zutenak artu zuten Txantxon, eta berari prueba egin ere bai, eta oso ondo euki omen zuten entrenatzen, eta berriro prueba nunbait oso

ondo, nik eginda neukan baño denbora ohea. Zerbait obeto ikusi dute eta esan omen zuten beren artean:

–Etorri dedilla edozein korrikalari, minutu bat bentaja guri emanda!

Ni ez niñuten aurreko puntakoa bezela eta gutxiagorik ere jotzen. Segundakoa ere naiko larri. Eta, ni arrapatu niñutenean jokia egiteko, nerekin galtzerik pentsatzen etzuten.

Gañera, oso marka ona egiten zuan Txantxonek. Ez pentsa edozein zala garai artan Juan Ugarte, Txantxon basarrikoa, ni Iruntxiberrikoa bezela. Oso mutil gogorra, sufritzen zekiana eta oso fiña.

Bakarrik, ni ezagutzen niñutelakoan zeuden; baña ez niñuten ezagutzen, eta or izaten dira ankasartzeak eta utsegiñak. Gaur ez dago olako apusturik, ola dirua jokatzen danik. Orduko oroipena gogoan izango det, arnasa detan arte.

Orduan neri gaizto-fama jarri zidaten. Lenagoxeagotik ere pixka bat bai, baña orduan geiago. Nik gaiztakeria zer zan ez nekian. Neri beti garbi itzegitea gustatzen zait.

Nik ere izan ditut deskuido ederrak: neu baño askoz gutxiago izan diranekin jokoak galdu bat baño geiago. Deskuidatzen ez danik ez da apustuan, eta ez dedilla iñor bein ere arrokerian ibili.

Naiko soka luzea kontatu dizuet. Baña ez da orrekin bukatzen. Orrelako asko dauzkat oraindik. Ori asera baterako izan da.



1963ko azaroaren 17an, Juan Ugarte Txantxonon aurka Ondarretatik Mendizorrotzera, irteera eta iritxiera.

# Donezteben, biren kontra

---

**A**la, aurrera segitu bearra neukan. Igeldoko apustu ori Apasa ta berealaxe, Azaroan izan zan apustua Txantxonena, eta Abenduaren 13-an Santa Luzia eguna izaten da.

Lenago edo urte aietan izugarrizko feri-eguna, ta eguerdi ta arratsalde deporte-egun izugarria izaten zan Donezteben.

Ni urte askotan allegatu nintzan korritzen biren kontra. Urte ortan, nola oso ondo nengoan, eguerdian, Latasa aizkolari aundia zan garai artan, eta ura biren kontra; eta arratsaldean ni biren kontra, ta bi oiek ez edozein: bat, *a tope* preparatuta zegoan: Txantxon agiñarra; eta bestea Frantzisko Aldaregia.

Zer gertatuko ta Ernanin nengoan nere arrebaren etxean aurreko egunetan, eta or arrapatu nau izugarrizko gripeak. Nik neukan ilusioa, eta bezperan izugarrizko sukar edo kalentura. Oitik ateratzeko gauza ez, eta nere buruari esaten nion:

–Zer egin bear det biar? Nola joango naiz, nagoan bezela?

Arrebak aspirina, pastilla edo zerbait ematen zidan eta *quieto*, egun guzian oian, izerditan bustita. Ala eguna pasa eta gaua ere bai.

Etorri da Santa Luzia goiza. Gaur bezela kotxe bat euki banu ere, zerbait izango zan, Ernanitik Doneztebera joateko. Lagun bat izan banu ere kotxean eramateko... Ezta ura

ere. Goizean goiz jeiki ta balantzaka autobusa artu ta Donostira. Donostitik Elizondora joaten zan autobusa. Goizeko zortzi ta erdietan artu bearra neukan Donostin.

Alaxe, joan nintzan Doneztebera. *Hotel Mailin* ortan abitazioa artua, ta arratsaldera arte uste det oian egondu nintzala. Bazkaltzeko ere gauza ez. Zerbait bero pixka bat artu estomagua berotzeko, eta arratsaldean plazara, zortzi kilometro korritzera bi korrikalariren kontra.

Lenbizi Txantxonek lau kilometro korritu zituan oso ondo, ni ura ezin sujetatuz.

Beste lau kilometro egitera saltatu zan Naparroako Frantzisko Aldaregia. Oso korrikalari indartsua zan. Oso estu ibili giñan; baña galdu egin nuan justu-justutik.

Izugarrizko jendetza izan zan. Doneztebeko lengo Plaza Zarrean jokatu genduan, jendez beteta. Korredoreak edo diru-jokatzaillak: "*¡Cien a cuarenta! ¡Cien a treinta!*" edo "*¡A treinta y cinco!*" zalapartan nere alde; Iruntxi-berriren alde diru eske.

Askori, eta nere lagunei edo ezagunei, esan nien zer kondiziotan nengoan; ala etzegoala korrika normal egite-rik. Ez nien alperrik esan! Etzidaten sinisten. Danak baze- kiten, ni ondo joan banintza, aiek etzeukatela zer egiñik. Naiz kondizio txarretan joan, oso estu artu nituan.

Baña gizona ondo ez dan garaian, zer nai dezu: mila- groak egitea? Ondo egonda ere ez al dira naiko lanak izate- ten plazan? Orrelako txasko asko pasa dira plazetan eta frontoietan edo kirol-zelaietan, joko-dirua jokatzen dan lekuetan, eta berriz ere olakoak pasako dira.

# Arruitzko Txikia

---

**B**ueno, aurrera segitu bear. Pasa zan gripea, eta bai urtea ere. 1963-ko bukaera zan eta Eguberriak gañean, eta deskantsu pixka bat artu jaiak pasa arte; eta berriro ekin nion, 1964 urtearen aurrenetik, nere entrenamentuan, Palentziko lurretan.

Banekian zein neukan urrengo kontrarioa: Juan Krutz, Arruitzko Txikia, kontrariorik gabe geldituta baizegoan. Aldatz eta biak, amalau kilometroan jokia eginda egon ziran, Tolosako zezen-plazan jokatu asmoz. Baña Aldatzek jokatu gabe entregatu zion jokia, eta or gelditu zan *plantan*.

Ni ordurako aspalditik esperoan nengoan, ezin arraturik. Nerekin bildurtzen asita baizegoan. Nik desafiitzen nien nai zutenei, jokatzeko nengoala. Tolosan bein baño geiagotan juntatu ere bai. Bakoitza bere aldera tiratzen saiatzen giñan.

Ordurako ni ere konturatuta nengoan zer bide edo zer rekorrido komeni zitzaidan, eta bera ere zerbait konturatuta egongo zan.

Zazpi kilometrotan jokatu nai berak; eta nik amabi kilometrotara eskatzen nion. Berak zazpitik zortzira igo eta nik amarrera jetxi, eta ala ere ez. Azkenik, bederatzi eman zuan azkeneko itza. Bestela, etzijoala jokatzera. Oso gogor jarri zanean, gu ere jetxi egin giñan. Bederatzi kilometrotara jokatzeko egin genduan, eta jokatu ere bai.

Izugarrizko beroa arrapatu genduan Tolosako zezen-plazan, 1964-ko Apirillaren 28-an. Palentziko zezen-plazan azken aldera izugarrizko berotan entrenatzen nintzan eguerdiero, eta oso ondo izan zan berotan edo beroarekin sufrituta etortzea.

Etzait aztutzen azkeneko entrenamentua. Ostegun-eguerdian alako beroarekin zer paliza sartu zidan entrenadoreak, Cisneros-ek alegia, bazkaltzeko gogoak kenduta alegia. Alaz ta guztiz ere, animazio polita eman zidan entrenamentua bukatuta:

*–León, el domingo a Chiquito cuatro vueltas le vas a quitar* –esan zidan.

Oso ondo entzun nion, eta poz arekin etorri nintzan, eta alaxe gertatu ere egin zan.

Ostegun-gauerako Donostin nengoan. Ostirala eta larunbata, Donosti edo Ulia mendin paseoan ibiliz pasa nituan bi egunak. Grosen eduki nuan ostatu-lekua igande goiza arte.

Larunbat-gauean etorri ziran Cisneros entrenadorea, nere koñadoa ta lagun batzuk, apustua animatzera. Obeto esango det: nere koñado-gaia, artean ezkondu gabe nengoan eta. Ondorenean bereala ezkondu nintzan.

Oiek orrela dirala, ez nintzan asarre. Nik barruan eukitzen nuan aria edo griña, Euskal Errian izan diran onenei irabaztea zan.

Bost kilometro arte edo sei arte izan zan pelea: berdin da berdin, segundo bi edo iruren barruan. Sei kilometrotik aurrera ez nuan apurorik izan. Lau buelta falta zirala erretiratu zan, nik bederatzi kilometro bukatzen nituala. Etzan marka aundi oietakoa izan,; 29 minutu ta 50 segundo, alako bero zakarra gertatu zan eta.

Txikito zana apustu artatik erretiratu zan korrika-jokoa egitetik. Ogei ta amalau urte zeuzkan orduan. Nik, ogei ta sei.

Amaika edo amabigarren apustua nuan nik. Bakarra galdua neukan.

Donostin bazan garai artan periodikoan eskribitzen zuana, zer eskribitzen zuan etzekiala. Bein edo geiagotan jarria zuan, alegia: «Iruntxiberri txikiak ez daki zapatillak jazten ere Txikitoren ondora joateko. Ez dakit nola atrebizten dan orren ondora arrimatzen».

Nik aitortu bearra daukat: Juan Krutz zana iru milla edo bost milla metroz ni baño ohea zala. Indar asko zuan. Elegantea zan. Pauso luzea zuan. Len aitatzen ditudan rekorrido oietan badakit zein zan.

Nik beste galdera bat egingo nuke: ni baño ohea ote zan nik nai nituan kilometroak egiteko edo nik aukeratu-tako rekorridoetan jokatzeko? Galdera au or geldituko da. Nai dezuten bezela artu.

Nik ondo dakit jende askok nola itzegiten duan eta nola itzegin duan aurrez aurre ere batek baño geiagok:

–Motell, i ez aiz izan Txikitorengana urreratzeko ere.

Ni ez noa nere burua besteren gañetik jartzera. Juan Krutz zana deportista aundia izan zana nik badakit, iñork esan gabe. Nik badakit aren ondoan erdi gizon izan naizela.

Txikitok jokatutako joko asko ikusi ditut. Noiz egin zuan markarik aundiena ere ikusi nuan: 1961-ko apirilaren 2-an, ogei ta amaika urte zituala: 31 minutu eta 39 segundo. Sasoi ederrean zegoan.

Nik, amaika otz-bero pasata, ogei ta amazapi urterekin, ogei ta emezortzi urte egiteko bi illabete falta nituala,



Txikito zanaren markarik onena iru segundoren faltan utzi nuan ondu gabe, plaza berean, Tolosako zezen-plazan alegia, neu baño askoz ohea zan korrikalariari jokatu eta lau buelta kenduta. Egun artan bi aldeetatik joanak giñan marka izugarrizkoa egin asmotan. Baña apustu askotan pasatzen dana: ez badira alkarri laguntzera joaten, geienetan uts egiten da marka onarekin. Bi gizon plazara ateratzen diranean alkar botatzera, erdi lanetan probatzen dira; eta, etsipena artzen danean, ez du iñork bear dan markarik egiten. Orduan bestea bakarrik gelditzen da, ez du markaz pentsatzen, baizik apustuarekin bakarrik. Ba, orrelaxe gelditu nintzan, nezakeana eman gabe.

Aurrerago kontatuko det zeñekin nintzan eta zer apustu zan.

# Aldatzen marka austera

---

**T**olosako apustua jokatu ondoren Txikitorekin, Apirillaren 28-an; eta fetxa ortatik bereala beste intento bat egitea pentsatu nuan Azpeitiko zezen-plazan, Maiatzaren 24-an.

Ezkontzeko ere fetxa edo eguna gañean gendukan: Ekainaren 6-a.

Buruaste danak korapillaturik sortu ziran. Lendabizi, Azpeitiko zezen-plazan Aldatzek amabi kilometrotan eginda zeukan marka auste.

Asteko, fetxa jarri ta gero, katarro pixka bat arrapatu nuan, eta egunik ezin aldatu.

Etorri naiz bezperan, sartu naiz plazara eta or ikusten det itxasoko plaian baño okerrago edo goldatutako sorolurra baño arroago.

Esan diet:

–Kondizio oietan ez dago korritzerik.

Erantzuna plaza-zaleak: etzidatela iñola ere plaza ikuitzen utziko.

Geiago ez nuan onik izan. Zer egin bear nuan? Etxera alde. Ez nuan lorik egin, kondizio aiek ala ikusita.

Igande-goizean etorri dira aita eta senideak. Etzidaten utzi nai plazara sartzen.

Nik plazara joan da amabi kilometro egin nituan, eun da ogei buelta alegia. Azkenerako, bidexiorra edo bidea ebaki nuan.

Bezpera-gauean euria ere egin zuan. Igual zan elurra eginda ere.

Nere marka: 39 minutu eta 58 segundo. Galdu nuan 50 segundoz.



Iruntxiberri 1964ko apirilaren 28an Tolosako zezen-plazan, Arruitzko Txikiari irabazi zion apustuan.

# Ezkontza

---

**O**rain korrika-kontuak alde batera utzi eta goazen aurrera. Jende askok edo iñork etzekian nik andre-gaia neukanik ere, eta or zabaldu da edo enteratu zan jendea Iruntxiberri ezkondu egiten zala, edo-ta ezkondu egin dala.

Jendeak zer-nola itzegiten zuan! Ez diran gauzeekin, ezer jakin gabe, fama txarra eman zidaten. Baña nik esaten nion nere buruari:

–Au jendea! Inutillak al gera, ez diran gauzeekin orrela jarduteko?

Ala dan edo ez or ikusiko dezute: 1964-ko Ekainaren 6-an ezkondu giñan, Becerril de Campos errian. Palentzian bazkaria, *Hotel Gran Vía*-n. Egun ortan goizean-goiz, sei-arak aldean aterata, joan giñan autobus batean senide guztiak emendik ara.

Orain jartzera nuanarekin ea konturatzen zeraten lengo kontu ariñak nola datozen. Esan bezela, 1964-ko ekainaren 6-an ezkondu giñan; eta onoko fetxa ontan jaiotzen gure lenengo alaba: 1965-eko Martxoaren 28-an. Uste det ez dagoala beste esplikazio bearrik.

Askoren sorpresa zergatik? Iruntxiberri ezkondu? Badu onek bere istori mikatza. Ez dit oraindik ere gauza au bururatzeak onik egiten. Naiz mingarria izan, danak pasa ziran.

Aginagako estazio atzean gizon-figura bat zegoan. Bere lur eta baso tartean zeukan txaleta bat, eta terreno-

puska bat eta jardiñak ere bai. Nik ez dakit nola enteratu edo nola arrapatu zuten nere anai bat.

Gizon-itxurako orrek len famili bat zeukan, eta len zeukanari erretiroa ematen zion, eta beste senar-emazte gazteak nai zituan.

Eta nere anai orrek etorri arazi zidan, eta erakutsi edo presentatu beste tipo orrengana. Gauzak jarri ere bai mar-txan, ustez danak itzeginda: bizilekua edo etxea eta zer lan egin bear zan. Lenbailen nai zuan. Pareja ezkondata nai zuan an asterako. Presaka bezela ibili giñan gauzak egiten.

Esan bezela, anai batekin presentatu nintzan aurrena, eta tratatu. Galderak egin zizkidan ea zer andregai neukan, nungoa eta abar. Nik zer esan bear nion? Dana dan bezela. Jarri giñan akuerdoan noiz ezkondu ta danak.

Pregoa egin da urrengo egunean joan naiz. Txaleta ortan kanpo, jardin, basoa, izugarrizko arbolak eta abar, danetik zegoan. Tinbrea etxetik aparte zeukan. Jo tinbrea eta ez iñork kontestatzen edo azaltzen.

–Zer pasatzen da emen? –esaten nion nere buruari.

Noizbait ere or etortzen zait neskamea, esanez etzeto-rrela bera, nagusi jauna: moztu egiten zidala egindako plana, andre kastillana nekarkialako. Akordatzeak baka-rrik min ematen dit.

Nun zan len ez esateko? Nik momentu artan arrapatu banu, etzuan beste ezertxoren bearrik izango. Ez dakit ortik aurrera nola pasatu nuan. Ez dago esplikaziorik. Etziran iñori esateko modukoak, ez lenago eta ez orain.

Danak pasatu nituan nola edo ala, eta aurrera atera ere bai. An sartu banintza, nere apustuak an bukatuko ziran. Ala pentsatuta neukan. Baña etziran gauzak orrela gerta-

tu, naiz pixka baterako nere korrikarako gogoak joan ziran.

Istori zikin oiek utzi alde batera eta aurrera segi. Segituan etxe bat arkitu nuan Ernanin errentan. Lana ere bai. Momentuan bearrena ura zan: etxe-bizitza eta lanean astea.

Orrelaxe pasa nuan ezkondu nintzan urtea. Udararen esibizio batzuk korritu nituan errietan festetan. Biren kontra izaten zan. Banaka ez neukan kontrariorik.



Juan Jose Irazusta eta Iruntxiberri.

# Joko zikiña

---

**O**rrela nenbillela, berriro apustu txar bat egin nuan. Frantzisko Aldaregia etorri zan nere billa: apustua egingo lukela, bentajaz arreglatu ezkeru.

Lenago ere orrela engañatuak zituan, eta neri gauza bera egin zidan. Negar egiten oso ondo zekian apustua lotzeko garaian. Etzan arro jarriko. Umil-umil, bere arpegi tristea erakutsiz, ortxe engañatzen zizun.

Ni momentu ortan ez nengoan apustua jokatzeko preparatua. Baña nola etorri zan, tentazio txarra eman zidan. Nik ere barruan euki griña txarra eta or ibili bearra. Ez baida deskuidatzen ez danik.

Amar kilometrotara, bi buelta eman nizkion, Tolosako zezen-plazan.

Puska bat preparatu nintzan, eta bastante gustora apustua jokatzeko, eguna etorri danean.

Baña arek amabost eguneko atzerapena eskatu zuan. Etzegoala kondiziotan. Pasa dira egun oiek, eta zer gertatuko? Neuk katarro gogorra arrapatu, eta neuk beste amabost eguneko atzerapena artu bear izandu nuan. Bakoitzak amabost egun genduzkan geienez atzerapena.

Atzerapen oiekin dana ondatu zan. Pasa amabost egunak eta, gaizki edo ondo, jokatzera joan giñan: 1965-eko Otsaillaren 21, Tolosako zezen-plazan, Aldaregiak 9.800 metro; Iruntxiberrik 10.000 metro.

Sei kilometrotarako, buelta ta erdi, 150 metro alegia, kendu edo jan nizkion; eta, apustua menderatuta neuka-



lakoan, lasai samar artu nuan. Artean pasa ta buelta erdia kendu bear.

Kilometro paren bat faltan, asi naiz jo ta pasatzen. Or bultza ta alboko oltzadura gañera bota niñun. Berak oso gogor atakatu zuan orduan. Altxa ta berriz ere sartu nintzan gañera. Baita pasa ere egin nuan. Baña etzegoan atzera gelditzeko, eta berak pasa zidan. Nik ez neukan lanak orrela uzterik. Bera ain lotsagabe jarri zan. Jo ta pasa det berriro, eta alde egin nion.

Baña berrogei ta amar metro kentzeko zerbait falta nuala bultza ta bota niñunean, ez dakit Federaziokoak nun egongo ziran. Arek egin zuana ez dago egiterik. *Totalmente prohibido.*

Neuk ots egin nien Federaziokoei, eta orduan kargu artu zioten nere aurrean. Baña naiko berandu. Oso metro gutxitan galdu nuan: Aldaregiak: 33 minutu eta 4 segundo; Iruntxiberrik: 33 segundo eta 12 segundo.

Zer penagarria dan deporte guzietan dagoan ikusi eziña! Besteren ona ezin eramana. Batzuei kendu eta besteiei erantsi. Ni bezelako ezjakin asko izaten dira. Apustuan ibilitakoak zerbait ikusten degulakoan, baña ez ikusten plazan zer pasatzen dan, eta gaizki itzegin bear.

Ba, Aldaregiarekin galdu egin nuan, izugarrizko pelea jokatuta. Batetik, emandako bentaja kendu bearra, eta ortaz gañera nere buruarekin plazara gustora ez joana; gero, bultza ta bota. Ez nuan izan nik egin nezakean marka egiterik izan.


Len esaten nuan bezela, ez nengoan bear bezela preparatuta. Beti orrela joatea oso zalla da. Naiz kondizio txarretan joan, ez nuan iñola ere marka lotsagarria egin. Emen, Euskal Errian, oso gutxi dituzute amar kilometro ogei ta amairu minututan egindakoak.

Oiek orrela dirala, ementxe daukat liburu aundi bat. Oso gaizki jartzen nau; oso gaizki itzegiten du neretzat. Ez diran gauzekin, trapu zarra baño gaizkiago uzten nau:

*“No podemos silenciar el extendido rumor de que Iruntxiberri pudo y no quiso ganar esta prueba, cubriéndose a la contra, aprovechándose precisamente de que las traviesas estaban desde antes de dar comienzo la apuesta a su favor. Y luego hubo momios escandalosos en este mismo sentido. En fin, un rumor de los que nunca faltan en estas ocasiones, sobre todo cuando se piensa que un atleta ha tenido ganada una prueba y no lo ha hecho.*

*Desde luego, aunque León Albéniz “Iruntxiberri” no llegara a ser nunca, a nuestro juicio, un atleta de la categoría y de la calidad de Francisco Irizar, Miguel Aldaz y aun mucho menos de Chiquito de Arruiz, le tiene que caber en este breve glosario histórico el honor de haber sido, creemos, el último korrikalari, acaso el postrer espécimen de un género cuya extinción por el momento parece cierta”. (Los Vascos. Juegos y Deportes. Volumen II. Editorial LUR).*

Ba, liburu ortan ori eskribitu duanak edo argitaratu duanak lendabizi jakin bear du ni zein izandu naizen, or kaleratu dan liburu ori baño askoz lenagotik. Urteak pasa dira, danen gañean egondu naiz eta, ez badaki ni zer izandu naizen, ez du orrela, eskribitzeagatik bakarrik, jardun bear.



Tolosako zezen-plazan, 1974ko urriaren 6an,  
Jose Migel Maiz eta Iruntxiberri.

# Bizimodua

---

**M**omentuz aldatu dezadan nere istoria, eta aurrera. Ernanin bizitzen nintzan garai artan, eta Errekalden fabrikan lana egiten nuan, Biantxin.

Korrika naiko abandonatuta euki nuan ia bi urtez, geiago apustutan asterik pentsatzen ez nuala. Bi alaba izan giñun, Biantxin nenbillela lanean.

Berriro or sortzen zaizkit buruausteak. Alaba zarrena-ekin ez genduala osasunarekin abuantatzen. Jaio ta bi illabeterako asi zan bronkioetakoa sortu zaiola, eta ama-bost egun ezin pasa medikuetara joan gabe eta indiziorik jarri gabe.

Orrela, amar-amabi illabete zituala, ia iltzera etorri zan. Goiz batean naiko larri ingresatu genduan Residenzian, eta esperantza aundirik gabe. Ara allegatu ta esan ziguten medizinaz intosikatuta zegoala, botika geiegi sartuta. Geok ez, baiña bakarren batek entzun zien medikuei ume arekin etzegoala zer egiñik; etzuala onartzen suerorik eta ezer ere. Etsipena emanda egon zan, beraz. Bitartean, alabak Lurdes du izena eta Lurdesko Ama Birjiñari promesak egiten, ara joango giñala umearekin. Bein buelta eman zionean eta onera asi zanean, gustora! Joan ere egin giñan Lurdeseraño, eskerrak ematera.

Gero, medikuak onela esan ziguten:

–Ez badezute ume au norabait ere kanpora eramaten klima aldatzeko, oso gaizki ikusten degu.

Aurrenekoarekin orrela gabiltzala, bigarrena ere espe-roan bereala, eta ortik aurrera zer pentsatua izan zan, korrikak aztuta.

Len esan dedan bezela, nere emaztea Mariano Haro-ren arreba da. Len neu bronkioetatik gaizki nenbillelako, Palentzira joan eta orregatik ezkondu nintzan palentina batekin.

Berriro itzezin genduan zer buruauste gendukan umearekin. Ba, aguro eman zidan, nai izan ezkeru, kon-ponbidea koñadoak: bere erri artan len bi pelukeri nola zeuden eta biak erretiratu bearrak jubilatuta, onela esan zidan:

–Oso bearra izango da pelukeri bat emen altxatzea edo montatzea.

Becerril de Campos du izena erri orrek. Palentzitik León aldera amalau edo amabost kilometrora dago.

Erriaren erdi-erdian etxe bat saltzeko zegoala, oso leku onean, eta joateko ikustera.

Alaxe, joan nintzan, eta an etxea erosi nuan, arek esan-da bezela. Eta eskriturak egin eta etxea nere andrearen eta nere izenean jarri bezin azkar, esan zidan Mariano Haro-k zer egin zitekean.

Garai artan Mariano Haro ta familia, ni bezelaxe, pobre bizi ziran. Gaur diru askoren jabe eta ondo bizi dira. Ez pentsa nere koñadoa, Haro, korrikan bakarrik zala ona. Ankak azkarrak zituan, baña nik uste det burua azkarra-goia izan duala. Beti negozioekin pentsatzen.

Lentxeago aitutzen detan bezela, onela esan zidan:

–Leon, emen erosi deken etxe zar orrekin zerbait mon-tatu bear diagu.

Egia da etxe zarra zala, baña terreno dezente zeukan. Orregatik erosi nuan, zerbait egiteko lekua zegoalako, erriaren erdian, oso leku politean.

Ba, esan zidan:

–Ik nai deken bezela, pelukeria ta etxe bizitza bear dek. Danak egiteko lekua zegok. Taberna bat montatu bear diagu.

Esan da izan. Nere andrearen aita eta Marianoren anaiak, nere koñadoa, Emiliano, igeltsero ziran. Ala, igeltsero-lan dana etxekoak egiten zuten. Beste anaia ere, Pepito, laguntzeko.

Naiz iru anaiak korritzen zuten, Mariano zarrena eta onena. Baña bigarren anaiak, Emilianok, korrikan ere poliki egiten zuan; eta, ortaz aparte, bere aitarekin igeltsero, oso langille txukuna. Irugarren anaia, Pepe, korrikan oso ondo ibili zan. Lasarten ere askotan korritu zuan, lenbizi *juvenil* eta gero *junior* bezela, eta aurreko puntan ibilitakoa.

Gero, azkar aspertu ta erretiratu ziran Emiliano eta Pepito. Garai artan ez baizegoan korrikatik dirurik. Laneko orduz kanpora entrenatu bear zan, ez dirurik irabazteko.

Marianori, mundiala zalako, Españiko Federazioak sueldo bat illero ordaintzen zion. Palentzin Sindikatuan enpleatuta zegoan. Lanera joaten ez bazan ere, berdin pagatzen zioten, Mariano Haro zalako. Entrenamentuak ondo eramateko denbora asko bear baida.

Mariano Haro-k mundu guztian gerra eman zuan. Nik ezin ditut danak esan arek eman zituan frutu guziak, Españin eta mundu guztian. Iru olinpiada korritu zituan, eta aurreko puntan. Munduko marketan bostgarren allegatu zan. Iru milla metro *obstáculos*, bost milla, amar milla eta ogei milla. Ez noa geiago esatera zein zan Mariano Haro.

Garai artan, esan bezela, naiz mundiala izan, etzegoan dirurik. Haro izan bazan orain dala urte gutxiz onunzkoa, zer millonadak irabaziko zituan!

Lentxeago liburu ontan aitatzen detan bezela, Haro korrikan bezin bizkorra zan negozioetan. Ortik dirua egin du, korrikatik baño geiago. Lan asko eginda eta buruz jokatuta. Gaur zerbaitegatik dago bere errian alkate emezortzi edo ogei urtean.

Ortik aparte, bere fabrikazioak Españi guztian zabal-duta daude: kamisetak, txandarrak, zapatillak, *Prendas de Haro* izenarekin.

Len aitatzen nuan bezela, Becerril de Campos-en etxea erosi nuan, eta berealaxe bi kamioi material sartu ziran obran asteko. Nere kontura lanean asi ziran aita bi seme-ekin: pelukeria egiteko lokala, alboan segidan izugarri-zko taberna, amalau metroko mostradorea, aparte sukaldea, aparte komedorea. Oraindik lekua sobratzen zan. Gañean, guretzako etxe-bizitza.

Aiek lanean ari zirala, obran alegia, nik fabrikan segitu nuan, gauzak arreglatu artean, Biantxin.

Bigarren alaba 1966-ko Maiatzaren 6-an jaio zan. Pixka bat lentxeago izan zan Becerril-ko maniobra, eta andik lata ematen zidan nere koñadoak lenbailen joateko, nere familia artuta. An lana baizegoan egin bearra.

San Pedro bezperan joan giñan Ernanitik, kamioi batean muebleak eta tresnak kargatuta. Eta nere andrea, bi neska txikirekin, bat jaio berria, trenean joan zan Donostitik Palentzira. Trenean jarri nituan martxan, eta Palentzin itxogin bear zion bere aizpak. Ni kamioian joan nintzan, nere tresnaz kargatuta.

Danok badakizute noiz izaten dan San Pedro: ekainaren 29-an. Urtea: 1966. Fetxa oietan jeneralean eguraldi

ona eta beroa izaten da, Kastilla aldean batez ere. Beste edozein lekutan ere fetxa oiek ez dira txarrak berotzeko.

Ba, orrelaxe izan zan nere saltoa. Aitagiarrebarekin eta nere koñadoekin lan-puska bat egin bearra izan nuan udara guztian.

Pelukeria edo ille apaintzeko lekua bereala preparatu genduan. Garai artan ez illea bakarrik; arpegiko bizar moztea ere asko egin bear izaten zan. Jende sasoikoa ille moztera joaten zan; eta jende edadekoak dana erabat: bizarra eta illea.

Serbizio osoa: bost duro. Bizarra bakarrik: duro bat. Illea apaintzea: lau duro.

Pixkana asi nintzan. Ara joan nintzanean, pixka bat praktika atzenduta neukan, naiz lenago ofizioa ondo ikasita nengoan. Pixkanaka, *corte de navaja* esaten da kastillanoz, burua garbitu ta kutxillaz arreglatzea alegia, ikasten asi nintzan, eta ondo jarri ere, diploma ere aterata nago eta. Erri artarako sorpresa aundia izan zan. Gazte jendea txoratzen jarri nuan.





Donostiko Velodromoan 1966ko irailaren 4an  
korrikan asitakoan eta iristerakoan.

## Donostiko *Velodromo*-an

---

**K**orrika-kontuak atzenduta ibili bearra izan nuan udara Kartan. Baña beti zerbaiten tentazioa, eta pakerik ez.

Agoztuaren erdi-aldea izango zan. Nere anai batek or deitzen dit: Euskal Erriko kirol-klase guztien kanpeonatuak jartzera dijoztela Donostiko *Velodromo*-an, Iraillaren 4 eta 11-n alegia. Korrikalarien lana zortzi milla metro, nai zutenak korritu, *profesional* izenekoak.

Esan nion:

–Motell, nola joango nauk? Entrenatu gabe nitxeok, eta orain asita egun gutxi zeudek.

–Ba, nai dekena egin zak –esan zidan–. Oso lotsagarri geldituko aiz, ez baaiz presentatzen. Jendeak gaizki itze-gingo dik.

Jarri nintzan buruari elduta, eta esan nion:

–Deskuidatzen bagera, geu baño gutxiago danak irabaziko zidak; eta ondo geldituko al nauk?

Bakarren batek ere esan zion nere anaiari:

–Etzaio irabaztea komeni, ori irabazita ez dauka-eta apusturik egiterik.

Neri etzitzaidan ori gustatu. Laster esan nion:

–Len ere naiko baju nitxeok aspaldian, eta berriro lotsagarri gelditzera? Bueno, gaur bertan asiko nauk pixkanaka probatzen entrenamentuan, eta emendik iru edo lau egunera deitu idak. Esango diat joan edo ez. Ni joatekotan, egiñala al badet irabaztera joango nauk.

Alaxe izan zan. Deitu zidan, eta:

–Bueno, eman nere izena.

Gustora gelditu zan agindu nionean. Alegintxo bat egin nuan entrenatzen, naiz lan asko neukan. Amabost egunez ezin ondo jarri.

Ba, 1966-ko iraillaren 4-an, Donostiko *Velodromo*-an izan zan. Pistak berreun metro, bueltan. Zortzi kilometro, berrogei buelta.

Pista egin berria zan artean. Ez dakit ez ote genduan guk estreñatu konpetizioan. Ondarrezkoa, ez gaur dau-den bezelakoa.

Zazpi lagunek korritu genduan. Izen danak emen jarriko dizkizuet: Antonio Aldunzin Perurena; Mitxel Aundi, Leitza; Jose Domingo Pierno, Casa Silva, Leitza; Bautista Ariztimuño, Txantrea basarria, Leitza; Juan Ugarte, Txantxon basarria, Aginaga; Jose Maria Agirrezabala, Errotagain etxea, Txarama, Leaburu; Jose Inazio Ariztimuño, Errekalde etxea, Uizi; Leon Albeniz Maiz, Iruntxiberri basarria, Aia.

Zazpi auetatik, aurrenekoa eta bigarrena sartzen zira-nak, urrengo igandean, illaren 11-n, amar kilometro korritu bearko zuten.

Aurreneko salida danak errenkan arraian jarrita; eta urrengo igandean, amar kilometro egiteko, bi korrikalarien irteera, pistaren alde banatatik. Karrera batean, aurretik tira ezin duanak, aurrekoaren babesean jarri eta aprobetxatu egiten du. Alde bakoitzetik banaka jarrita, bakoitzak berea egin bear.

Aurreneko karrera irabazi nuan; baña ura zan justutik irabaztea! Aurren-aurrenetik tira ta tira. Agirrezabala orpoz orpo. Arekin neukan bildurra, eta segi egiten zidan.

Aren atzetik, Txantxon, irugarren puestoan. Besteak atzeragotik.

Sei kilometroak arte neri atakatuz; baña ez nion aurea artzen uzten Jose Mari Agirrezabalari. Ura menderatu nai nuan. Alaxe egin ere. Or gelditzen asi da ezin segiturik.

Baña or saltatzen zait gañera Txantxon, neri aurea artu naian. Orduan bai, larritu nintzan. Esan non nere buruari: "Onek kendu bear ote dit?".

Bukaera arte atake batean. Arraultz-tipoko plaza baitzan, rektan nere parera etortzen zan. Nik eutsi, il edo bizi jota. Kurban pixka bat arnasa artu, nola etzeukan neri pasatzerik; eta ekin berriz ere.

Alaxe zazpi edo zortzi buelta. Azkeneko rekta biok parez pare. Zinta arrapatzeko nere burua bota nuan, eta nik irabazi nion.

Ango jendearen zalaparta! Denbora: 25 minutu eta 51 segundo. Amar milla pezeta zeuden, eta txapela eta trofeoa, irabaztunarentzat. Bigarrenak, bost milla pezeta. Irugarrenak, Agirrezabalak, lau milla. Ortik atzera ez dakit zer lumerotan sartu ziran.

Len aitatzen nuan bezela, deportista bat ez ondo preparatuta egotearekin, eta bestea ondo preparatuta etorrita, edo duan guztia ematera, apustuak baziran berdiñean jokatuak: Iruntxiberri aurena ezetz eta baietz.

Andik urrengo igandean, 11-n, izugarrizko beroa. Jende guztia ikaratzeko modukoa izan zan. Nik ez det alakorik ezagutu. Guk alde banatan jarri ta asera eman genduanean, arratsaldeko lauretan, berrogei gradu.

Bost kilometro eginda, Txantxon erretiratu zan, eta falta ziranak bakarrik egin nituan. Marka: 34 minutu ta 49 segundo. Premioa: bost milla pezeta eta trofeoa.

Arratsalde artan, finalistak, bai sokatirak eta aizkolaria-  
riak ere, bi biren kontra. Garbi esateko, ez naiz bear beze-  
la gogoratzen, urte asko dira eta; baña Latasa beste bate-  
kin Astibia bi anaien kontra zirala uste det. Anaia, zan  
beroarekin, lana bukatu baño len erori zan plazan, eta larri  
ibiliak zirala gogoratzen naiz. Nola urte asko diran, ez det  
garbitasunik agertzen.



Iruntxiberri, Donostiko Velodromoan, 1966ko irailaren 4an.

# Agirrezabalaren kontra

---

**P**asatu zan ura ere, eta ez nintzan asarre joana Palentzi aldera.

Lenbizi Aiara joan giñan. Aian apaldu ta lo egin etxean, ama bisitatuz bueltatxo bat egin. Aita etzan urruti ibiliko, gure peleak ikusi gabe. Saltsa orrekintxe gozatzen zan: nere apustuekin. Ondo ateratzen nintzan garaian, etzan gure aitarentzako poz aundiagorik mundu ontan.

Orrelaxe, urrengo egunean joan nintzan Palentzira, nere familiarengana. An ere bazegoan zer egiña. Bereala taberna irikitzeke, lan guziak presaka, ezin allegaturik

Urriaren 12-an irikitzeke plana zeukan nere koñadoak. *Pilarica* bezperan iriki zan. Nik pelukeriaren kargua, eta Mariano Haro-k tabernarena. Lana ugari egin bearra izan genduan, nere andrea sukaldaritzan eta ni mostradorean, ille apaintzeke denboraz aparte.

Mariano Haro-k alde egiten zion tabernako lanari. Nik ere ez neukan kirola dana baztartzerik, badaezbada ere. Banekian sua nun gelditu zan, naiz puska batean ixilik egon.

Jose Mari Agirrezabala serio artu zuten preparatzen sozioak, neri jokatzeko. Iru bat illabetez ixilik euki zuten. Urtearen aurrenean, 1967-an sartu giñanean, kaso egin zioten nere anaiari.

Bazekiten zein zegoan nere presentadorea. Ni nola Palentzin nengoan bizitzen, emen azaltzen ziran nobedadeak aguro komunikatzen zizkidan anaiak. Nik bera jartzan nuan zer egin liteken edo nola lotu apustua.

Bentaja eskatzen zuten, bi buelta, Agirrezabalaren aldetik. Ala ere, beren ustez, neri berdiñean jokatzeko moduan ote zeukaten pentsatzen zuten. Ala deklaratu zuten gero. Uste zuten ni ondo probatuta gelditu nintzala *Velodromo*-an. Nola ikusi niñuten larri, Agirrezabala irugarren gelditu eta Txantxonek ia jan zidala; nik ez neukala egun artan baño geiago ematerik; nik bezelaxe berak ere preparatzen fallo pixkaren bat euki zutela; ortik etorri zitzaIELA okerra.

Nere anaiak esaten zidan:

–Oiek amorratzen zeudek jokia egiteko. Baña badaezbada ere bentaja nai die. Bi buelta eskatzen dute. Azkenerako, bat eta erdian ere konforme jarriko dituk.

–Bueno –esan nion nere anaiari–. Zertarako ibili dudan? Buelta bat emanda jokatu egingo ziot. Ik punta ori jarri iek, planto nai badute egin. Bestela, *fuera!*

Nik esanda bezela esan die, eta bai azkar kontratopapela egin ere, Tolosako zezen-plazan jokatzeko, Martxoaren 19-an, San Jose eguna, eguerdiko amabietan; 7.900 metro Agirrezabalak, eta 8.000 Iruntxiberrik. Zortzi kilometroan, buelta baten bentaja, eun metro. Jokia erre-zago egin zan, gero irabazi nion baño.

Bagenduan bildurra zer bait aterako ote zan. Eskerrak oso ondo preparatuta etorri nintzala.

Badakizute pelukeria edo ille-apainketa neukala, eta lan asko, astearen azken aldera batez ere. An etzegoan ordurik. Zenbat aldiz, larunbat-goizean zazpietarako edo lenago asi pelukerian, eta gauean ordubiak edo iruak ille apaintzen. Jendea kolan. Bere lumerua eman eskura eta, nola gendukan taberna pegante, jendea aixa ordenatzen genduan.

Goizean lo pixka bat egiten banuan, jai-goizean osterastan ziran ate joka. Jai-eguerdia izaten zan astearen azkenean bezela, kolan. Arratsaldeko laurak aldera arte, *fuego!*

Bazkari-mokadu bat edo pixka bat janda, siesta pixka bat, zerbait deskantsatzeko.

Jai-illuntze aldera edo illundu baño len, an etortzen zan edo presentatzen zan nere koñadoa: Mariano Haro:

–*¡Venga, León!* ¡Prueba egitera!

Jai-illuntzetan ematen zidan zurrada bat. Apustu artan ez nuan beste entrenadorerik izan. Arek kontrolatzen niñun.

Erriaren alboan, belaze batean eukitzen genduan plazako uztaiia, eun metrokoa.

Tolosara apustua jokatzera etorri baño amabost egun aurretik, egin nuan, or gendukan plaza ortan, prueba osoa, Becerril de Campos-en, aste-egun batean, eguerdian. Lagunen bat edo bi bagiñun an bertakoak, bueltak kontatzeko eta kontrolatzeko.

Lenbiziko kilometroa bakarrik egin arazi zidan. Bigarren kilometrotik zazpigarrena egin arte, berak jo arazi zidan aurre edo atze. Zortzigarrena, bakarrik. Harok:

–*¡Venga! ¡Venga!*

Nere denboran ez det prueba ura baño obeto egindakorik plazan. Ez dizuet esango zenbatean. Badakizute alperrik esatea dala. Etzenduteke sinistuko; ohea da ixilik gordetzea. Ez badezu publikoaren aurrean egiten, ez du balio.

Oiek orrela dirala, etorri zan plazara presentatzeko garaia. Eguna, esan bezela: 1967-ko martxoak 19. Dirua joka ta joka. Egun berean, ordubete lenago, anaiak esan zidan:



-I: esperantza latza zeukatek. Ez die galdu bear dutenik pentsatzen. Zortzi kilometro, buelta bat gutxiagorekin, ogei ta sei minutuan egiteko seguru zeudek.

Agirrezabalak eman zidan naiko tope. Naiz ni prueba ona eginda nengoan, plazako pasa bearra, nola kanpotik zirkunferentzi aundiagoa eraman bear dan, zure kontrarioak barrundik aprobeixatu egiten du.

Alaxe gertatu zan. Bi kilometrotarako arrapatu nuan buelta erdia. Neramakian belozidatean, estorbu egiten zidan aurrean, eta asi naiz pasa naian. Bere albotik luzatzen da zaldia bezela. Ezin aurrea artu eta ostera lengo lekura: bere atzera. Ez neukan lasai egoterik.

Berriro atakatzen nuan, eta ezin aurrera pasa. Amasei edo amazazpi aldiz buelta osoak bere parean edo bere alturan. Jose Mari Agirrezabala barrundik eta nik ezin aurrea artu.

Nere koñado Haro ta beste ainbeste jende orroan, oltzadura ondoan:

-*j Venga, León!* Segi jotzen!

Nik burua altxa gora eta begiratu txar bat egin nien, nere artean esanez: «Galdu dit apustua!».

Alako tristura batekin nenbillen. Lanak aurrera eta ni berari begira, orpoz orpo.

Alakoren batean or konturatu naiz anak zuzen ezin dituala bota. Laster esan nion nere buruari: «Onenak egin dik! Emendik aurrera etzidak asko atakatuko!».

Jotzen diot eta pasa, ta laster sartu nintzaion, buelta osoa kendu ta bere atzera. Buelta ta erdi kendu nizkion, beraz, trantze ederra pasata.


Alaxe bukatu genduan nere bizitzan izan detan apusturik gogorrenetako bat.

Agirrezabalak egin zuan marka: 26 minutu eta 2 segundo; Iruntxiberrik: 25 minutu eta 54 segundo.

Ala ibilita, bein aurrera eta bein atzera, ezin pasa eta etsipena artu ta gero, egun artan nik zenbat korrika egin nezaken edo zer marka egingo nuan laguntza pixka batekin? Galdera or gelditzen da.

Ez pentsa gaur dauden atletismoko pista batean korrika egitea eta plaza borobillean berdiñak dirala. Ez pentsa zortzi kilometro ez nituala pasa bein ere plazan 25 minutu ta 54 segundo baño azkarrago. Amar kilometrotara jokatuta bastante azkarrago eginda dauzkat zortzi kilometro.

Apustu orren istoriak or bukatu ziran.



Iruntxiberri, Txaramako Jose Maria Agirrezabalaren aurka,  
Tolosako zezen-plazan, 1967ko San Jose egunean,  
pasa eziñik amasei saio egin ondoren aurreratatu zan unean.

# Tolosako Berazubin

---

**N**ik berriro korrikak utzi alde batera eta segitu bearra neukan nere lan eta bizimoduan.

Momentuan ez neukan kontrariorik korrika segitzeko. Bi urte pasatu nituan nere kontrola galduta. Nere ezbeharrak ere izan nituan ondoren artan, urte ortan, 1967-an alegia.

Berriro fetxa berean jokatu nuan Irazuren kontra: 1969-ko Martxoaren 19-an. Orren berriak utzi eta segitu bear det. Zenbat oztopo pasa bear izan nituan tarte ortan?

Badakizute Becerril de Campos-en ille-apainketarako edo bizarra ebakitzeko lekua neukala, eta an segitzen nuan.

Udara-denbora zan eta or sentitzen det ez nabillela ondo. Sukarra eta auldadea, izerdi otza. Pasa egunak eta onerakorik ez. Egun batean igual obetoxeago; bestean okerrago. Illabete bat pasa nuan ezer aklaratu gabe.

Garai artan jende banaka batzuk egon ziran erri ortan gaitzak jota. *Fiebres Malta* deitzen zioten. Guk, edo nik beintzat ez nuan bein ere entzun. Oso gaitz paltsoa: eza-gutzen gaiztoa eta sendatzen zalla. Nik lau bat illabete pasa nituan gaitz orrekin, geiena lan egiñez.

Illabeteren bat artu bear izandu nuan baja, eta oian egon bearra. Izugarrizko izerdiak atera bear eta sukarra. Oian askotan dana bustita agertzen nintzan. Iñor asko etzan enteratu ni nola egondu nintzan, korrikako kon-tuak aztuta. Ederki baldatuta gelditu nintzan. Utzi egin

bearko negarrak kontatzeari. Bestela, esango du baka-  
rren batek:

–Len bronkioetatik eta berriz orrela?

Eta geroztik gertatu zaizkidanak. Oiek gerorako utzita,  
goazen berriz ere pixkanaka aurrera.

1967 urtea pasatu zan au dala eta ez dala; eta nere ille-  
apainketan segituz, al dedanean bueltatxo bat korrika egi-  
ten det. Entrenamentuan segitu bearra dago, naiz ez  
dedan ikusten desafiorik.

Korrikalari famatu bat daukat, joan daneko iru edo lau  
urtean neri zirrikaka: Asteasuko Jose Migel Irazu. Zenbait  
aldiz itzegiñak gaude apusturen bat lotzeko; baña ezin lotu.

Berak apustua jokatu baño len nai du irabazi, bentaja  
artuta. Orrek esan nai du jokoa egitean irabazi nai duala.  
Beti, juntatzen geran guztian, bentaja eske. Nik ezin, ba,  
bentaja eman Irazu bati. Oso korrikalari elegantea eta oso  
suelto korritzen duana.

Ala nengoan ni Kastillako lurretan, al dan bezela nere  
bizimodua nolabait ere atereaz, askotan korrikarako ani-  
morik gabe. Ala nabillela, or etorri zait abisua illabete  
barruan Tolosako Berazubin kanpeonatu jartzen dutela  
edo organizatu dutela.

Irazuk bazekian ni korrika atzenduta nengoala eta oso  
ondo etorriko zaiola Berazubikoa.

Bakarren batek itzegingo zuan eta *Centro de Atracción y  
Turismo*-k organizatu zuan, nai duanak korritu, *profesional*  
izenekoak alegia, 8.800 metro. Eguna: 1968-ko maiatzaren  
5-a.

Nere anaiak deitu zidan, eta nola egonda zeuden izke-  
tan nere aitarekin, eta ni presentatzea nai zuala Tolosan,  
kanpeonatuan.

Nere aita beti igoal: edozein moduz etorrita ez dagoa-  
la irabazterik ez pentsatzen. Eta, galtzen nuanean, a zer  
bullak eta marmarrak ateratzen zizkidan!

–Bueno, bueno! Alegin bat egitera joango nauk. Baña  
ez pentsa zuek uste dezuten bezela irabazterik dagoala  
Irazuri, nun da Berazubin!

Alaxe gertatu zan. Bear bezela ez dagoanak, edo ez baze-  
ra gustora joaten plazara, ez dezu egin bear dezunik egingo.

Dirua nere alde jendea jokatzten, naiz esan ez nagoala  
puntuari. Ezin jendeari buruan sartu.

Alaxe, jarri giñan zazpi edo zortzi korrikalari. Danen  
izenak ez naiz oroitzen: Txantxon, agiñarra; Gartzia,  
zarauztarra; Olarrea, Asteasukoa; Irazu, Asteasukoa;  
Argiñarena, Errazkingoa, seguru ez dakit; Tapia,  
Asteasukoa; eta Leon Albeniz, Aiakoa.

Danak arrai batean. Ekin diogu. Ni antxe danei tiraka.  
Ikusten nuan Irazu orpoz orpo nere babesean. Ezin alde  
egin eta momentu batean edo bi aldiz martxa aflojatu, ea  
aurrera pasatzen zan. Alde egiteko eman nizkion atake  
batzuk eta alperrik. Ikusten nuan etzuala tira nai. Korrika  
orrela jartzen danean, oso tristea da.

Berriz ere eman nizkion alde egiteko intentoak; baña  
alperrik. Nik ikusi nuan zer egingo zuan: azkeneko buel-  
tan, neri gasolina bukatu eta bestea momentu uraxe apro-  
betxatu. Iru edo lau metroz berak irabazi. Kaso au  
Berazubin bi aldiz egin zidan.

Ni ez nintzan konforme gelditu Irazuk ura egiñarekin,  
naiz ura korrikalari polita zan eta pista zuan bere gustoko  
lekua.

Geroxeago etorriko da garaia berriro itzegiteko  
Irazuren eta Iruntxiberriren goraberak eta iskanbillak.



Tolosako Berazubin, 1974ko apirilean, Profesionalen Txapelketan,  
Irazu eta Iruntxiberri.

# Miñez

---

**L**en aitatzen dedan bezela, utzi kanpeonatoko goraberak eta aurrera segitu bear, nere ille apainketak eta nere bizar ebate-lanak egiñez, tarteka edo denbora txiki-  
ren bat arrapatu zai bueltatxo bat edo beste egiteko korrika. Nola nekian Irazu preparatzen ari zala neri jokatzeko, ez neukan beti lo egoterik, badaezbada ere.

Kanpeonatua edo, obeto esanda, txapelketa. Maiatzean izan zan, 1968-an. Ortik aurrerako kontuak danak agertzen ez da erreza izango. Udara ortan pasa nituanak! Batek edo bik esango dute:

–Au zein da, bere bizitza guztian negarra kontatzen?

Bai; alaxe da. Neuri ere lotsa ematen dit. Baña egiak ez kontatzekotan, zer egin bear det? Ortarako pasata egon bear da, gauzak kontatzeko.

Zerbait miña sentitzen nuan gerri-buelatik beera. Zer izango ta ziatika neukan. Ipur mokorretik iztarrera sentitzen nuan, edozein momentutan, jimnasi edo korrika asita.

Zerbait egin nai eta medikuengana jo nuan. Etzioten inportantzirik ematen. Berak ez baitzuten miñik artzen.

Ala, Donostian masajistaren bat ona bazegoala eta ekarri arazi niñuten. Beraren edo masajista famatu orren izena nerea bezelaxe zan: Leon; Leon Ugarte, Ez dakit biziko dan, garai artarako ere urte asko zituan eta erdi elbarria. Bakarrik ibiltzeko etzan gauza. Eletrizidadeko katxarroz preparatuta egiten zuan lana. Etzan gizo izaten aren azpian abuantatzea.



Zer ibillerak egin bear izan nituan! Jai gauean, apalondoan, irteten nintzan etxetik, Becerril de Campos-tik Palentzira; eta Palentzitik Donostira, trena artuta. Goizeko zortzi t'erdietan edo bederatzietan allegatzen nintzan, eta zuzenean Leon Ugarte gizon famatu orrengana. Astean lau egunetan tratatzen zidan: astelena, asteartea, asteazkena, osteguna.

Lau egun Donostian pasa bearra neuzkan, zokoren batean, al dan ezkutuenan. Ez nuan iñork jakiterik nai. Lotsa ematen zidan.

Berriro ostegun gauez joaten nintzan Donostitik Palentzira, eta andik Becerril de Campos-era. Ostiral goizean allegatzen nintzan etxera. Eskerrak gauez nola egiten nuan biajea, trenez aprobetxatzen nuan lo pixka bat egiteko, bai alde batera eta bai bestera.

Ostiral goizean segituan asi bearra eukitzen nuan lanean. Ostirala, larunbata eta igandea *a tope* pasatzen nituan ille-apaindegian. Jende asko esperoan eukitzen bainuan.

Berriro jai gauean, len kontatzen nizuen bezela, arrankatu bearra Donostira.

Seguru ez nago, baña sei edo zazpi aste egin bear izan nituan martxa ortan. Ez pentsa broma zanik. Martxa orrekin zerbait arreglatu izan banu, etzan ezer ere. Orain datorrena ez da askoz gozoagoa. Ez dakit zeñek informatu zidan:

-Barruko gauza oiek ikusteko, adelantu aundiak Panplonan zeudek.

Bai, deskuidatu ezker, bizia kentzeko ere.

Panplonako Unibertsidadeko ospitalera joateko plana nolabait ere atera eta egin zidaten rekonozimentua.

Beste egun batean etortzeko eguna jarri zidaten. Biaje ortan ere jai-gauean etorri bearra nuan. Goizeko bederatzietarako presentatzeko ordua neukan, eta alaxe egin nuan. Esanda bezela kunplitu nuan nik nerea. Zerbait eman zidaten artzeko eta beste ezer artu gabe arratsaldeko lauretan etortzeko esan zidaten. Jakin banu, gero ikusi nuan bezela, ez niñuten arrapatuko.

Ni zer egingo didaten bildurrez an joan nintzan zuzen ordurako, bakar-bakarrik. Artu naute barruan ango medikuak eta enfermerak. Ez dakit zenbat, mordoska bat baziran. Gantzontzillo utsean mai baten gañean eserita, enfermera batek eldu zidan bi eskuetatik, esanez:

–Lasai! Prueba bat egin bear degu.

Gerriko zintura edo bizkar ezurraren erdian sartu zidaten indizioa eta txekorra bezela bota ninduten. An esnatu nintzan. Medikiak eta enfermerak an erabili ninduten trapu zarra bezela maiaren gañean, bein ankaiz gora eta bein ankaiz bera. Ordubete bat izan zan.

Itxura danez, iodo edo ez dakit zer likido txarren bat sartzan omen dute ezur barrura, eta ori gora eta bera erabiltzen dute ikusteko.

Libratu ninduten eta esan zidaten ea nola ez nuan lagunik ekarri. Zer esango nien? Bakarrik nengoan eta bazuten bildurra. Bueno, esan zidaten: billatzeko gaua pasatzeko lekua eta urrengo egunean amarrak alderako joateko berriro.

Garai artatik ederki aldatuta dago Panplona ere, beste leku asko bezela. Garai artan, Panplonako Parte Zaarretik lekutan iruditzen zan, oso aparte, Unibertsidadeko ospital ori. Gaur kale bat da.

Ala, autobusak ibiltzen ziran orduan ere. Oietako batean sartu eta etorri naiz Parte Zaarrera, eta *hostal* zaarren

batean sartu naiz lo-tokia billatzeko. Bai billatu ere, nik merezi nuan bezelakoa. Emakume zaar bat bertan, dana arrabiatuta zegoana. Ala, lo-toki ori edo abitazioa lotarako erakutsi zidan.

Bezperan etxean egin nuan apari mokaduekin nengoan, naiz ez gogorik eduki apaltzeko, barru utsarekin, alegia. Eta pentsatu nuan oieratzeko apari pixkaren bat egitea.

Jatetxe batean sartu eta eskatu nuan zerbait jateko. Baña ez nintzan gauza. Asi zait buruko min bat eta gorarria. Danak utzi eta laster joan nintzan oiera.

Baña dana alperrik. Gaur guztia lertu bearrean. Buruko miña eta, zer esanik ez, botaka. Komonetik ateratzeko gauza ez, *auxilio* eske, bakarrik. Iñora joateko ez nintzan gauza.

Emakume zar ura bullaka, ea nola leiken kondizio oietan iñor sartzea *hostal* batean, iñori ez lo egiten uzteko. Arek pentsatuko zuan ni mozkortuta joana nintzala.

Ura gau santua! Etzan motza izan. Ala ere, goiza allegatu zan noizbait ere. Goizean kaleko argia ikusi nuanean, eman zidan poza! Al nuan bezela altxata, al zan azkarrena joan nintzan klinika edo ospital ortara, zer gau pasa nuan kontatzera.

Etzuten sorpresa aundirik artu. Esan zidaten: «*Eso es normal*», eta ez keizteko. Ez dakit zerbait eman zidaten momenturako, eta etxera joateko.


Tratamentua eta resultadoa etxera biali zidaten. Baña oso egun txarra pasa nuan. Egun guztia lertu bearrean. Bota nai eta ez neukan barruan sartu zidaten *porquería* besterik. Lertu ez beste guziak egin nituan.

Nolabait ere etxera aillegatu nintzan. Ez nintzan gauza esplikatzeke ere zer pasata nengoan. Zortzi bat egun oiean Becerril de Campos-en. An oso mediku jatorra gendukan, eta ala esan zidan:

–Zuri egin dizuten prueba beste erremediorik ez dan garaian egiten dute, il edo piztu. Ondo dagoan pertsonari ez dago egiterik. Asko ilda gelditzen dira; ez dute resistitzen.

Zer billatu zidaten? *Pinzamiento ciático*. Ipur mokorretik iztarrera tiratzen zidan, eta tratamentua bi illabeterako: indizio mordo bat eta pastillak, esanez min aundiak jartzzen bazitzaizkidan, urrengo aldian operatzera joan bear-ko nuala.

Ala, egin nituan esandako guztiak eta tratamentua. Ez det geiago sumatu. Paseak pasa.



Iruntxiberri eta Jose Migel Irazu  
Tolosako zezen-plazan 1969ko martxoaren San Jose egunean.  
Iruntxiberri arraira sartu zaneko momentua;  
Irazuk buelta erdi falta zuan.

# Jose Migel Irazu

---

**B**ost edo sei illabete korrika-kontuak ederki aztuta pasa nituan: udara, udazkena eta neguaren sarrera.

Ala nengoala, Asteasuko Irazuk desafioa jarri duala Iruntxiberriri jokatzeko. Au zan Abenduaren aurrenean, 1968-an. Anai batek deitu zidan zer desafio azaldu zan periodikoz.

Ni nengoan bezela, ia bukatuan ibilita, korrikak burutik joanda neuzkan, lan asuntoan bastante sartuta: ille apainketa, taberna... Esan diot nere koñadu Haro-ri eta esan zidan:

–Leon, berriz korrika asi bear al dek? Len pasatzen ari aizena eta berriro korrika? Nik ez diat animatuko.

Jarri zidan zer pentsatua pranko. Leendik baizegoan urtetan sua edo garra, jokoak egin ezinda, alkarri mokoka beti. Azkenik, ni pakean edo ixilik nengoan bezela, eta periodikoz desapioa.

Nere anaiak aguro itzegin zuten: *entrenador Gabriel González* –nik ez nuan ezagutzen artean–, eta juntatu egin bear zala jokoak egiteko ea lotzen giñan. Alkarrekin biltzeko eguna zegoan Abenduaren 19-rako, Donostiako *Aldanondo* jatetxean.

Esan zidaten etortzeko Palentzitik, eta alaxe etorri ere, eta bi aldeak juntatu giñan. Irazuk pistan jokatu nai; nik plazan. Bakoitzak berea defenditu nai eta, azkenean, bi apostu lotu: bat, aren gustoko lekuan: Donostiko *Velodromo*-an jokatzeko; eta bestea Tolosako zezen-plazan.

Bi apustuak, amar kilometrotara. Aurrenekoa, Donostia-koa, Martxoaren 19-an, San Jose eguna, 1969.

Justu-justu bi urte Tolosako zezen-plazan jokatu nuala Jose Mari Agirrezabalarekin apustu izugarri ura. Berriro fetxa berean, bi urte geroago. Ainbeste otz-bero eta buruauste pasatu nuan bi urte oietan, or azaldu dedan bezela.

Kontua kontu, etorri zan eguna eta ordua jokatzeko, eta jokatu ere bai. Naiz apustu gogorra zegoan, irabazi ere bai naiko garbi egin nion. Etzan izan giro plaza eskiñetan. Seguru uste zuten eta diru geiago jokatu ere bai, galdu bear zutenak. Orregatik etorri ziran etorri ziran problemak.

Len esaten nuan bezela, bi apustu lotu ziran edo bi kontrato. Lendabizikoa, Donostiako *Velodromo*-an; eta bigarrena, Tolosako zezen-plazan.

Aurrenekoa jokatzeko ogei bat egun falta zirala, etorri zan Irazuren lagun bat esanez kontrato-papelaz aparte, beste papel bat *antidoping* egitea eskatzen zutela, eta papel ura firmatzeko. Nik erantzun nion:

–Kontrato-papela nola firmatuta daukatan, orrez aparte ez daukat zer firmaturik.

Esan banuan esan, nere illoba bat eta nere nere anai bat kontra jarri zitzaizkidan. Urrengo egunean esplikatu diot doktor Etxebarren medikuari, eta esan zidan:

–Arrazoi osoa daukazu. Baña pakeagatik, nai badezu, firmatu. Ez dezu kuidadorik eramango gauza orrekin.

Apustua jokatu eta irabazi. Plazan mediku bat ere ez nere aldetik. Bakar-bakarrik, doktor Hueso, Federazioko presidentea, zegoan. Etzan iñor joan *antidoping* egiteko edo pixa artzeko preparatuta plazara. Propaganda egitera *coca-cola* zaleak bai, beren produktoarekin edo edariarekin.

Ala, Irazuren lagun ori, plazan apustua bukatu genduanean, pixa artzeko frasko billa; eta pixkaren bat egin eta eman ere bai. Geroxeago, pixka dala eta arratsaldeko bostetan San Kosme klinikara joateko.

Bazkaldu, kafea eta danak egin da gero, ez dakit puroa ere erreko nuan, beste kopatxoren bat artu ere bai, normala danez, apustua irabazi ondoren. Bai ni patxara ederrean joan ere. Ortik pentsa zenbateraño ezejakintasuna genduan, neu aurrena naizela eta urrengo nere inguruan zebiltzanak. Ala esan zidan doktor Hueso-k:

–Leon, garbi ikusi degu eguerdian jokatu dan apustua oso normal bukatu dezula. Tonteri bat egitera goaz, eskatzera etorri diralako.

Ederki pagatu nuan broma ura. Ala, bigarren apusturako entrenatzera Palentzira joanda nengoan edo entrenatzen nenbillen. Len esan bezela, Gabriel González-ekin entrenatu nintzan, eta berak emandako entrenamentuarekin joan nintzan Palentzira. Ogei ta lau egun genduzkan bigarren apustua Tolosan jokatzeke, eta oso gustora nengoan.

Ala nenbillela, nere anai batek deitu zidan, al nuan azkarren presentatzeko; ola eta ola periodikoan azaldu zala: «*Iruntxiberry con anfetaminas*».

Ez nekien zer egiten nuan. Artu trena eta al zan azkarrena etorri nintzan, eta aurreneko lana Federaziokoen-gana, ea zer pasatzen zan. Esan zidaten:

–Gu enteratu baño leen periodikoan azaldu da.

–Nolaz bada?

–Asteasuko lagun ori or ibili zan zerbaiten billa Donostiako Anoeta aldean.

Or bazan beste miserable bat, korrika ibiltzen zana, beti danen atzetik, besteren ona ezin eramanez, eta perio-



dikoan ere parte artzen zuan, kronika txikiak jartzen *Balda* izenez. Oiek biak topo egin zutela Anoetan, eta zerbait raroa azaldu omen zala analisisian enteratu da asteasuar au, eta ortik periodikora. Federaziokoak esan zidaten:

–Bein publikatu ezkerro, guk ez daukagu ixilik tapazerik.

Joaten naiz neri atenditu zidan medikuarengana: doktor Etxebarren. Ura arrabia artu zuan! Esan zuan:

–Ez da posible! Emen, Gipuzkoan, etzegoan iñor analisis ori egiteko preparaturik, eta kondizio oietan gutxiago. *El único médico soy yo*, iñork baldin badaki analisis-klase oiek nola diran.

Segituan deitu zuan Federaziora, eta eskritoa presentatu ere bai. Baña danak alperrik izan ziran. Federaziokoak kirol *amateur* eta *profesional* maillakoekin nai zuten guzia egiten ari ziran. Libre zuten nai zutena eta geiago egiteko legez kanpo, berak ikusi nai etzutenen kontra.

Zeñek sinistuko du edo sinistu lezake orduan neri egin zidatena, plazan ibili ziran bezela *cocacola*-frasko billa neri pixa artzeko? Doctor Hueso bat, Federazioan zegoan Zulaika bat eta beste batzuk, nik ezagutu ditudanak, oiek neretzat gizonak izan al dira?

Neri urtebeteko kastigoa eman zidaten. Beste apustua, oso ona neukana, jokatzen utzi ez. Diruak botata zeuden. Kentzea intentatu zuten, alperrik ibili baziran ere.

Donostiako edo emengo Federazioak egiten zuan guztia *por Federación Española* omen zan. Ori gezurra zan. Gu, Haro nere koñadoa eta biok, joan giñan Madrilla *Federación Española*-koekin itzegitera, eta zer pasa zan agertzera: emengoak nola esaten zuten: *por la Federación Española*. Esan ziguten:

–Eso es mentira. Las chapuzas que están haciendo en San Sebastián las hacen ellos, sin contar para nada con nosotros. Y no tienen derecho para esas cosas.

Apustua beti izan da zikiña, eta izango ere bai. Dirua jokatzan dan lekuan kontuz ibili. Bakarren batek esango du:

–Ori len ez al enkin?

Bai; laister konturatu bearra izan nuan. Baña ez pentsa ni jokalaria izan naizenik, baizik kirolaria edo deportezalea. Ez nastu jokalaria izatea eta deportista edo kirolaria izatea. Nik ez banu izan benetako afizioa, uste dezu orrenbesteraño abuantatuko nuala? Pixka bat preparatzen nintzan garaian, moztuta uzten zidaten bidea. Milloi bat edo biko kaltea egin ere bai, garai aietako kontuak aterata, ez gaurko kontuekin.

Batek baño geiagok esango dezute:

–Baña, Iruntxiberri: ez al dik lotsik ematen ik pasa dituken *rollo* oiek aitatzeak?

Bai, ori bai, egia da: lotsa ematen dit benetan. Baña nik egiak esan bear baditut, edo egiak azaldu, zer egin bear det? Ixilik gelditu, ume txiki bat bezela, txupetea aoan artuta txupatuz, ni olako txikia izan naizelako?

Emen daude *Editorial Lur*-ek ateratako liburuak, eta oietako batean deporte edo kirolarien bizitzak agertzen dira, klasean klasekoak. Baita Iruntxiberriren korrika apustu batzuk; ez danak. Baña ederki esplikatzen du Aiako Txikia nola arrapatu zuten drogatuta, Irazuri irabazi zion apustu sonatu artan.

Orregatik, ez nago ixilik egoteko moduan, naiz kritika txarra izan. Egin zizkidatenak legez kanpo egin zituzten. Neretzako mantxa txarra or gelditu zan. Ondoren ortan

izan ziran gorabera danak jarriko nituzke, baña danak azaltzea oso soka luzea da eta ortan utzi bearke.

Or esaten detan bezela, saltsa zikiña arreglatzeko, lau joko egin bearra izan zan; edo, obeto esanda, lau leku desberdiñetan, analisak eta gauzak legez egiteko ordenez, ikusteko ea droga bear nuan apustua irabazteko. Or azaldu zala uste det naiko garbi, nai duanak ikusi.

Len istorirako izan zan apustua jokatu genduan Martxoaren 19-an, 1969-an. Berriro kontrario berarekin, Irazurekin alegia, andik ogei ta bat illabetera justuan, eta egun bat geiago, Abenduaren 20-an, 1970-ean, lau apustuetatik aurrenekoa jokatu genduan.

Tarte ortan otz-bero asko pasa bearra izan nuan. Nik Jaungoikoari auxe eskatu nion askotan:

–Bai; ederki sufritu arazi didate, au dala ta ez dala; baña berriro Irazu eta biok ondo probatu edo ondo neur-tuta gelditzeko bidea izan dedilla, eta analisak eta pixak ondo konprobatuta, *como Dios manda*.

Leen esaten nuan bezela, otz-bero asko pasa bear izan nituan. Palentzian, Becerril de Campos errian, bizi edo esistitzen nintzan, nere ille mozte edo ille apainketak eta arpegi garbitzeak egiñez. Tarte bat noiz arrapatu, an joa-ten nintzan, bakar-bakarrik, erbiren bat arrapatuko ote nuan esperantzan edo ilusioz. Ango lur gorri eta mendi-baztarrak ederki ezagutzen nituan.

Pixkanaka etorri zan garaia. Asteasu aldetik sua bero-bero zegoan. Nik ura nai. Astelen arratsalde batean etorri naiz Tolosara, eta or alkar txoke egin genduan. Joko bat egiten zailla zegoan. Arek berak legun jokatu nai zuan. Makiña bat aldiz desafiatu zidan:

–Andazarratetik Billabonara jokatuko diat.

Nik batekoz bestera nai nuan: Billabonatik Andazarra-tera edo Aiara.

Beste bide bat, Irazuren gustokoa, Tolosako Berazubi zan; an gustora ibiltzen zala, alegia. Iruntxiberri aurrean tiraka jarrita bai ondo; baña bakarka jarri alde banatan eta bakoitzak bere korrika egin bear..

Len esaten nuan bezela, Tolosan alkartu gera *Bar Cantábrico*-n, eta asi gera bakoitzak bere eskola:

–Nik an jokatuiko diat, olako rekorridoia, orrenbeste kilometrotara.

Batek goitik bera, besteak betik gora. Ikusi nuan: «Emen apustu bat etzegok egiterik». Ni ere pixkaren bat disparatuta nengoan, nere onetik aterata, koparen bat edo ardo geixeago edanda; eta gutxi bear ni bezelako batek. Or esaten diot:

–Irazu, ez diagu orrela ibili bear. Ik artu itzak bi rekorrido. Gutxienezko zortzi kilometro izan ditezela. Nik beste bi jarriko dizkiat, rekorrido edo distantzi berdiñean, eta bota zak señalea, lau lekutan jokatzeko.

Alaxe, alde artatik ere baziran bi anai, eta gu ere iru izango giñan. Pixkaren bat pentsatzen jarri ziran; baña segituan, diru señalea botata, urrengo egunean goizeko bederatzietarako juntatzeko ordena, lau joko nola lotu.

Ez dakit lo asko egingo nuan nik; baña goizean, bederatzietarako, bi aldeetatik ere zuzen bildu giñan *Bar Cantábrico* ortan.

Ez giñan bakarrik. Jende mordoska gerturatu zan. Loiola Irratiko Lazaro ere or zan. Periodista edo kazetari-  
ren bat ere Donostitik etorri zan.

Testigu askoren aurrean jarri giñan maian goizeko bederatzietan. Asi zan asamblea jenerala. Baña illuntzeko

zortzietan joko-papelak ezin firmaturik geunden. Tarte ortan, amar-amaika orduan zenbat eztabaida izan zan! Ondo grabatuta egon bazan, oso polita izango zan orain entzuteko.

Orduan etzan polita. Ez giñan alkar jotzen asi. Nik ez neukan eskurik mugitzerik, danetan txikiena izanik. Banekian bestela bueltan aundiak neuzkala. Orregatik, badaezbada ere, geldirik. Besteak ni ere errespetatzen ninduten txikia naizelako, eta pentsatuko zuten: «Gero ere onekikoak aixa egingo dizkiagu».

Bueno, asi zan *Bar Cantábrico*-ko reunioa. Lenbizi Irazuk aukeratu zituan bere gustoko bi leku: Tolosako Berazubi aurrena, zortzi kilometroko bidea, apustu bat, lenbizikoa; bigarren lekua, Andazarratetik Billabonara.

Nik aukeratutako lekuak: lenbizi, Azpeitiko zezen-plazan zortzi kilometrotara; bigarren lekua, nere gustokoa, Oiartzundik Artikutzara. Azkeneko au, jokatu gabe gelditu zana, nere gustokoena zan.

Orain erderaz notatzera noa, edo kopiatzera, emen daukantan Federazioko informe eta resultado guzia, jokia egin genduanetik bukaerara:

*Acta de las tres pruebas de korrikalaris celebradas entre José Miguel Irazu y León Albeniz.*

*Según contrato formalizado el día 10 de septiembre de 1970, se concertaron tres apuestas entre D. José Miguel Irazu Gabirondo, natural y vecino de Asteasu, con domicilio "Muño", y D. León Albeniz Maiz, natural de Aya, caserío Iruntxiberri.*

*Primera apuesta: se celebra el día 20 de diciembre de 1970, con tiempo muy frío, en el stadium Berazubi, de Tolosa, dando comienzo a las doce horas.*

*Se trata de recorrer ocho kilómetros; es decir, veinte vueltas a la pista oficial de cuatrocientos metros. Para tomar la salida se colocan los korrikalaris de la manera siguiente: Irazu, frente a las tribunas, en el mismo centro de la recta; Iruntxiberri, frente a las gradas de general, también en el centro de la recta. Por consiguiente, en el momento de la salida hay doscientos metros de distancia entre ambos korrikalaris.*

**Resultado:**

	<i>Iruntxiberri:</i>	<i>Irazu:</i>
1 km.:	2' 56"	2' 50"
2 km.:	6' 00"	5' 55"
3 km.:	9' 06"	9' 04"
4 km.:	12' 16"	12' 14"
5 km.:	15' 26"	15' 27"
6 km.:	18' 36"	18' 44"
7 km.:	21' 48"	22' 03"
8 km.:	25' 02"	25' 19"

**Segunda apuesta:**

*Se dilucida en la Plaza de Toros de Azpeitia, el día 17 de enero de 1971, a las doce del mediodía.*

*Se trata de recorrer ocho kilómetros, ochenta vueltas al anillo de cien metros.*

*Toman la salida en lados opuestos del anillo, tal como es costumbre en pruebas de korrikalaris.*

**Resultado:**

	<i>Iruntxiberri:</i>	<i>Irazu:</i>
1 km.:	2' 56"	3' 01"
2 km.:	6' 03"	6' 11"
3 km.:	9' 18"	9' 27"
4 km.:	12' 32"	12' 42"
5 km.:	15' 50"	16' 00"

	<i>Ituntxiberri:</i>	<i>Irazu:</i>
6 km.:	19' 13"	19' 22"
7 km.:	22' 35"	22' 44"
8 km.:	25' 50"	26' 00"

***Tercera apuesta:***

*Esta tercera apuesta consta de dos pruebas: una prueba desde el alto de Andrazarrate a la Calle Mayor de Villabona; y la otra, desde el kilómetro 13 al 23 de la carretera de Oyarzun a Artikutza.*

*Será declarado vencedor de esta tercera apuesta quien invierta menos tiempo en la suma de las dos pruebas.*

*La primera prueba tiene lugar el día 14 de febrero de 1971, entre el Alto de Andrazarrate y la Calle Mayor de Villabona. La distancia de este trayecto asciende a 9.634'40 metros.*

*Toman la salida ambos korrikalaris juntos en el mismo Alto de Andrazarrate, a las doce en punto del mediodía.*

***Resultado:***

	<i>Irazu:</i>	<i>Iruntxiberri:</i>
<i>Cantera de Asteasu:</i>	10' 00"	10' 13"
<i>Bar Agote:</i>	15' 05"	15' 17"
<i>Cruce de Cizúrquil:</i>	20' 54"	20' 52"
<i>Villabona, Calle Mayor:</i>	27' 11"	26' 47"

*Nota.- Iruntxiberri alcanzó a Irazu al llegar al cruce de Alquiza, después de pasar el caserío Comporta. En aquel momento llevaban 18' 35" de carrera.*

*La segunda prueba de la tercera apuesta correspondía celebrarla el día 19 de marzo de 1971, pero el korrikalari Irazu optó por no presentarse (lo cual notificó con la debida antelación), perdiendo el dinero en juego.*

*Por consiguiente, el vencedor de las tres apuestas concertadas al amparo del contrato formalizado el día 10-9-70, fue el korrikalari León Albeniz "Iruntxiberri".*

*San Sebastián, 20 de Marzo de 1971.*

*Nota.- En las tres pruebas se llevó a cabo el control antidoping, obteniendo resultados negativos.*

Bueno, izan zuten naiko istori lau apustu auek. Lenbizi, kontrato-papela egitea, ederki kostata. Egun guztia alkarri mokoka. Ez baizegoan edozein modutan kontratoak egiterik. Gauzak ondo lotu bear.

Lau jokoetako diruak bota ziran aurrenekoa jokatzera-ko. Pedro Armendariz zan garai artan *Bar Cantábrico*-ko nagusia, eta aren eskuan depositatu ziran danak: 250.000 pezeta alde bakoitzetik, 500.000 zeñek jaso. Ederki kostakoa izan zan. Apustu bakoitzean 200.000 pezeta, Tolosakoa eta Azpeitikoa; kamiokoa, 100.000 pezeta.

Aurreneko apustura ez nintzan gustora joan. Oso ondo nengoala, amabost egunen faltan, ezbearrak arrapatu ninduan, eta aste osoa oian egon bearra izan nuan, medikuaren tratamentuarekin.

Oian ala nengoala, ez nenkian zer egin neukan konpromisoarekin. Lagun bat, nerekin sozio zegoana, etorri zan neri bisitatzera, oian nengoan lekura; eta, ala geundela, izketan or esaten dit:

–Agoken bezela edo orrela egonda, Irazuri apustua irabaztea pentsatzen al dek?

Neukan desgustua eta gañetik ori, zerbait animatu bearrean!

Azkeneko astean ere medikuak etzidan permisirik eman nai; eta, joko atzeratzen asita ere, oso ixtilu txarra zegoan, besteak jokatzeko fetxak ere an baizeuden; eta esan nuan:

*–¡Lo que salga! ¡A jugar!*



Alaxe, jarri nuan pelota martxan, galdu edo irabazi.

Tolosako *Berazubi* ortan zegoan jela edo orma, oso pista txarra. Biontzako berdiña zegoan, eta aurrera bildur ederrarekin.

Ala, asi gera jokutzen eta Irazu naiko azkar. Lenengo kilometroan Irazuk lau segundo atera zidan bentaja. Bigarrengean segundo bat recuperatu nion. Lau kilometrotarako berdindu nion, eta andik aurrera aixa menderatu nuan. Nere buruari esan ere egin nion:

–Ni etorri naizen bezela, apustua galtzeaz etsita, bere gustoko lekuan! Ba, ni ondo joaten banaiz, plazan edo kamioan, onek etzidak irabazten.

Esan eta izan, gauzak ondo atera.

Azpeitiko plazan errez; oso gustora joan nintzan, eta bi kilometrotarako arrapatu nuan atzetik, eta pentsatu nuan: «Etzeukat pasa bearrik. Ementxe eustea naikoa diat apustua irabazteko». Alaxe bukatu genduan bigarrena.

Orain irugarrena nun jokatu *cara o cruz* egin bear genduan. Irabaztunak aukeratuko du. Azpeitiko pazan bertan, Federaziokoen aurrean egin zan, eta Irazuk irabazi, eta aukeratu zuan azkar asko bere gustoko lekuan jokatzeari: *Andrazarrate-Villabona, 14 de Febrero*. Alaxe erabaki zan.

Eta ni joan nintzan Palentzira entrenatzera. An obeto ibiltzen nintzan: batetik, altura; eta bestetik, leku sana. Ango mendi-kamioak astindu nituan, bein bera eta bein gora, bietara. Orduan, bai, gustora nengon.

Alaxe, etorri nintzan Palentzitik Ernanira, nere anai baten etxera. Igande goizean eramanez ninduan Andazarrateko gañera, amaiketarako. Bereala jendea barra-barra kamioa betean. Ni antxe, beroketak egiten, Aiako kamioan, bera eta gora.

Ala nenbillela, ordu erdi bat falta zan arraira biltzeko eta or zetorrek Irazu danba-danba, ni betik gora eta ura goitik beera. Alkarri egun on esan eta aren urrengo itza parrez-parrez:

–Gaur probatu bearrean izango gaituk!

–Bai –esan nion.

Oso gustora zegoala irudituta gelditu nintzan. Ni ordurako dana bustita nengoan izerditan. Beroketan zortzi kilometro egin nituan. Konturatu gabe ibiltzen nintzan. Ori, apustua jokatzeko asi baño leenago.

Kaminero-etxean sartu eta erropa bustiak kendu eta legorrak jantzita, arraira amabietan puntu-puntuan.

Eman zigun salida. Ura zer zan! Ari etzegoan segitzerik. Ez bainuan alako gauzarik pentsatzen, ala alde egingo zidanik. Ikaratu nintzan. «Akabo!» esan nion nere buruari.

Santa Marinako kurbatik bera ez nuan ikusten, eta pentsatu nuan: «Kurba artu ezinda, mendian bera joana izango dek».

Nik segi eman eta eman, triste asko, *por si acaso*. Ortxe lau kilometrotara kantera dago, eta or bista geixeago, eta or ikusten det nun dijoan. Eta ori bakarrik ez; atzera begiratu zuala nun ote nijoan. Eta atzetik zetorren kotxe-illara asten da korneta joka. Konturatu nintzan eusten niola aren ritmoari.

Asteasuko erria nola zegoan! Ez dakit nola utzi niñuten pasatzen, atzetik nijoalako. Txingurria baño ugariago zegoan jendea. Ango destitxa eta orrua! Millaka jende baizegoan. Bakarren batek:

–Jo zak nai dekena! Gaur atzetik joan bearko dek!

Oso ondo entzun nuan nik ori. Andik aurrera zelaia zegoan, eta konturatu nintzan: «Sartu nauk korrika egiteko lekura».

Laster arrapatu nuan, eta pasatzen intentatu ere bai. Baña artean etzegoan neri uzteko. Arrankada egin zuan, eta ni beraren atzetik Zizurkilko krutzera arte. Ni ere oso lasai ez nentorren. Irazu ikusten bainuan tira eta tira. Nere buruarekin pentsatzen nuan: «Zer gertatu bear du emen?». Pasa eta alde egin arte ez neukan garantirik.

Jartzen det motorra primeran sartu ta *a tope*. Pasa ta *rau!*, libratu nintzan. Aurrera pixkanaka, alde egiten. Ango orrua eta zalaparta! Ez nuan, ez, belozidade ura aldatzerik. Nituanak eta ez nituanak eman, arraira sartu arte.

Nik ez dakit egun artan Irazuri nola irabazi nion. Ez pentsa Irazu korrikalaria etzala. An daude edo or daude markak orrenbeste urtean. Ala ere, orduko markak gaurko zer dira? Orrenbeste urtean, marka guztiak mejoratzen dijoaz. Markarik ez dagoan lekura edozein joaten da.

Or bukatu zan gure istoria. Baña esan bear det apustua bukatu eta etzegoala alde egiterik, apustutik apustura analisis egin gabe. Eta resultadoa eskuan artu arte ere etzegoan joko-dirurik jasotzerik. Resultadoa eskuan zenduala joanda ere, kontrarioaren permisoa etorri arte etzizuten ematen.

Ura ikusi egin bear zan. Artean beste laugarrena falta genduan: Artikutzako bidea, nik aukeratu nuana; eta nik nola ez nekian etorriko zan edo ez jokatzeri, badaezbada ere entrenatzen segitu nuan illebeta osoa, Martxoaren 19-a arte.

Ez baitzigun entregatu eta ezezkorik eman, naiz berak jakin. «Ibili adi!» esango zion neregatik bere buruari.

Normala iruditzen zan, pasa ziranak ikusita. San Jose egunarekin bukatu zan dana.

Gaur bezela jakin banu, marka jartzera joan bear nuan, Preparatuta nengoan bezela, etzitzaión iñori bururatu. Sozio lagun batek auxe esan zidan:

–Leon, momentu ontan i korrika alperrik preparatzea dek. Ez daukak kontrariorik.

Kontrario geiegi ere ez da ona. Baña bat preparatuta dagoan garaian kontrariorik ez daukazulako korrika abandonatu eta zuretzako ez diran lanetan sartu, zenbat aldiz egin nuan gauza bera! Gero, ni korrikarako preparatuta ez nengoan garaian, orduan:

–Leon, kanpeonatu jarri die eta etorri egin bearko dek.

Amabost egunez preparatu eta pistara, besteak ondo gelditu zitezten. Orduan:

–Ikusten al dek?

Eta gañera jendea, ezer ere ikusten ez dutenak, eta:

–Etzegok igoal! I, orrek tongo egin dik!

Bi aldiz orrela aprobetxatuta dago Irazu. Gañera neuk esan:

–I, aprobetxatzen al dek! Preparatu gabe etorri nauk.

Ala ere, azkeneko buelta arte neuk tiraka eraman bear. Jende askok ez baidaki gauzak nola izaten diran; kirola gañetik itzegiten bakarrik.



Iruntxiberri, Jose Miguel Irazuri irabazi ondoren Tolosako  
zezen-plazan, 1969ko martxoaren San Jose egunean.  
Eskerretik: Mariano Haro, Iruntxiberri,  
Jose Mari eta Xabier Olaizola Albeniz anaiak, Iruntxiberriren illobak.

# Aizkora

---

**U**rrengo apustua aizkoran egin nuan. Ortan lendabiziko aldiz sartzen naiz eta neretzako egiten ez diran lanak artuta, berrogei ta zortzi kiloz. Kanako tronkoa ni baño altuago gelditzen da.

Aspaldian genduzkan diskusio batzuk kanako tronkoa ordubetez ebaki ezetz eta baietz. Orrela, egin degu apustu txiki bat; obeto esan, egin nuan, Aiako dema-plazan jokatzeko.

Azentzio egunean jokatu nuan. Polipaso izan nuan nere laguntzalle. Berarekin egin nituan entrenamentu batzuk, eta bastante gustora.

Prolema izan genduan tronko edo egurra billatzen. Kanako egurra ez baita nunai izaten. Arbola aundia bear baida. Azkenik, Artikutzako mendi-puntan arkitu genduan pagolizar aundi bat. Etzan guk nai genduan bezelakoa. Baña al zan bezela ekarri eta plazara joan giñan.

Azentzio goizean jarri genduan dema-plazan kanako tronko ori. Arratsaldeko bostetan zegoan ordua. Laurak aldera asten dira tximistak eta alako trumoi-zartadak. Geroxeago, ni aizkoran asi baño leen, euria bota eta bota. Ura giroa!

Izugarrizko jendea bildu zan. Frontoia dana bete zan. Publikoa sartzeko lekua tapatuta zegoan; legorpea, alegia. Dema-plaza tapatu gabe, garai artan.

Ordua allegatu da eta euria bota eta bota. Edozein atrebitzen zan tronko gañera saltatzera. Baña ordua alle-

gatu zanean, etzidaten barkatu. Asi egin bear, moztuko bazan. Etzuan alertu asi eta bukatu arte.

Badakizute eskuentzat txarra dala euritan. Ala ere, bastante ondo jardun nintzan: 44 minutu eta 24 segundoan moztu nuan. Jendea oso gustora legorpetik begira, txantxangorria ala ikusita. Dutzara joan bearrik ez neukan. Naiko ura izan nuan plazan. Au zan 1971-ko Maiatza.

Fetxa artatik laster beste apustu koskor bat aizkora utsean. Esan nai nuke Maiatzen Aian jokatu eta bereala, Ekainaren 20-an jokatu nuala Tolosan, zezen-plazan, Andoaingo Doroteoren kontra, kanako tronko bana eta bina kana erdiko. Ura ere irabazi nuan, prolema aundi gabe.



Iruntxiberri Hernaniko Jauregi-etxeatzean,  
1971eko abuztuaren 22an, Jose Aierberekin segan eta korrika  
egindako apustuan.

## Segan eta korrika

---

**O**rain kontatzen noan apustu au jokatzeko nengoala, beste apustu famatua eginda nengoan, edo kontrato-papela firmatuta, naiko komeri eta esamesa ekarri ziguna, 1971 urtean bostgarren apustua; eta beste bi giñun-geroxeago etorriko da emen istoria-Ataungo Jose Aierberen kontra segan eta korrikan.

Ernaniko *Jauregi-etxeatzea* esaten zioten leen, eta orain ere ala izango da, sega-apustuak jokatzeko dan lekua: *Etxeatzea*, naiz nik *restaurante* edo jantokia ezagutu nuan. Baña gaur jantoki izen aundikoa. Oso ondo preparatuta daudela uste det: *hostal* bezela, oiak eta dana: kotxeak aparkatzeko lekuak, terraza... Zer ez dago? Zoragarrizko lekuak.

Beti izan du fama: *la campa Etxeatzea de Jauregui*. Ba ortxe izan zan Jose Aierberen eta Iruntxiberriren apustu aundi ura, 1971-ko Abuztuaren 22-an, arratsaldean.

Aierbek milla metro belar ebaki eta amar kilometro korritu. Iruntxiberrik, lan bera, eun metro belar gutxiago. Belarra *rason* ebakitzea.

Izugarrizko belar zarra zan Abuztuaren 22-an. Udaberrian ebaki gabeko belarra. Tartean izugarrizko lur-metak; txingurrizko lur-metak, alegia.

Aurrena, belar ebatea. Bukatutakoan korrika plazan bueltaka. Eun metroko uztaiak gendukan, zezen-plazan bezela. Belazea, bertan korritzeko, leku txarra gelditzen da. Neri tokatu zait bein baño geiagotan belazean korritzea.



Aierberen laguntzailleak onoko auek izan ziran: Eleuterio Tapia famatua, kirolari aundia izana, eta soñujole, zer esanik ez. Zeruan ikus dezagula. Bigarren maisua, Jose Mari Paskualtxo, kirolari aundia. Lenbizi, segalari izugarria ezagutu genduan, eta geroxeago arri jasotzen, eta idi-probak jokatzen ere bai. Nola segalari aundia zan, sega zorrozten ere ona; eta, leen esaten nuan bezela, oiek Jose Aierberen bi laguntzalle famatuak izan ziran.

Nik eraman nituanak ere etziran edozein. Lenbizi, Bernardo Irastortza, Irungo Bentetan bizitzen dana, segan txapeldun izandakoa. Bigarren, Inazio Arregi, Irurakoa. Sega pikatzen eta sega zorrozten ez dakit ura bezelako asko izango ziranik.

Bi gizon auek aitatzean, ez dakit zer pentsakizun etortzen zaizkitan burura. Zenbat lan egin zuten neri laguntzen, batek bezela besteak! Bi gizon oien laguntza ondo pagatu bear izan banu, naiz apustua irabazi zorrak egin bearko nituan.

Irugarrena ere aitatu bearra daukat: Tolosa ondoko Anoetan bizitzen zan Ipintza zana. Sega-erremintak preparamatzen nola saiatzen zan! Tartean apusturen bat baldin bazan, zer enpeño! Ura ere tarteko erabili genduan. Ipintza zana il zala denbora asko da: urte batzuk.

Inazio Arregi il dala orain dala denbora gutxi enteratu naiz, eta lotsetan nago bere familia bisitatzeko. Zein izan dan Inazio Arregi nerekin, ez dago esaterik. Ez pentsa emen bukatzen dala gizon onen istoria.

Nerekin erabilitako komeriak geroago kontatuko ditut beste batzuk. Zeruan alkartuko al gera gizon auekin berriro, emen pasatakoak berrituz!

Leen aitatzen nuan bezela, Jose Aierberen sega eta korrikako apustua or bukatu zan, Jauregin, apustu gogo-

rra jokatuta. Segan geixeago zan, baña korrika lan aundia zegoan eta, bost kilometro egiterako, artu nuan aurea eta ala joan zan.

Egun artan gustora giñan, alako apustua irabazita. Etzuan asko serbitu. Ekarri zituan buruaustek eta desgustoak.



Iruntxiberri Hernaniko Jauregi-etxeatzean, 1971eko abuztuaren 22an, Jose Aierberekin segan eta korrika egindako apustuan, sarrerara iristeko unean.



Iruntxiberri Hernaniko Jauregi-etxeatzean,  
1971eko abuztuaren 22an, Jose Aierberekin segan eta korrika  
egindako apustuan.

# Jokatu gabeko bi apustu

---

**L**een aitatu ditut gizon famatuak, bat segan erakusteko leta bestea sega zorrozteko. Orain datoz beste bi gizon, oso ezagunak; bat, Jauregiko belazeko nagusia, Sotero zana; eta bestea, Joseba Zuloaga, prentsan, *El Diario Vasco*-n eskribitzen zuana.

Apustua egin zanetik itzegin genduan nola joan bear zuan organizazioa Jauregiko nagusiarekin. Belazea edo *campa* ez baidute nolana ematen.

–Bueno –esan zigun–, nik organizazioa eramango det; eta Josebak propaganda. Apustua jokutzen danean, lenbizi gastuak; eta libre gelditzen dan dirua, iru puska egingo degu: bi kirolari, apustua jokutzen dezutenak, eta ni, belazeko nagusia.

Konforme, leenbizi *campa* utzi eta gero organizatzen ere lan asko izaten da eta. Danak bere gain artu zituan, eta ondo eraman ere. Lan asko egin zuan; ondo preparatu zuan. Alde ortatik ez genduan itz txiki bat ere esateko biderik.

Apustua pasa da. Garai artan, legez kanpo aziendatik etortzen ziran diru kentzera. Federazioko izena zeramakitenak eta abar euneko ogei ta bost entradatik kentzen zuten. Orain bezelaxe, juezak aparte kobratzen zuten. Olako gastu dala eta ez dala, orrenbestekoxe diru kentzen etortzen ziranak mantenduta, azkenerako zer kirolarientzako, iru puska eginda?

Oiek danak ikusita, Zuloagak kontuak egiten ez dakit deskuidoa izan zuan. Ainbeste diru eman eta bosteun

pezetaren diferentzia atera omen zuan. Federaziotik, bai Soterok, bai Aierbek, bai Iruntxiberrik, karta bana artu genduan.

Ni joan nintzan Soterorengana eta esan zidan Jose Zuloagak esan ziola ez kasorik egiteko: leen ere bazuala naiko diru eramana.

Bueno, ni ixilik gelditu nintzan, baña kalte egin nai duanak billatzen du nun egin lezaken.

Momentu ortan ni preparatuta nengoan, eta bi kontrario etorri jokoak egin naian. Bat, Oiartzungo *Misiyua*, leen ere segan jokaturako mutil fuerte bat, oso kirolari gogorra, estropadak jokatzen ere asko ibilia. Ala, neri jokatzeo konforme zegoala, ni ez nengoan atzera egiteko.

Ala, lotu giñan beste apustua jokatzeo, Jose Aierberekin jarritako kondizio berberetan: millana metro belar ebaki eta amar kilometro korritu, leen jokatu genduan lekuan, bibelarrean alegia, batere erakuslerik gabe, nor bere abilidadez, Iraillan. Bestea, Aierberen kontra Urri-llan. Ura zan gustoa!

Bi apustu oso onak ikusten nituan. Leengo apustutik asko mejoratuta nengoan. Segan milla metro laster pasatzen nituan, nere inguruan zebiltzanak arrituta.

Etzuan asko balio izan nere ilusioak, eta nere izardiak, eta nere gastuak edo gastatu nituan diruak; ainbeste denboran, ainbeste lan...

Allegatu da oiartzuarrarekin jokatzeo eguna. Bezperan, arratsaldean, bi aldeetako jendea juntatu giñan Jauregiko etxeaurrean. Bein ere jokatu gabeko lekua genduan, etxetik aurrera dagoan kaskoan.

Ala lanean ari giñala, arratsalde erdi aldera telefonoko deia Federaziotik: urrengo egunean apustua jokatzen ez degula lanik; ez digutela ametituko.

Kolpe ura ez dakit nola pasa genduan. Inork kulpa bazuan, Sotero eta Zuloaga ziran, dana bosteun pezeta-gatik.


Joan giñan Federaziora, gauzak arreglatuko ote ziran. Danak alperrik. Neri iru illabeteko kastigua; Sotero zanari, urtebeteko galerazi sega eta apustuak organizatzea; Zuloagari, gauza asko esan gure aurrean, eta atzetik ezer ez. Nik ez dakit nola utzi nituan pakean klase ortako pertsonak, neri egin zizkidaten kalteak ikusita. Danak pasa giñun eta aurrera al zan moduan.

*Misiyua* eta bere lagunak ere arrituta. «Zer pasatzen da?» esaten zuten. Arrazoiarekin gañera, txakur txiki baten kulparik ez eta, ni bezelaxe, ura ere preparatzen kostatzen eta sufrituta. Aren kalteak ere zeñek pagatu bear zituan?

Aurreko apustuan bezela, jende izugarri espero zan; eta igande artan jendea barra-barra Jauregira kotxetan eta autobusak ederki kargatuta, apustua jokatzeko zalakoan. Bezpera gauean or genbiltzan bueltaka arreglatuko zalakoan, eta etzan izan denborarik anuntziatzeko.

Zer iruditzen zaizu, nik kontu triste auek buruan bueltaka ibili bearra? Ez baitziran aztutzeko modukoak. Ondo buruan geldituta dauzkat. Arantza oiek ez dira ateratzen. Zer jenderen mende ibili bear izan degun! Gauza oietaz akordatzerakoan tristura etortzen zait beti.

Urte ori 1971-garrena zan. Iruntxiberrik bost apustu jokatu eta irabazi, eta beste bi apustu, oso onak, kendu. Urte ortan bi apustu bakarrik irabazi zuanari eman zioten "*mejor deportista del año*" tituloa. Ondo entendituko dezute noski; naiko argi dago. Ez pentsa onekin bukatzen dirala neri egin zizkidaten martirioak. Geroago edo aurreraxe-ago etorriko da beste itxuskeria.



Tolosako zezen-plazan, 1974ko urriaren 6an,  
Jose Migel Maiz eta Iruntxiberri.

# Beti aurrera

---

**O**raindik aurrera segitu nion kirol munduari, naiz etsai asko inguruan eduki eta naiz kirol edo deporte egi-teko gogoia kendu. Ni etsi-gaiztoa izan; burrukalaria. Ez da erreza sinisten neri egin dizkidatenak egin eta ala ere beti aurrera. Jesukristok Kalbario mendian gurutzearekin egin zuana: naiz erori, altxa eta segi, goiko mendi puntara arte, eta an bizia kendu. Ortik ikusi bear da jende txarra-ren eskuetan ibiltzea zer dan.

Pasa ziran kastigu denborak eta berriro zerbait egitea-gatik, apustu txar bat lotu zidaten, Jose Aierberen kontra. Aizkoran eta korrika, Tolosako zezen-plazan jokatu gen-duan, Martxoaren 3-an, 1972-an.

Jokoa egiteko momentuan neu ez nengoan presente eta oso ondo aprobe txatu zuten. Gaizki egindako jokoa irabazten zailla izaten da. Irurogei ontzako edo 1'40-ko tronkoa moztu eta zortzi kilometro korritu.

Apustu orrek gutxienez bear zuan egurra nere esku; ala ere, galdu egin bearko nuan igoal, Aierbe nola aiz-kolari aundia izan dan, eta nere ondoan zer esanik ez. Ba, jokoa egiteko denboran, soka-muturra bere esku artu zuan, eta orrek zer esan nai du? Tronkoa edo egurra, nai zuten bezelakoa ekarri eta plazan jarri. Dana berak bakarrik.

Nere laguntzallea ere nere kontra joan zan, ni konturatu-ko ez nintzalakoan. Galdu bearra izan nuan, beraz. Orrela izaten da apustua. Beti batek galdu bear izaten du, besteak irabazteko.



Paseak pasa, apustu kaskar ori joan zan eta aurrera segitu nion, pixkanaka preparatzen edo entrenatzen, ea zerbait leengoa baño ohea sortzen zan.

Urrengo apustua bikotearen kontra izan zan: Agustin Argiñarena, eta Esteban Agirrezabala, Bedaiokoa. Len ere jokatu nuan gizon onen kontra Azpeitiko plazan, zortzi kilometroan, buelta bentaja emanda. Irabazi nion.

Orain datorrena, berarekin pareja egiten duana, korrikalari bizkorra da, Napparroako Errazkingoa. Betelun bizi dala urte mordoa da. Urte asko dira alkar ezagutzen degula. Ni bezela, nerbioa eta bizi amorratua. Nik ondo ezagutu det zer korrikalari izan dan, askotan alkarrekin korritu degu eta. Bera preparatzen ere ez naiz lagundu gabea.

Ni irurogei ta bat urte eginda nago, eta Agiñarenak berrogei ta amabost izango ditu, eta ez da korrika gelditzen. Konturatu da orain ni baño geixego dala, eta animo orrekin aixa ibiltzen da. Askotan esan dit aurrez aurre:

–Zuek bezela preparatu izan banintz, len ere ikusiko giñen.

Nik danak ondo artzen dizkiot. Batez ere parejatan edo releboan ondo ibili izan zan. Nik emen istori asko dauzkat gai ortaz.

Leen aitatu detan bezela, lenbizikoa Esteban Agirrezabala eta Agustin Argiñarenaren kontra Azpeitiko zezen-plazan jokatu genduan, amabi kilometrotara, pareja edo bikotea kilometrotik kilometrora releboa egiñez edo ganbiatuz zirala, eun ta ogei itzuli. Ni bakarrik asi eta bukatu. Ez pentsa berdiña danik bikotea gisa ortan ganbiatuz dala, eta Argiñarena tartean dala edo zala.

Ekainaren 11-n, 1972-an, eguerdiko amabietan jokatu genduan, Azpeitiko zezen-plazan. Egun ortan, lo oso ondo eginda, oso ondo esnatu nintzan. Begiratu nuan

kalera eta ura eguraldia! Nere buruarekin oso gustora, eta etorri da plazara sartzeko garaia.

Ala, sartu naiz eta eman diot bueltatxo bat ikusteko zer kondiziotan zegoan uztai ingurua, eta nik oso gutxitan arrapatu nuan alako giroa, bai gañetik eta bai azpitik. Neri askotan tokatu zait lokatzetan korritzea.

Ala, egun ortan kondizio oiek orrela ikusi nituanean, eta neu oso ondo nengoala, nere buruarekin pentsatu nuan: «Gaur marka egitera joan bear dit!».

Nere sozio lagun bat neukan plaza-eskiñan, eta esaten diot:

–Aizu: gaur oso ondo nago, eta al dan guzia edo amabi kilometroko marka borratzea gustatuko litzaidake.

Beraren erantzuna:

–Iruntxiberri, ixilik egon adi. Etzak olakorik esan. Gaur bikote orri irabazteko ez dek marka egin bearrik izango, eta naikoa dek apustua irabaztea.

Lagun arek esandakoa egin nuan. Oso gustora korritzen nembillela, aldian bein asten nintzan tiratzen, eta esaten zidan:

–I lasai, lasai!

Ala ibilita, ia bost buelta kendu nizkien: 1' 41" diferentzia. Parejaren edo bikotearen lana edo marka: 41' 32"; nere marka: 39' 51".

Naiz apustu polita izan zan eta naiz irabazi, egun artako pena etzait aztuko nere bizitzan. Gañerako jendeak edo kirola zer dan ez dakian jendeak ez du konprenditzen.

Askok uste dute edozein egunetan eta edozein moduz egiten dirala markak. Aizkolari batek, marka egiteko, egur egokia bear du, eta ez da nun-nai eta nai dan guzian arkitzen.

Korrikalari batek, lenbizi norberak ondo prestatu bear du, kirolari guziak bezela, marka egiteko. Bigarren, korritzeko lekua ea nola dagoan. Garai bateko pistetan ondaretan korritu ala gaurko pistak nola dauden ba al dakizu?

Ortik aparte, tenperatura ere oso inportantea. Garai batean ere, egunen batean pista ona arkituko zenduan, ondo arreglatzen zutenean edo eguraldiaren goraberan. Urrengo aldian, berriz, lokatzetan. Ala gertatzen zanean, zer?

Gaurko pistetan, edo atletismoko kanpo oietan, naiz euria egin, ez da lokatza egin bildurrik. Len aitutzen nuan bezela, Azpeitiko zezen-plazan askotan korritu det ala: lokatzetan. Baña utzi dezaiedan kanpo atletiko edo pista oiei pakean.

Nik ikusi ditut plazetako komeri batzuk. Nik askotan korritu det, bai Azpeitin eta bai Tolosan, eun edo eun da ogei buelta emateko. Zirkuitoa nola prestatuta dagoan, eun metroko uztaia, izugarritzko aldea dago.

Nere koñaduak, Mariano Harok, Tolosako zezen-plazan korritu zuan amar kilometro. Eguna: 1977-ko Ilbeltzaren 6-a. Ala, marka Tolosan egindakoa dago: 29' 51" edo 52". Momentu ontan ez nago seguru. Izan leike segundo baten edo biren aldea.

Egun ortan nik ez nuan ikusi nola zegoan Tolosan plazako uztaia. Bakarrik dakit oso giro legorra, otza eta aizerik gabea zala. Suabea marka egiteko. Oso inportantea da, korrika egiteko, aizerik ez dedilla izan. Geroztik or ibili dira Haroren marka borratu naian, estranjeritik beltzak edo zuriak ekarrita. Baña alperrik, Oraindik borratu gabe dago.

Azpeitin ni arritu nintzana au zan: zezen-plaza nola preparatzen zuten. Suerteza ere izan zuten gañeko giroare-

kin. Eguraldi legorra. Baña lana nola egin zuten! Uztaia zer kondiziotan zegoan! Ondar izpirik gabe edo sueloa batere mugitzen etzala. Gaurko pistetan bezela, zapatillak iltze txikiekin. Eun buelta eman arren, etzan arrasto txiki bat ere ikusten.

Ortaz aparte, Haroren marka ez dago Azpeitin egiña, Tolosan baizik. Ondo izateko, leku berean borratu bear da. Egin zuan marka berezi ori, urte askotan or dago. Iru aldiz intentatu zuten Azpeitin ori ontzen. Seguru-seguru ez nago, baña uste det iru aldiz.

Berriro laster naiz Azpeitiko plazan.



Tolosako zezen-plazan, 1967ko San Jose egunean,  
Jose Maria Aguirrezabala Iruntxiberriren kontra jokatutako apustuan.

# Jose Maria Agirrezabala eta bi napar

---

**B**este apustu kaskar bat Tolosan jokatu nuan, Urriaren 29-an, 1972 urtean, Txaramako Jose Maria Agirrezabalaren kontra, zortzi kilometro. Bi buelta bentaja eman nion.

Len bagenduan apustu gogorra jokatua biok Tolosan, zortzi kilometroan, nik buelta bat bentaja emanda. Orduan lan asko egin bear izan nuan irabazteko.

Oraingo ontan, naiz bi bueltaren aldea izan, naiz bi buelta gutxiago egin bear zituan, ez nuan prolema aundirik izan. Ezin izan zuan. Zerbait anketik miña jarri ta erretiratu egin zan. Nik egin nuan marka: 26' 06".

Apustu ori pasa zan eta berriz ere pixka bat edo bastante utzia neukan nere korrika. Ez nuan iñor ikusten apustua egiteko. Nere lanari segitu bear.

Ala, pasa da 1972-ko urtea, eta bai 1973-koa etorri ere. Otsaillaren aurrenean or presentatu zaizkit bi napar:

–Korrika-apustua egin bear diagu –esanez.

Bat ezagutzen nuan bastante, baña bestea ez: Agustin Argiñarena eta Arruizko Barberia.

Len komentatu nuan berriro laster naizela Azpeiti aldera. Len jokatu nuan Argiñarena eta Esteban Bedaioren kontra, amabi kilometrotara, kilometrotik kilometrorra kanbiatuz.

Oraingo ontan kontuak ondo aterata etorri zaizkit bi napar auek:

–Bosteun metrotatik kanbiatuz jokatuko diagu –esan zidan Argiñarenak–. Orduan ikusiko diagu nola ibiltzen aizeken.

Bere laguna, Txikito Arruitz zanaren lengusua, Jose Inazio Barberia, oso mutil gogorra eta indartsua atera zan.

Bien artean preparatuta zeukaten zepoa. Nik ere, pixka bat nastu ta zer egiten ez nekiala, seireun metrotik edo sei bueltatik kanbiatuaz edo releboa egiten dutela esan diet; eta segituan konforme, amabi kilometrotara jokatzeko.

Alaxe egin genduan edo lotu giñan. Azpeitiko zezen-plazan, an arrapatu niñun zezenak ederki. Askotan joaten danak peligro geiago eukitzen du deskuidatzeko.

Martxoaren 18-an, 1973 urtean, Azpeitiko plazan, jaia-arratsaldez jokatu genduan. Euria egiten zuan. Naiz eguraldi txarra izan, jende asko bildu zan. Ni bezelaxe, publikoa asko deskuidatu zan. Dirua nere alde. Nere aita zanak onela esan zidan, ordubete falta zala korrika-apus-tua asterako:

–Ik ondo segitzen badek, bietatik edo bietakoren batek fallatuko dik.

Neuk ere ala pentsatzen nuan. Ori dana, neuk nekiala ez nengoala punta-puntan preparatuta. Geiegi fiatu nintzan. Asi ta bereala konturatu nintzan:

–Ez diat gauza onik.

Nik nere martxan bat sujetatzen nuan; baña bestea sube gorria bezela saltatzen zan, eta ari, Agustiñi, zeñek aguantatu? Sei bueltatik kanbiatzea bentaja aundia izaten da, Argiñarena bezelako korrikalari bat tartean dala.

Gañera, plaza motela edo lokatza, zerbait okerra izan nuan. Anketatik kejatzen asi nintzan. Anpollaren bat edo beste atera eta miña artzen nuala, esan nion nere buruari:

–Au joan dek!

Besteak konturatu ziran nola nenbillen errueda pintatuarekin, nere burua ezin eramanez.

Ala ere, lana bukatu gabe ez nuan utzi. Amabi kilometro, lokatzetan, 40 minutu eta 15 segundotan egin nituan. Bikoteak, 39 minutu eta 34 segundo. Ibili nintzan bezela ibilita, berrogei ta bat segundoko aldea kendu zidaten.

Len esaten nuan, orrialde batzuk lenago, nola izaten dan orain esatera noana. Igoal da ura pasa ta gero asi presa egiten, epoka dan garaian ez bada egiten. Alperrik izaten da erbiari segika korrika astea. Ni ere olako deskuidoak izanda nago.

Bi naparrak, bai Barberia ta bai Argiñarena, aiek saltoak Azpeitiko plazatik ateratzean! An zeukan bere Renault zuri bat, eta jartzen du radio kasetean alako soñu trikitixa alai bat, eta aupa egiñez martxatu ziran plaza ondotik.

Ni an gelditu nintzan begira, erdi negarrez. Jende geiagok ere ikusi zuten programa ura, nola martxatu ziran naparrak.

Eta oso ondo egin zuten. Beti batek irabaztekotan, ez dago zer egiñik. Txandaka bear dira tristurak eta pozak. Arantzarik ez dagoan lekuan ez da larrosarik ateratzen.

Ba nik ere beti izan ditut kontrarioak eta lagun aundiak. Bai orduan ere. Len esaten nuan nola gelditu nintzan Azpeitiko plaza ondoan triste. Lagun aundi bat juntatu zan neregana.

Ez edozein: Ernanioko Jauregiko Sotero zana. Amaika ibili egiten genduan alkarrekin. Gizon ura etzait aztuko



nere bizitzan. Zeruan deskantsa dedilla, beste asko bezelaxe.

Len esaten asi naiz momentu artan nola arrimatu zan neregana, eta esan zidan:

–Leon, ez apuratu. Biar San Jose eguna da eta apaltze-ra joan bear degu. Ez noranai ere.

Arek txoko guziak ezagutzen zituan, nik baño obekia-go. Esan zidan:

–Goazen Getarira. Oso jantoki ona ezagutzen det.

Bai ederki apaldu ere. Olako deskuidoak edo tristurak diranean, zerbaiten bearra izaten da. Etxera etorri ta andrearen bullak baño ohea izaten da ondo apaltzea. Ondo apalduta bazatoz, bullaka asten bada ere errezago pasako dezu.

Ortan uztera noa Azpeitiko apustu ondorena, eta berriro ere aurrera segitu bearra dago.

## Bi biren kontra

---

**O**rain, berriz, beste apustu bat dator, bi biren kontra.

Alde batetik, Agustin Argiñarena eta Esteban Agirrezabalak pareja osatzen zuten. Oien kontra beste pareja: Ataungo Jose Aierbe eta Iruntxiberri, emen idazten ari dan au.

Apustu ori Tolosako zezen-plazan jokatu genduan, Abuztuaren 26-an, 1973 urtean, jai-arratsalde, amar kilometrotara, bakoitzak asi aldiko kilometrotik kilometrora txanda edo releboa egiñez.


Oso apustu polita izan zan. Bi aldeetatik pelea baizegoan. Aierbek eta nik irabazi genduan; baña Agustin Argiñarenak ere egin zituan bote ederrak.

Pareja arek, naiz galdu, egin zuan lana: 31 minutu eta 36 segundo. Aierbek eta Iruntxiberrik: 31 minutu eta 5 segundo. Diferentzia: 31 segundo.

Jeneralean, bi-bitako apustuak, naiz korrika, naiz aizkoran, ikusteko grazi geiago izaten du. Lana biziago egi ten baida. Arrankada politagoak. Gaur ez dago olako apusturik.

Garai edo epoka ortan, nerekin danak su artzen zuten. Ni ere, beti edo askotan, sua nundik piztuko ibiltzen nintzan, ez bainengoan geldirik egoten.

Oso urte mobimentu aundikoa izan nuan. Ez nuan geldirik egoteko denborarik izan.



Iruntxiberri eta Juan Jose Irazusta, Tolosako zezen-plazan,  
1973ko urriaren 21ean.

# Juan Jose Irazusta

---

**B**este apustu bat jokatzeko lotuta geunden. Bost illabete pasa, jokia edo kontrato-papela egin genduanetik jokatzera. Oso famatua izan zan orain datorren apustua.

Asteasuko Juan Jose Irazusta famatua eta biok, denbora askoan edo urtetan geunden alkarri jokatzeko, eta noiz-bait lotu giñan, ez berealakoan.

Apirillaren 30-ean juntatu giñan Tolosako *Bar Cantábrico*-n. An mintzatu edo solastu giñan, edo peleatu, jokia zerratzeko. Ogeina milla duro jokatu ziran alde bakoitzetik joko artan. Alaxe kontrato-papela egin zan: Tolosako zezen-plazan jokatzeko, amar kilometrotara. Urriaren 7-a jokatzeko fetxa zan, naiz gero atzerapena izan.

Amabost egun atzeratu zuan jokia Irazustak, eta Urriaren 21-ean, 1973-an, jokatu genduan.

Eguraldi dotorea izan zan. Obe nuke orduko sasoia edo orduko korrikarako gosea baneuka. Ura zan preparatuta egotea. Artean txoria kaiolatik atera gabe neukan, artean abilidadea erakutsi gabea alegia, edo libre utzi gabe plazan.

Apustua jokatu baño illabete bat edo bi lenagotik, nai zan aña diru jokutzen zan. Iruntxiberrik ogei ta amairu minututan egin ezetzean korredoreak dirua.

Minututako diruak arrisku aundia du alde z aurretik jokatzeko. Ez baidakizu zer giro egingo duan. Ez dakizu zeu zer nolatan arkituko zeran azkeneko orduan. Milla kaso daude erlojuaren kontra.

Alaz ta guztiaz ere, bein ere ez degu orduan bezela dirua jokatu minututara: ogei ta amairuan baietz. Jokoko ogei milla duro etzan ezer ere. Diru geiago jokatu genduan minututara.

Fetxa etorri zanean, pozak txoratzen nengoala, jokoaren atzerapena eskatu zuan Irazustak, eta ura arrabia! Beste bi astean nere burua zuzen eramaten lanak.

Alaxe, ondo pasa zan, eta etorri da berriz ere fetxa. Apustua irabazteak etzidan apururik ematen. Banekian neri etzidala segituko egun artan. Berak ere konturatu ziran, minututara diru asko jokatzen ari zala eta etzeukala zer egiñik.

Bein irteera eman zidatenean, gustora asi nintzan lanean. Martxa bat artu ta segi bukatu arte. Arrapatu ta pasa ta segi. Ez nuan sentitzen. Batere premirik gabe, ogei ta amairu minutuan egin bearrean, ogei ta amabian egin nuan, minutu bat azpiagotik.

Irazustak: 34' 19". Berak ere ez pentsa gaizki korritu zuanik. Oso ritmo berdiñean, kilometrotik kilometrora bi minutu eta iru segundoz danak. Nere ume denboran etzan edozein izaten, denbora ortan egiteko.

Asteasuko erriak kirolari asko izan ditu, famatuak eta onak. Ez da erreza danak aitatzea. Beti izan dira. Segamunduan zer esan leike? Bestea, plomoa dabillen lekuan karga jasotzea esan bearra dago. Ez arri jasotzea, arri utsarekin egiten bada. Ortan ere karga-jasotzalle onak badira. Korrika ere uste det Asteasuk izan duala bere istoria.

Asteasuk izan dituan kirolari edo deportistak, danak izenez aitzeko eta beren lekuetan jartzeko, liburua bete leike. Ni emen asi baten izena aotan artuta bueltak ematen, eta anka sartzea egin nezake. Batzuk aitatu eta besteak ixilik utzi. Obe det ontan uztea eta nere saltsarekin segitu.

Len aitatzen nuan Irazusta Olarreack korrikan martxa polita erabili zuala Tolosako plazan. Au esan bearra daukat. Kirolari edo deportista bat konturatu da edo ikusten du: "Gaur etzeukat apustua irabazterik". Eta ala ere jokatu egin bear, ainbeste diru botata dagoan garaian.

Publikoaren aurrean zer tristea izaten dan amar kilometro *dale* eta *dale*. Zuk uste dezu gorputzak berdin ematen duala. Len esaten nuan bezela, naikoa da bere buruari esatea "Gaur apustua etzeukat irabazterik", dana lotuta gelditzeko ta kito, apustua ezin irabazi duala ikusiarekin. Ez bazera lanean gustora ari, ez bazera lasaitzen, eta ez badiozu zere gorputzari laguntzen, *adios!*

Neri joan dan urtean, irurogei urteko markan, pasa zitzaidana. Ura zan gaizki korritzea. Ez dit akordatzeak ere onik egiten, eta aurrera segi bear ko.

Tolosako Irazustaren apustua pasa ta urrengo eguna astelena. Zelebrazioa Errezilko *Lete* jatetxean genduan aparria. An juntatu giñan lagun-koadrilla; eta, apaldu eta tertuli eder, antxe ederki pasa genduan.

Aurrera begiratu ta etzan apustu bat egiteko biderik ikusten, eta aspaldian aitatzen zan marka bat: Zarautz-Aia; eta nik buruan eukitzen nuan erretiratzerako egin bearra nengoala.



Ondarreta-Mendizorrotz, 1963ko azaroaren 17an.  
Goien: Iruntxiberri apustua bukatutakoan.  
Beetan: Juan Ugarte "Txantxon" korrika.

## Zarautz-Aia

---

**G**au artan, pixka bat berotu nintzan. Ardo pixka bat geixeago eta koparen bat ere artuko nuan seguru asko, naiz orain ez naizen oroitzen. Bakarrik oroitzen naiz nola mintzatu nintzan koadrillatik apartatzerako:

-Zarautzik Aiara marka ori intentatzera joan bear det datorren igandean zortzi.

Tolosan, 1973-ko Urriaren 21-ean, jokatu nuan, eta Azaroaren 4-an bestea, oso egun gutxiren tartearekin.

Garai batean, oso leku famatua, korrika apustu asko jokatzen ziran lekua, Zarautzik Aiara zan. Bide ortan urte askoan egon zan marka, Errotazar oso korrikalari famatuarena zan: 42' 12", eta nik korritu nuan egun ortan nere atzetik ekarri zuten kotxean, eta Aiako plazan zoriondu zidan.

Zarautzen, eguerdiko amabietan, irteera eman zidaten, millaka jenderen tartean. Baña izan genduan deskuido txiki bat. Askok bazekiten, baña ixilik pasa zuten. Federazioko gizonak ere ez jakin eta ogei ta amar edo berrogei metro atzerago irteera eman zidaten.

Basarri jaunari esker. Lengoak ere ikusia izan nundik ateratzen ziran, eta neri irteera emateko momentuan ikusi nundik eman zidaten. Nere atzetik etortzeko kotxean zegoan Basarri, eta ezer esaten asteko beranduegi.

Egun artan, Aian, Basarrik nerekin bazkaldu zuan, eta bazkaldondoan maian esan zidan nere irteera atzeragotik izan zala egun artan: metro batzuen aldea.



Baña txarragoa izan zan egoaizea. Naparrak esaten dute *aizeegoa*. Forma batean esan edo bestean igoal da. Ederki sufritu arazi zidan.

Irteera bizia eman nuan. Aurreneko kilometroa azkar egin nuan. San Pelaioko rekta pasa eta betik gora asi nintzanean. laster konturatu nintzan egoaizea aoko zuloan bete-betean nuala. Aoa, dana sekatuta.

Laurgaingo aldapan kasik, aurrera egin bearrean, atzera egiten nuan. Oso gaizki igo nintzan. Korrikarako, aizea da kontrariorik txarrenetako bat. Egun artan izan banintzan Billabonatik Aiara, Andazarratetik Aiarakoa laster egingo nuan. Edo Aiatik Zarautz. Aizea atzetik nere fabore, alegia. Ba, nik *al contrario* izan nuan egun artan.

Millaka jende Zarautzen asita, eta Aian sartzerik etzaila. Korredoreak olako kanta:

–*¡En 37 a que sí!*

Lagun guziak diru jokutzen. Ni bezperan edo lenago konturatu nintzan: eguna joan da etorri, egoaizea zebillen, eta berotu egiten zuan. Nik banekian, eguraldiak kanbiorik ez bazuan, ez neukala egin bear nuanik egiterik.

Zer egin? Propaganda izugarria zegoan edo organizatu zan egun ortarako, eta ezin atzera utzi edozein moduz. Nik lagunei esan nien, naiz nere burua ondo ikusten nuan:

–Temperatura dagoan bezela, ez dago egiterik egin bear nukena, eta aldeko ere.

Alaxe, etorri da jai-goiza, eta lenbizi Aiara joan nintzan, zer giro zegoan ikustera.

Gizonen batek edo bestek, eta Azpiroz jaunak, Aiako korrikalari famatuak, esan omen zuten:

–Gaur, eguraldi onekin, ez da etorriko berak nai duan bezela.

Beste askok ez konprenditzen. Len esaten edo komentatzen nuan nere lagunei eta etxekoei nola esaten ari nintzan:

–Eguraldi onekin ez dago etortzerik. Ez dirurik jokatu!

Danak alperrik izan ziran. Nik baño aixago korritzen zuten. Goiz artako nere kezka uraxe zan, bai Zarautzen, bai Aian, millaka jenderen tartean.

*Korredoreak* ez dakit askok entendituko dezuten zer diran. Frontoietan eta apustu-plazetan diru jokatzeko edo txartelak egiten aritzen dira baten alde eta kontra. Oiei *korredoreak* esaten zaie. Oiek, publikoak nola eskatzen dien, ala egiten dute oi.

Ni beroketak egiten nembillela Zarautzen, salida eman bear zidaten gertuan, ala entzuten nuan:

–Ogei ta amazazpi ta erdian baietz!

Ala, Aiako taberna batera deitu genduan ea nola ari ziran apustuak; eta ala erantzun zigun:

–Ogei ta amazazpian eta ogei ta amazazpi ta erdian, nai dan guzia jartzen dute baiezkoan.

Nik nere buruari «Au nola liteke?» esaten nion. Eta alboan zegoan entrenadore eta nere anairen bati:

–Bakarren batek esan lezake: «Onek tongo egingo zin».

Egin bear bai, listoa izan banintza. Zaku bat bete diru bildu zeikean, ortarako preparatu banintza. Nik bildu bearrean, egoaizeak eraman izango zuan nere partez. Bide guzian gogor jo zidan kontra.

Nik neukan ilusioa, len zegoan markari al zan guzia kentzea eta al zan markarik onena jartzea zan. Naiz dirua eskuan ikusi, ni nola joango nintzan, ba, nere buruaren kontra dirua jokatzeraz?

Bestela ere banuan naiko kezka, ala ez neukala ondo gelditzerik ikusita. Bide guzian kezka ori, edo orrekin igo nintzan, naiko gaizki.

Plaza barrura ia itoan, arnasa artu eziñik. Izkialde gañetik bukaerara, jende tartean pasatzen ere naiko kome-ri izan zan. Ala, bukaera aiuntamentuko sarreran. Laster atera eta jo nuan jende tartetik, naiz kostea, arnasa artzeko leku billa.

Artean ez nekian zer-nolatan iritxia nintzan. Ezeren kontrolik gabe igo bainintzan. Ni bildurrez zer lotsagarri-keri egin ote nuan edo zer entzungo ote nuan. Ala, anai bat juntatu zait, eta ala esan zidan lendabiziko itza:

-Zer egin dek, motell?

-Zer ba? Olain gaizki?

Poliki-poliki esan zidan:

-Orrenbestean.

Nik kontestatu nion:

-Zer nai dezute? Ondo esandakorik ez dezute entzu-ten edo konprenditzen.

Bai etxeoak, eta beste lagun bat ere banuan, nere inguruan ibiltzen zana, diru asko galdu zuala esanez neri. Ura arrabia eman zidan! Lendabizi esandakoa ez entzute-ko, bera nun zegoan: eguraldi arekin prakasoa neukala?

Alaz ta guztiz ere, lengo marka 42' 12" zan; eta Iruntxiberrik egin zuana, Azaroaren 4-an, 1973-an, 38' 36". Beraz, lengo markari kentzen dizkiot edo mejoratzen det iru minutu ta ogei ta amasei segundoz.

Geroztik, orain dala urte gutxi, ez naiz akordatzan zer fetxa eta zein urte; bakarrik akordatzan naiz udaberria zala eta eguraldi beltz-beltza zegoala, eta sirimiri pixka bat asten zuala, karrera popularra jende askok korritu

zuala, eta irabazlea Martin Fis izan zala; eta bigarren, Pello Garin uste det.

Aian oien datuak garbi eukiko dituzte: fetxak eta denborak. Nik bakarrik dakit aurreneko biak nere denboraren azpitik sartu zirala. Garin, sobre aundirik gabe.

Baña gauza bat esan bearra daukat: nik korritu nuane-tik oiek korritu zutenerako, kamio igoala etzala. Suigaña-ko krutzera allegatzerako reforma, metro dezente kendu-ta. Orbelango bueltan ere metro batzuk gutxiago. Andik gora ere, beste kurba bat ere moztu zuten. Erreiztara baño len dagoan bajada ere altxa zuten. Orduan zulo dezentea zan. Esan nai nuke gaur bastante metro gutxiago daudela, tenperatura aldetik geiago esan gabe.

Ez det esan nai ni oiek baño ohea izan naizenik. Danok badakigu zein dan Martin Fis: mundialekin parejatuta dabil. Eta Garin bi anaiak, Juan Mari eta Pello ere, ez pen-tsa edozein izan diranik; eta ez dakit oraindik ere ez ote duten korritzen. Ez dira sasoiak galdutakoak.

Bueno, bukatu det Zarautz-Aiako istoria.



Tolosako Berazubin, 1974ko apirillaren 14an.

Goien ezkerretik: Jose Maria Tapia, Ésteban Agirrezabala, Luis Garcia, Jose Miguel Irazu, Iruntxiberri, Juan Jose Irazusta eta Agustin Argiñarena.

Beean: Iruntxiberri aurretik, korrika guzian bezela, Irazuk azken metroan pasa zion arte.

## Tolosako Berazubin berriz ere

---

**M**omentu artan, nere korrikako istoria bukatutzat bezela jo nuan, ez nualako inor ikusten, aurrera begiratuta. Alaxe, utzi nion eta nere lanetan segitzea pentsatu. Nik ori askotan egin nuan, etzegoalako segidarik.

Ez da *amateur* korritzen dutenak bezela. Urte guzian eukitzen dute beren konpromisoa. Udaberrian asten dira kanpo-atletismoko pistetan karrerak egiten. Udara guzian eukitzen dute beren konpromisoa. Udara bukatzen danean, deskantsu pixka bat egin da udazkenean sartzen dira *campo a través*-ko tenporadan.

Ondo preparatzeko orrela bear du. Neguan indar aundia artzen dute, lokatzetan eta abar, fondoa egiteko; eta udaran, aldrebes: belozidadea artzen dute.

Nere asuntua oso diferentea zan; igoal urtebete edo geiago, nola apusturik etzegoan, zere burua abandonatzen zenduan; eta, berriz zerbait azaltzen bazan, berriro, oñez ikasten bezela, poliki-poliki asi bear zan.

Ez bada eten gabe ibiltzen, korrikalariak azkar galtzen du. Zaiñak ez dira egun batean jartzen. Azken urte auetan ederki probatu det: ainbeste urtean korrika utzita egon da gero, ez dakit nola bururatu zitzaidan, ni ibili naizen bezela, berriz korrika astea, eta an tiroia eta emen tiroia. Aurreraxeago kontatuko ditut obeto azkeneko prakasoak.

Berriro eltzera noa zer komeri etorri ziran, ni dana utzita nengoala; eta pentsatu ere ez nuan egiten, baña

bakarren batzuk etziran lo egon. Txapelketa bat montatu zuten uste gabean, esanez:

«Apirillaren 14-an, 1974-an, Tolosako Berazubin, korrikalariak, profesionalak edo profesional izenekoak, amar kilometrotara». Illabete falta zala abisatu zidaten Palentzira.

Bueno, nik galdera bat egin nai det: Euskal Erri ontan aizkolari-txapelketak urtero antolatzen dituzte, Napa-roan edo Bizkaian edo Gipuzkoan edo Araban, fetxa jakifietan. Orduan kirolari bakoitzak badaki noiz zer daukan. Zergatik ez dute egin Euskal Errian korrikalari profesio-nalekin gauza bera?

Lendabiziko, 1966-ko Iraillean, Donostiko Belodromo-an izan ziran klase askotako txapelketak: sokatirak, aizko-lariak binaka, korrikalariak eta abar, bi igandetan, illaren 4-an eta 11-n. Zortzi kilometrotara 4-an, eta amar kilome-trotara 11-n. Ez neukan esan bearrik nik irabazi nituala, len ere jarrita daukatelako.

Zergatik ari naiz buelta auek ematen? Berriro organi-zatu etzalako korrikalarien txapelketarik *hasta el año 68*. Bueno, ez da asko ere bi urte. Jarri zuten 1968-ko maia-tzaren 5-ean. Irugarren txapelketa, apirillaren 14-an, 1974-an.

Beste sei urte oietan zer pasa zan? Edo urtero jartzea geitxo al zan? Edo iñork pentsatzen etzuan garaian erbi-ren bat ateratzea edo saltatzea komeni ez ote zan?

Naiz uste gabean arrapatu, ni etorri egin nintzan parte artzera Tolosako Berazubin. Zazpi korrikalari izan giñan edo korritu genduan.

Euri izugarri bota zuan bezperatik asita, eta egun artan ere etzuan atertzen. Tolosako Berazubi errioa bezela zego-an. Iru puntutan gutxienean putzuan pasatzen giñan.

Garai artan etzegoan gaur bezela. Orduan ondarrezko pista zegoan.

Emango ditut zazpi korrikalarien izenak: Jose Migel Irazu, Asteasu; Luis García, Zarautz; Jose Maria Tapia, Asteasu; Agustin Argiñarena, Errazkin, Naparroa; Esteban Agirrezabala, Bedaio; Leon Albeniz, Iruntxiberri, Aia.

Asteasuko Irazuri fabore polita egin nion, berak igoal ez du pentsatuko baña, lendabizi bezperatik esan bainion:

–Irazu, biar ez daukak kuidadorik. Ni ez netxeok iri irabazteko moduan, eta txapela buruan daukak.

Etorri da garaia zazpi korrikalariak illaran jartzeko arraian. Ni aurreneko momentuan jarri nintzan tiratzen, eta Irazu orpoz orpo. Len ere kartilla orren berri bazekian. Banaka jarri eta galdu egiten baizuan bere martxa. Orrela, ni aurrean tiratzen jarrita, oso ondo joaten zan. Egiten nion ea aurrera pasatzen zan, pixka bat alkarri laguntzeko.

–*¡Por aquí!* –esango zidala pentsatzen det–. Ik segiok or tiratzen!

Alaxe segi bear izandu nuan azkeneko metroak arte. Nik ikusten nuan zer egingo zidan. Sentitzen nuan gasolina bukatzen ari zitzaidala, eta azkeneko metroetan pasa zidan. Irazuk ere zerbait aprobe txatu bear zuan.

Lenbizi, Irazu: 31' 34".

Bigarren, Iruntxiberri: 31' 44".

Irugarren, Luis García: 32' 31".

Laugarren, Jose Maria Tapia: 33' 16".

Bostgarren, Agustin Argiñarena: 33' 23".

Seigarren, Esteban Agirrezabala: 35' 25".


Zazpigarren, Juan Jose Irazusta, Bukatu gabe erretiratu egin zan.



Diru guzia edo apustuko trabes-dirua nere alde. Publikoak uste izaten du edozein moduz izaten dala. Bi aldiz ere orrela arrapatu niñun Irazuk.

Aurreneko txapelketa Belodromoan jokatu nuanean ere, batere preparatu gabe nintzan, eta *por los pelos* irabazi nion Ugarte Txantxoni.

Kirolari bat preparatu gabe dagoan garaian, alperrik izaten da. Askotan plazan dabillen toreroak peligroa eukitzen du zezenak dabiltzan lekuan, eta ni ere orrelaxe arrapatu niñuten.



Jose Migel Maiz eta Iruntxiberri 1974ko urriaren 6an, Tolosako zezen-plazan.

# Jose Migel Maiz

---

Oiek danak pasa ziran; eta ondoren artan nik asko pentsatzen ez nuana, Tolosako txapelketa pasa zanean, segituan entzun nuan Jose Migel Maiz zettorrela neri jokatzera. Laster azaldu zan, esanez:

–Leon, ez gaituk bereala deziditu; baña nik jende asko zeukat atzetik bultzaka, esanez: “Iruntxiberriri jokatu gabe ez diagu gelditu bear”.

–Bueno, nik etzeukat atzeraka alde egiterik. Orrenbeste denboran esperoan egondu nauk zein azalduko; eta orain, naiz eta galdu, jokatu egin bear ko diat. Baña etzegok beste erremediorik. Aurrera egiten saiatu bear ko diat.

Alaxe, juntatu giñan Tolosako *Bar Cantábrico*-n. Zenbat kilometrotara jokatu ez genduan izan buruausterik. Zenbat denbora artu ere ez Maizen aldetik.

Arek jende fuertea zeukan; eta nere aldetik jende pobreagoa. Alde artetik diru asko jokatu nai, eta neri bildurra ematen zidan. Alde artatik milloia jokatzeko jarri ziran; eta nere aldetik, erdia naikoa genduala. Azkenean konformatu ziran milloi erdi bana jokatzera.

Ala ere, garai artarako diru-aldi polita zan, 1974-an. Kontuak atera garai artatik 1999-ra zer salto egin duan diruaren baloreak. Garai artan, milloi erdi batekin etxebizitza polita erosiko zenduan. Gaur joan zaitez. Bizikleta bat ez dago erosterik diru orrekin.

Utzi dezaiodan nere tontakeriari eta segitu egin bear ko aurrera nere apustuarekin. Orrelaxe, egin genduan

kontrato-papela, bastante suabe eta pakean, biak lengusu izanik. Bost illabetera jokatzeke egin genduan, kontrato-papela firmatu genduanetik.

Tolosako zezen-plazan, Urriaren 6-an, 1974-an, eguerdiko amabietan, amar kilometro zeñek azkarrago pasa, kondizio berdiñetan.

Bi lengusuak alkarri jokatu edo ez, denbora asko edo iru edo lau urte pasa ziran, alkarren izketak pasata. Nik, normala dan bezela, bildur aundia neukan edo errespetoa neukan berarengan, ni baño ohea zalako Maiz. Euskal Errian zein izan da Lasarteko Krosa irabazi duana? Eta españoletan ere oso banakak.

Bat, Jose Migel Maiz, bigarren puestoan, 1967 urtean, Mamo Wolde famatuaren atzetik. Zapatilla galdu lokatze-tan, eta anka batean zapatilla eta beste anka batere gabe. Urte artan, nere koñadoak, Harok, etzuan korritu, etzego-alako kondiziotan.

Andik urte betera, 1968-an, Lasarteko *Cross internazio-nalean*, ainbeste ta ainbeste estranjeroren tartean, bi auek izan ziran protagonistak: lenbiziko puestoan, Jose Migel Maiz, aiarra; eta bigarreanean, Mariano Haro, Valladoliden jaioa eta Becerril de Campos-en, Palentziako probintzian bizitzen dana.

Lasarteko *cross* artan izugarrizko pelea jokatu zuten alkarrekin, beste danak eta estranjeroak atzera utzita. Harok pena zuan, nola zegoan Españiko buru, Euskal Errira etorri eta euskaldun batek irabaztea.

Etzan lenbizikoa Maizek irabazi ziola. Ez naiz ziur akordatzen, baña urte bete edo bi lenago izango zan, 1966-an. Bizkaian, Getxoko kanpo batean izan zan *cross* internazionala, Urtarrillaren edo Ilbeltzaren 8-an.

*Gimnástica de Uliá*-ko karrera korritu 6-an, Errege-egunean, eta Harok irabazi; eta andik bi egunera. Getxon, lokatzetan, lenbiziko puestua Jose Migel Maizek, eta bigarren gelditu zan Mariano Haro. Neu antxe nintzan. Garai artan, Españolaiko bi onenak zeuden, diferentzi aundiz.

Len esaten nuan bezela, Lasarteko miña barruan zeukan Harok. Lasarteko *crossa* Ilbeltzaren azkeneko igandez izaten da beti, eta orduan ere bai. Eta gero or etortzen da kanpeonatu edo Españolaiko txapelketa Martxoaren azkenean.

Urte artan, Laredon izan zan, Santanderren. Biak alkar ondo ezagutzen zuten. Bai serio preparatu ere, bat bezela bestea.

Garai artan, alkarrekin ibiltzen giñan Haro ta biok, Ni ere an, Palentzin, bizi bainintzan. Akordatzen naiz Harok txapelketa artarako nola artu zuan bere buruarekin serio, txorakeriak eta tontakeriak alde batera utzita. Bestela bazekian nora zijoan txapela. Harok etzuan artuko sekula txapelketa ura baño serioago.

Palentzi eta inguruetakoko erri koskorretako jendea autobusak kargatuta barra-barra. Alako jendetza! Beste orrenbeste Zarautz eta inguruako jendea, bazekitelako Maiz oso ondo preparatuta zijoala txapela irabaztera.

Alako txapelketarik eta alako borrokarik ez det bein ere ikusi. Asi ta bukatu, biak bakarrik aurreko puntan. Bein bat, bein bestea ikusten zan aurrean. Aldapan, betik gora, Maizek aurrea. Gainbera eta zelaian, aurrera pasatzen zan Haro. Karrera guzia ala eraman zuten azkenera arte.

Oso metro gutxiz irabazi zuan Harok: lenengo, Haro; bigarren, Maiz. Egun artan txapela biak merezi zuten.

Irugarren eta laugarren sartu ziranak, gutxienez bi minutuko alde. Orrek esan nai du bigarren puestotik irugarrenkoa oso urruti zala.

Mariano Haro mundiala izan zan. Arekin borrokan ibili zana, bein bat, bein bestea, zerbait izango zan.

Jose Migel Maiz ere, karrerak korritzea utzita, denbora dezentez korritu gabe, nik askotan egiten nuana, eta or asko galtzen da. Utzita egon eta berriro poliki asi bear.

Maiz eta biok jokoa egin genduanean, orregatik artu genduan denbora preparatzeko, bost illabete.

Nik oso ondo eraman nuan eta suertea euki nuan. Nere entrenadorea Gabriel González izan zan. Maiz ere oso ondo preparatuta zegoala deklaritzen zuten bazter guzietatik. Dirua doblean jartzen zuten Maizen alde.

Orain esatera noan au ez dakit zer irudituko zaizuen. Amar egun falta zirala, biok juntatu giñan, apari pixka bat egiñez. Izaten dira itzegin bearrak: nola organizatu, plaza-ko sarrerak, zer entrada jarri... Bi aldeetatik bear izaten da jendea entradak saltzeko, jendea sartzen dan atetan jartzeko ta abar.

Ala, kontu kontari, esaera dan bezela, apaldu degu ta biok larri.

-Zer gertatu bear du urrengo juntatu-aldian? Urrena plazan ikusiko dizkiagu geren buruak.

Despedidako momentuan auxe esan nion:

-Bueno, Jose Migel: nik jokoa galdu bearra eukiko diat irekin, baña auxe nai nitek: Txikito Arruitzek daukan amar kilometroko marka borratzea.

Eta berak auxe kontestatu zidan:

-Bai nik ere. Arruitzen marka borratuko diat; eta geiena danak irabazi dezala, eta burlarik egin gabe irabaztunak galtzalleari. Irabaztunak naikoa dik atzetik arrapatzea eta pasa gabe bukatzea.

Itz serio oiekin partitu giñan. Ala, bakarrik gelditu nintzanean, nere buruarekin pentsatzen asi eta esaten nion:

–Nere kontrarioa korrika asko egiten duala zegok.

Bost kilometroko prueba ere entzunda nengoan ama-bost minutu eta ogei ta amar segundoan eginda zegoala. Baita egia izan ere.

Etorri da jokatzeko eguna eta ordua ere. Orduan ziran komeriak. Etzan errez Maizi eusten. Arek ni azkar arrapatu egin nai, eta nik aguanta.

Buelta laurdena baño geiago artuta ibili zan. Ura estuasuna! Korredoreen oiua entzuten nituan:

–Eun berrogeiri Maizen alde! *¡Cien a cuarenta!*

Apustua bost kilometrotan jokatu edo erabaki genduan. Nik banekian, asterako, bost kilometrotan gaizki ibili bearra neukala. Ura neri arrapatzera joan baizan. Baña antxe lertu zan, ikusi zuanean ezin zuala arrapatu. An bukatu zan.

Aurreneko bost kilometroak 15' 30" denboran egin zituan; eta nik 15' 34". Seigarren kilometroan or ikusten det, asita bezela, arraiz arrai giñala. Ura ikusi nuanean, beste bi bueltatan sartu nintzan beraren anketara.

Orduan ziran komeriak. Ez nekian zer egin. Berari laguntzea nai nuan, eta ikusi nuan ezin zuala. Eta ni beraren atzetik denbora galtzen marka egiteko. Zazpi edo zortzi buelta aren atzetik. Alkarri emandako itza baizegoan: arrapatzea bakarrik.

Intento txiki bat egin nion, bere alboan jarrita, ea tiratzen asten zan; eta *¡nada!* Ostera atzean jarri nintzan, eta esan nion:

–Au joan dek. Onen atzetik etzegok ibiltzerik.

Alaxe, asi nintzan. Artu ritmo bat eta aurrera. Baña galdutako denbora arrapatzerik ez. Lau buelta uste det zirala arrapatu ta pasa. Pasatzen ere beti metroak galduta.

Amargarren kilometroa 3' 11"-an egin nuan. Jokoa irabazi bai, baña Arruizen marka bi edo iru segundoz an gelditu zan, alkar artu ez gendualako.

Arruitz zanak ogei ta amabi urterekin egindako marka ura ikusi nuan nola egin zuan: Aldatzek nola buelta erdia bentaja artuta jokatu zuan; eta, naiz jokoa galdu, azkeneko bueltak arte, segi ta segi. Atakatu egiten zion Arruitzi. Laguntzera joanda, alegia.

Nik Maizi jokatu nionean, ogei ta emezortzi urte kunplitzera nijoan. Guk, bi lengusuak, biok egin bearreko marka an gelditu zan egin gabe iru segundoz. Arruitzena markarik onena.

Guk alkarri emandako itzak eman zidan neri zer pentsatu. Emandako itza autsi egin bearra izan nuan, eta denbora asko galdu ta gero.

Iruntxiberriren marka: amar kilometro, 31' 42". Joan Krutz Arruitz zanaren marka egiteko etzegoan bost kilometro 15' 30"-an egin bearrik. Nik martxa regulatuan ondo joaten nintzan.

Nik badakit Jose Migel Maiz ni baño korrikalari aundiagoa eta obea zala. Nik esango nuke zergatik galdu zuan. Bat, izugarrizko konpromisoa, diru asko jokatuta ikusten zualako. Bestea, esperientzi falta apusturako. Esanda baizeuden:

–Iruntxiberri bi edo iru kilometrotarako atzetik arrapatu ta kito! Andik aurrera ez dik iri alde egingo.

Orregatik, ni ere saiatzen nintzan aurreneko kilometrotan eusten. Or rato txarra pasa nuan, ez naizelako izan bost kilometrokoa.


Bein ikusi zuanean: "Ez diat arrapatzen", an estutu zan bere lanean. Segi izan bazuan, askoz obeto aterako zan.

Beste bat ere ezagutu nuan orrela joaten zana nere kontra, bi kilometrotarako arrapatu-ustean. Izan ere, bi korrikalari ateratzen diranean alkar neurtzera, eta bi kilometrotan batek bestea atzetik arrapatzen badu, orduan jan egiten du. Ez dio uzten nai duana egiten. Erbi bat ateratzen bada eta zakurrak arrapatzen badu, onek nai duana egingo du.

Naiko istori kontatu dizuet nola diran plazan pasatako istoriak. Zenbat aldiz gertatu ote da plazara bi gizon joan eta kirolari onenak apustua galdu eta txarrenak irabazi?

Neuk dauzkat kaso oietakoak: neu baño kirolari edo deportista obei irabaztea gertatu. Eta zenbat galdu ditut neu baño txarragoekin? Batzuetan, bentaja aundiegia eman dietelako. Urrengo aldian, konfiatu eta batere preparatu gabe plazara joan naizelako. Txantxangorria, goseak dagoanean, nola joaten da jan billa eta an erortzen da zepoan? Bizitza orrelaxen da. Erortzen ez danik zein da?





Iruntxiberri 1974ko urriaren 6an, Tolosako zezen-plazan.  
Atzean, barreratik begira, Iñaki Eizmendi "Basarri", eta  
Federazioko buru egiten zuen Artola jauna.

# Andoain

---

**E**men aitatu bearra daukat, edo konpesatu bearra, zer bueltak eman dizkiotan nere buruari edo nere bizitzari. Batek esan lezake, egoaizeak orbela ibiltzen duan bezela ibilita nagoala ni, leku batera eta bestera.

Len aitortzen nuan nola eta zer motiboz joan nintzan Kastillara edo Palentzira bizitzera. Lenbizi, neuk sufritzen nuan bronkioetatik. Gero, or etorri zan nere alaba ia bukatzera. Emengo martxa utzi ta ara joan giñan.

Ori entzun zuanean, nere aitak negar egin zuan, urrutira nijoalako. Etzuan ondo artzen ain urruti ni bizitzea. Ni apustu-munduan ikusi nai bainiñun. Beraren mundua edo afizio guzia apustua zan.

Ala, Irazu famatuaren apustuak etorri ziran, eta onera etorri arazi niñuten, Donostira; eta etxe bat emen erostea pentsatu nuan, eta alaxe egin nuan.

Andoaiñen, 1971 urtean, orduantxe bukatzen ari ziran etxe bat. Erosi nuan eta, bukatu zutenean, alaxe etorri giñan Andoaiña bizitzera.

Pena ederra edo izugarria eman zidan Becerril de Campos-en neukan ille apainketarako lekua uzteak, ango jendearekin neukan artu-eman eta konfiantzarekin. Bazekiten edozein ordutan, naiz gaua eta naiz igandea izan, atendituko niela.

Ango jendeak sentitu zuan, baña neuk ere negar egin nuan, eta etzan gutxiagotarako ere. Ni, emengoa, Euskal

Erritik joan Kastillako erri batera, eta billatu nuan ondo bizitzeko edo lana eginda defenditzeko lekua.

Nere andrea angoa izanda, etzuan an gusto geiegi izaten. Onera etortzeko gogoa zeukan. Ez dakit zergatik. Ez det ortik aurrera andrearen kulparik jarri nai eta esan nai.

1971 urte ortan, iru illabeteko kurtsilloak eta praktikak izan nituan Donostin, peluquero edo, obeto esanda, ille-apaintetarako diploma ateratzeko edo esamiñetan aprobatzeko. Iru illabetez, astean egun bat pratikatzen genduan, eta alaxe esamiñetan aprobatu nuan.

Nere begien aurrean daukadan koadro ortan jartzen duana jarriko det. Garai artan dana kastillanoz izaten zan:

*“A León Albéniz Maiz, en el curso de corte de pelo a navaja del Club Artístico de Peluqueros de Caballeros de Guipúzcoa, se le concede el presente diploma.*

*San Sebastián, 16 de Mayo de 1971.*

*La firma del presidente: Joaquín”.*

Oiek danak eginda, Andoaiñen lokal batekin ibili nuan naiko duda, eta mintzatu ere bai. Ille-apaintegi bat montatzeko, naiko animatuta izandu nintzan. Baña alde guzietatik oztopoak jartzen zizkidaten, eta momentu ura oso txarra zegoan.

Gazte jendeak ille luzea uzten asitako garaia zan. Ille-apaintetara oso jende gutxi joaten zan. Izan ziran urte batzuk ille-moztailleak oso estu egon ziranak, etzeukate-lako jenderik.

Ni akordatzen naiz. Billabonan edo Zizurkilko Elbarrenan, garai artan *Peluquería* esaten zan, naiz gaur euskeraz *Illea apaintzeko lekua*; ille-apaintegia, ba, lagun batek


zeukan or, eta nerekin batera ibili zan kurtsilloak egiten edo praktikatzen, eta nik bezelaxe aprobatu zuan. Ba, ez dakit seguru bi urte edo iru pasa zituan ille-apaindegiarekin, eta kendu edo utzi eta beste negozio bat jarri zuan.

Len esaten nuan bezela, oso momentu txarra izan zan. Ortik aparte, gazte jendea, ille-apaintegira joatea pentsatuta ere, emakumezkoen pelukerietara joaten asi zan. Askok eta askok emakumeak baño ille luzeagoa ibiltzen baizuten; eta batzuek pintatu egin bear, besteak *permanente* edo olako zerbait.

Ala, konturatu ziran pelukeroak, eta andik aurrera edozein lekutan *Peluquería de señoras y caballeros* ikusten zan orduan. Gizonezkoen pelukerira ni bezelako zarren batzuk joaten ziran. Nik orrela ikusi nuan asuntua garai artan.

Geroztik berriro pixka bat kanbiatuta dago. Gizonezkoen ille-apaintegi gutxi iriki ere, eta ostera jendea bueltatu da illea motxagoa eramatera, eta orain batzuk edo askok *al rape*, soldaduskan kastigatutakoei moztutzen ziguten bezela.

Ba orrelaxe gelditu nintzan desanimatuta edo bildurtuta, nere ofizioari segitu gabe. Artean ez nuan ikusten prolemarik. Korrikarako sasoirik onenean nengoan, eta lana ere edozein baztarretan bat ez bada bestea izaten zan.



Ille-apainketarako diploma eskuratzean, 1971ko maitzaren 16an.

# Beste apustu batzuk

---

**1** 971 urtetik 1974 edo 1975 urtera ez nintzan gelditu. Bein Maizi jokatu ezkerro, ez nuan izan apustu onik. 1974-an jokatu nuan Maizekin, eta beste urtebete bat oso ondo egondu nintzan.

Bi apustu jokatzeko egondu giñan Maizekin, baña ez giñan allegatu, atzera egin zutelako. Oso ondo preparatuta arkitzen nintzan, baña ez nuan demostratzerik izan.

Nola ez neukan *mano a mano* amar kilometroan jokatzeke iñor, egin nituan egin bear ez nituan apustu batzuk, jendea animatzeko eta zerbait festa jartzeko.

Tolosako zezen-plazan jokatu genduan, Otsaillaren 16-an, 1975-ean, amabi kilometrotara, Asteasuko Irazu eta Olarrearen kontra Argiñarena eta Iruntxiberri, kilometrotik releboa egiñez.

Oso apustu polita egin genduan. Irazuk-eta egin zuten marka: 36' 41"; Argiñarenak eta nik: 37' 02".

Urte ortan oso ondo preparatu nintzan, len esan detan bezela, bi apustu neuzkalako jokatu bearrak: bat Berazubin eta bestea zezen-plazan. Biak ankaz gora gelditu ziran. Uztaillaren 20-an jokatu bearrak giñan Tolosako Berazubin, eta 18-an erretiratu egin ziran, diru-señaleak botata.

Zer pentsatu nuan ala gelditu nintzanean? Uztaillaren 20-an, 1975 urtean, neu bakarrik marka egitera joatea. Gizonak izaten ditu momentu batzuk zelebreak.

Uztaillaren 18-an uste det eguraldi beltz-beltza eta suabea egiten zuala. Baña urrengo eguna eta igande-goi-

zetik asten da izugarrizko beroa, txoriak eta txoroak botatzeko modukoa. Jende guzia barra-barra ondartzatza aldera, eta beste asko piszinetara.

Ala, joan nintzan Tolosako Berazubira; eta, an ere nola piszinak dauden eta zeuden, jende guzia edo izugarrizko jendetza piszina inguruan, eta ezer esaterik ez. Nola aiek ango sozioak ziran, eta asko sarrera pagatuta, korritu bear nuan lekura nik ere sarrera zerbait kobratu nai, baña etzegoan ezer egiterik.

Zegoan beroarekin korrika etzegoan egiterik. "Nik zer egin bear det orain?" esaten nion nere buruari. Neri kontrolatzera joanda, Federazioko gizon bi ere bai, eta alde egiteko gaizki. Beste eun bat lagun ere arrimatu ziran ni ikustera, eta alaxe pentsatu nuan nolabait ere zortzi kilometro pasatzea.

Alaxe egin nituan Tolosako Berazubin, Uztaillaren 20-an, 1975 urtean, zortzi kilometro, nola etzegoan beste gauzarik egiterik. Denbora: 25' 50". Bein joan nintzan kasoan, konpromisoa bete nuan eta etxera.

# Segan eta korrika berriz ere

---

**1**975 urtea oso mobitua izan nuan. Ez nuan geldirik egoteko denborarik izan. Abuztuan iru apustu-papel edo kontrato izenpetu nituan, eta irurak oso ondo lotuta neuzkan, naiz bat arrapatu zidaten makillarekin joaz.

Lendabizikoa, segan eta korrika. Bigarrena, aizkora utsean. Irugarrena, aizkoran eta korrika.

Azkeneko biak irabazi nituan, eta aurrenekoan egin zizkidatenak emen azaldu edo argitaratzeko lotsa bear du. Baña nola egiak diran, eta nola liburu kaskar au ari naizen nere bizitzan pasatako egi utsez osatzen, zer egin bear det? Istori au ixilik utzi? Benetan mingarria.

Lenbiziko apustua, segan eta korrika, Ernaniko Jauregin, Urriaren 5-ean, 1975-ean. Eguerdiko amabietan egin bear genduan lana. Juan Jose Irazusta, Asteasukoa: segan milla eta berreun metro kuadro *a corte raso* edo berdin ebatea, puntarik utzi gabe, eta segidan zortzi kilometro, larogei buelta plazara.

Nik egin bearrekoa: milla metro belar kuadro kondizio igoaletan edo berdin ebatea eta zortzi kilometro: larogei buelta. Belazean gendukan eun metroko uztaia, zortzi kilometro egiteko.

Ala, apustu famatu ori jokatzeke oso ondo preparatuta nengoan, kontzientziz alegia, lanak bildurtzen ez niñula. Baña txakurrak neuzkan zai plazan.



Ortarako, igandean jokatu bear apustua eta iru egun aurretik nere lagun bat etorri zait, esanez nerekin serio egon bearra zeukala, eta nik ea ba zer pasatzen zan.

–Leon, orain ni zuregana natorren bezela, neri olako beste gizon bat etorri zait, esatera zu jakiñaren gañean jarzeko; ezin duala ixilik pasa zer egitera datozen.

Nere lagun orrengana etorri zan orrek berak entzun ziela bi gizoni izketan ari zirala:

–Bai. Iruntxiberrik apustua ondo eginda zeukak, baña alperrik ibiliko dek. Bi gizon joango ituk ori dominatuko dutenak belazean.

Nik, abisu ori artuta, ez nekian zer egin. Pentsatu nuan lenbizi nere laguntzalleari esatea, Bernardo Irastortzarekin nenbillen, eta ura alakoa izan eta txarrik pentsatzen etzuana:

–Motell, zer egin bear die? I beti olako zerbait pentsatzen.

Esan nion:

–Nigana etorritako jendea ez baizan bromakoa.

Arek ura esan zidanean, ni ezin nintzan ezertan asi. Plazara joan arte, etzegoan ikusterik.

Ala, Irazustak etzeukan laguntzallerik izateko eskubiderik. Bai sega zorrozte eta bear zuan guzia berak ibili bear zuan, ala gertatu ez bazan ere.

Txabetaren bat galdu sega-kertena lotzeko, eta baka-  
rren batek Jauregira joan da ekarri omen zuan. Baten  
batak ikusi nola izan zan. *Totalmente prohibido* ori egitea.  
Ikusi egin zuten nola egin zuan. Baña Federaziokoa  
Irazustari laguntzera joanda zegoan.

Neri, plazara sartu nintzanean, belazea ebaten asi aurretik, an zegoan makilla aundiarekin Federazioko bat eta ala esan zidan:

–Iruntxiberri: gaur ez dek nai dekenik egingo. Gure mende bearko dek.

Neri apustua arrapatzera joan ziran bi oiek, bat Irastustari laguntzera eta bestea neri frenoak jartzera.

Ala, asi giñan segan, eta lenbiziko mailla ebaki nuan, eta segituan asi zan kargu artzen: etzegoala ondo eta berriro ebaki araztera, puntak zeudela-ta; eta makilla sartu zidan sega nebilkian lekuan, eta sega ondatuta utzi, dana karrankatuta.

Ogei minutuan ez neukan laguntzallerik. Denbora ori pasatakoan laguntzaillea sartzeko libertadea nuan nik. Kondizio oietan etzegoan belar ebaten jarduterik. Ez dakit nola aguantatu nuan.

Ogei minutu pasa ziranean, sartu zan laguntzallea, Bernardo Irastortza, gizon aundia. Baña laster dominatu zuan ura ere. Ez uzten lagundu edo kontseju ematen, eta kanpora bota zuten nere laguntzalle ori. Arek sega zorrozteko eskubidea baizeukan. Nik, berriz, naiz makillaren azpian, segitu egiten nion, eta belarra ebaki.

Gauzak estu ikusten zituzten, naiz nik oztopo guziak kontra euki. Ala, belarrak ebakitzea edo kuadroak bukatu eta ez uzten neri ara eta onera puntak jo arazten edo puntak ebakitzen, besteak buelta mordo bat eman arte.

Plazan izugarrizko jendetza zan. Plazara sartzeko lekua bear zan, eta ura ere itxita. Ni plazara sartzeko, bestea kilometro bat eta geiago eginda zegoan. Ni ordurako makillapean zearo nastuta nengoan.

Alaz ta guztiz ere, publikoagatik zortzi kilometro pasa nituan: 28' 20". Belazea ebatea Irazustak 31' 32". Totala, Irazustak: 67' 55"; nik: 69' 10".

Lana bukatu nuanean ez nengoan ixilik egoteko moduan, eta justizia eskatu nuan, an egon etzana.

Garai artan, apustu edo olako gauzen bat zegoan lekura, guardiazibillak pareja bat edo bi joaten ziran. Zerbait pasatzen bazan ere, an ibiltzen ziran tartean, eta ikusi zer gertatzen zan.

Ala, uztaiko korrika-lana bukatuta, saltatu nintzan belazera, ea bestek ebakitako belazea nola zegoan, eta Federaziokoei otsegin nien, ez dakit zer formatan. Len esan detan bezela, guardizibil oiek an zeuden begira, eta ala esan omen zuten:

*—No hay derecho a la forma con que han tratado a este muchacho.*

Ortik aurrera zer esan bear dezu? Euskaldunak piñak gerala? Irazustak berak etzuan izango txakur txiki baten kulparik. Gañetik zeudenak, bi ondo ezagutzen ditut. Or joan ziranak izenez ez ditut izendatuko. Askok badakite zein ziran.

Urrengo egunean an joan ziran Federazioko buru egi-ten zuana eta abar konprobatzera belar-zelaian zer reglamentu zegoan ibilia. Ura ikusi zutenak, danak arrituta gelditu ziran. Ainbeste publikoaren tartean, jende asko zegoan, Irazustari zer esaten zion Federazioko zegoan figurak erantzuteko, eta ni nola tratatu niñun, belazean bueltaka makillarekin joaz.

Ondo ikusitakoak eta ondo entenditzen zuan edo, obeto esanda, Federazioko berri ondo zekianak, izugarrizko eskrituak preparatu zituan, eta berrogeitaka firma izan

ziran izenpetu zituztenak aiek egin zutenaren kontra. Oraindik papel oiek nere etxean daude.

Oraindik, zerbait gaizki esan nuala eta kastigatzea intentatu zuten. Nola neuzkan beste bi apustu egiñak, aiek kentzea nai izan zuten. Baña aurrera jo nuan eta arreglatu.

Zer esan bear du au irakurtzen duanak? Naiko lotsagarria. Neuri ez dit onik egiten gauza auek nastutzen asteak. Buruko miña egiten dute, naiz aspaldikoak izan. Zikinkeri ori utzi eta aurrera jarraitzen saiatu bearko.



Arruagoiko Ramon Azpeitia eta Iruntxiberri, 1959ko martxoaren 4an, Azpeitiko zezen-plazan.



Tolosako zezen-plazan, 1969ko San Jose egunean,  
Irazuri irabazitakoan, Gabriel Gonzalez entrenadorearen besarkada.

# Amezketeta

---

**L**en agertzen nuan bezela, iru apusturen kontratoak edo Joko-papelak neuzkan izenpetuta. Lenbizikoaren goraberak azaldu ditut.

Bigarrena ospatu genduan Amezketan. Urriaren 26-an, 1975-ean, igande-arratsaldean, jokatu zan edo jokatu genduan.

Ikusle asko izan zan; Amezketako plazan oso animazio ederra.

Estuasun aundirik gabe joan nintzan. Ikusten nuan aixa irabazteko jokoak neukala, naiz berriro an ikusi bear izan nituan aurrean neretzako gorrotoan zeuden bi zakur. Baña naiz begiratu txarra egin, etzeukaten ezer egiterik. Amezketako plazan etzegoan belarrik, kanako tronkoak baizik.

Jose Aierbek bi kanako moztu bear zituan; eta Iruntxiberrik, bat. Garai artan, edo noiznai ere, Aierbe aizkolari aundia izan da; eta ni nola berrogei ta amar kiloz azpitik nengoan, or engañatzen nituan. Kanakoa mozten, jostatzen bezin gustora jarduten nintzan.

Bi kanako mozten Jose Aierbek egindako denbora: 40' 13". Aierberen laguntzallea: Ramon Yurrebaso. Kanako bat, Iruntxiberrik: 31' 28". Nere laguntzallea: Migel Mindegia.

Illuntze artan ura broma pasa genduan Amezketako *Bar Txindoki-n!* Apaldu ederki eta izugarritzko lagun-koardilla juntatu giñan, eta oso tertuli ederra euki genduan.

Oso jatetxe ona da *Bar Txindoki* ori. An ondo beti jan eta edan. Orko nagusi, etxeoandre eta seme-alabak ere alakoak dira. Ni beti oso ondo artu naute, eta oso gustoko lekua det.

## Arria II

---

**O**r jokaturako aizkol-apustu ori eta orain datorren Arria II-ren apustua, aurretik aitatzen nuan *Bar Txindoki* ortan, izan ziran beste bi txoke edo bi apustu lotzeko bideak.

Abuztuaren 24-garrena San Bartolome izaten da, Amezketako urteko jaiak. Erri-kirol jaialdia zan, eguerdian ospatu zan, eta bazkaltzera *Bar Txindoki* jatetxera.

An juntatu giñan kirolari asko, eta ondo bazkaldu eta kopatxoren bana edan giñunean, sutu eta alaxe bi apustu eginda etxera. Ordurako bestea lotuta neukan: usai txarra izan zuan ori.

Orrelaxe izan zan: Jose Aierberen kontra eun milla pezeta; eta Arria II edo Jose Inazio Orbegozoren kontra berrogei ta amar milla, alde bakoitzetik. Arria II, bi kanako moztu eta sei kilometro korritu. Iruntxiberriren lana, kanako bat moztu eta sei kilometro korritu.

Tolosako zezen-plazan jokatu genduan, Abenduaren 7-an, 1975 urtean, eguerdian. Egurrak plazara ekarri eta jartzeko eskubidea neuk izan nuan; eta irutik bi aukeratzeko eskubidea Arria II-ak. Arek utzitakoa moztu bear nuan. Iru puskak edo iru kanakoak egur batenak ziran.

Oso egur txarra. Barruan atera zitzaion akats itxusia. Arbola berak bazituan amabi korte kanakoak, eta asi ipurditik eta punta arte oso egur txarra atera zan.

Nola arbola aundia zan, iru metro ta geiago zeuzkan lodian, eta jende guzia engañatu zuan. Plazan jartzeko



denboran oso ona ematen zuan azaletik, bastante samurra. Neurria jartzeko, gañetik asko kendu bear, eta gañeko gozoak kendu eta barrua oso mikatza azaldu zan.

Gure artean edo gizartean orixe bera pasatzen da: azaletik askok eta askok onaren itxura; eta gero, probatzen edo tratatzen asten zeranean, azaltzen zaizkigu akatsak.

Ba orrela izan zan gure Tolosako zezen-plazan jokatu edo ospatu genduan apustua.

Len aitatzen nuan nola Amezketara joan nintzan bildurrik gabe. Kolorerik gabe ikusten nuan apustua. Tolosan orain lasaiago. Banekian aizkoran irabazita neukala apustua, eta gañera sei kilometro korritu bear. Ura zan txollosa! Aizkoran ari nintzala, tronkoa ia moztuan, Mindedgiak albotik:

–Motell, etzak moztu! Jo zak alboan disimulatzeke!

Minututara dirua asko jokatuta baitzegoan. Ikusten baigenduan nola ari zan Arria eziñean. Ala ere, ezin egon tronkoaren gañean, eta moztu ta lurrera suabe-suabe. Nola denbora pasa ez nekian, eta korrika asi nintzan: 37' 58" denbora.

Plazan bueltaka asi nintzanean, Arria aizkora-lana bukatu ta korrika asi zan. 40' 13" minutuz amar edo amabi buelta eman da erretiratu egin zan, etzeukala zer egiñik ikusita. Bere denbora 45' 03", kilometro bat korritu zuanean, eta erretiratu zan, 46 minutu zituala.

Nik segitu nion sei kilometro egin arte. Nere lana, totala: 62' 00".

# Fidel Garmendia

---

**1**975 urtea oso gogorra izana nuan. Korrika, segan eta aizkoran, bost apustu nolabaiteko kontatu ditut, eta seigarrena falta urtea bukatzeko.

Alde guzietatik erreta nengoan momentu artan; eta nere ezagun bat edo laguna, or Tolosako ferian txikiteoan zebiltzala, ibiliko zuten kontua: Iruntxiberri gora ta bera. Eta albotik batek:

–I: nik jokatuko zioat, nik lau kilometro eta berak zortzi!

Alamoduz ibiliko ziran eta, pentsatzeko denborarik artu gabe, millana duro bota señaleak eta etorri ziran neregana. Esan nien segituan:

–Ez dek jokatzeko modukoa doble korritzea.

Ala, berriro juntatu ziran, eta atzera iñork egin nai ez, amor bata besteari eman nai ez, eta jokoak egin zuten. Itxurarik etzeukan eta obligatu egin niñuten korritzera.

Fidel Garmendia Arruabarrena, Orendaingo baserri batekoa, idi-probetan itzai jokatzeko ibiltzen zan gizon morrosko aundi bat zan, indar askoko gizona, urte batzuk zeuzkana. Ez dakit zenbat seguru, aztuta nagoalako. Berrogei ta amar inguru izango zituan.

Tolosako zezen-plazan jokatu genduan, Abenduaren 28-an, 1975 urtean. Eguna ere alamoduzkoa: Inozente eguna, eta neri dotorea egin zidaten.

Sarrera merke jarri genduan, pelikula ikustera ea iñor animatzen zan; eta nik uste edo esperantzen nuan baño

jende geiago bildu zan plazan, lareun bat lagun, itxurarik gabeko komeria ikustera.

Nik joan da pasa nituan, batere apuratu gabe, zortzi kilometro. Garmendiak egindako marka: lau kilometro: 21' 45". Iruntxiberrik, zortzi kilometro; egindako marka: 27' 32".

Jendea oso gustora atera zan plazatik, gizon aundi bat ala ikusita. Batzuetan ez du gauza asko bear jendea konformatzeko. Amaika olako komeri eta zelebrequeri kontatzen ari natzaizue.

# Jose Aierbe

---

**O**rtik aurrera, nere korrika-apustuak eta burrukak bukatu ziran. Berrogei urte gañean eta, neuzkan kilo gutxirekin, aizkora eta sega-saltsan erre nituan neuzkan indarrak.

Alaz ta guztiz ere egin nuan beste apustu bat Jose Aierberen kontra, aizkora, Tolosako zezen-plazan, Otsaillaren 8-an, 1976 urtean.

Aierbek iru kanako eta oin biko bat moztu bear zituan, eta nik bi kanako. Biok batere erakuslerik gabe, bakoitzak bere jakinduriarekin.

Beti esan det, eta berriro ere esan bearra daukat, Ataungo Jose Aierbe kirolari aundienetakoa izan dala: korrikan onenen ondoan probatu da; eta segaz eta aizkora zer esanik ez.

Orain aitatu dizuedan apustu orretan joko lotzerakoa irabazita neukan, bentaja aundia neukalako nere alde, naiz nik ere bi kanako moztu bear izan nituan, erakuslerik gabe.

Nik, egurraren gañean jartzen nintzanean, txantxangorriak bezelaxe zuloa egiten nion eta beartu gabe jarduten nintzan kolpeka.

Ba, Tolosan lan auxe egin genduan eta denbora onetan: Aierbek ebaki zituan iru kanako eta oin biko bat: 71' 26"; nik bi kanako: 63' 45". Ez nuan izan estuasunik.



Tolosako zezen-plazan, 1969ko San Jose egunean,  
arraira irabazle.

## Jose Migel Irazu berriz ere

---

**M**omentu artaz aurrera izan nuan naiko komeri eta buruauste. Aurreraxeago edo len jartzen nuan ez nuala estuasunik izan aizkol-apustua irabazteko Tolosan. Orain ezin esango det orrelakorik.

Gaixotasuna edo ezbearra sentitzen asi nintzan. Bateko, katarro txarra bronkioetara sartuta neukala, eta asi nintzan medikuarengana bueltaka. Medizina edo botika, indizioa ta pastilla, gauza bat arreglatuko zidatelakoan, giblekoa, *hepatitis*, sortu zan; eta, nik ezer ez nekiala, oraindik korrika segitzen nuan. Momentu artan danak bazekiten, edo aurre artan, nola nenbillen.

Aizkol-apustuak jokutzen, korrika abandonatuta, pixka bat ibiltzen banintzan ere, ez da berdiña kanako tronkoak moztutzen preparatu edo korrika preparatu.

Irazuk ikusten zuan momentu ura, eta neri desafioa jarri zidan, bost kilometrotan jokatzeko. Artaraxe preparatzen zegoan Gabriel Gonzálezekin, len nere entrenadore ibilitakoa.

Nik, batetik, ordurako ez nuan nere burua ondo billatzen, eta esan nien nere lagunei ez ninjoala bost kilometroko jokorik egitera. Ondo ibiltzen nintzan garaian ere, ori ez nuan gustoko: bost kilometro. Ala esan zidaten lagunak:

–Motell, berdin irabaziko diok.

Nere lagunak ikusten zuten, nik korrika egiten nuanean, naiz amar kilometrora jokatu, bost kilometrotarako erabaki edo dominatzen nuala.

Alaxe, jokia egin genduan bost kilometrotara jokatzeko; eta jokatu, Tolosako zezen-plazan, ekainaren 20-an, 1976 urtean, arratsaldean.

Ez dakit nola allegatu nintzan jokia jokatzera. Ez daukat aztuta: entrenatzen nenbillela, bein baño geiagotan gelditu bear izandu nuan. Barrungo tristura edo eziña mareatzeraño, eta exerita egon pixka batean, eta alaxe etxera. Esaten nien:

–Ez natxeok ondo. Orrela etzegok plazara joaterik.

Etzidaten sinisten. Eta:

–Bueno! Jokatu bear bada, jokatuko diagu. Irazuri ere zerbaiten erregaloea etzaiok gaizki etorriko.

Ala, plazara sarreran, lagun bat edo bi banituan eta esan nien:

–Etzeukat zer egiñik.

Nere beroketan ibili eta izardi otza sentitzen nuan. Alaxe, al zan bezela pasa nituan eta etxera. Irazuk, bost kilometro: 15' 35". Iruntxiberrik: 16' 07".

## Ondo ezik

---

**U**rrengo egunean joan nintzan doctor Merinorengana, eta egin zizkidan al zituan pruebak, eta ala esan zidan:

–Eskapada ederra egin dezuz plazan gelditzeko. Ez daukazu korrika pausorik ematerik.

Bueno, ortik aurrera beste berrogei bat egun pasa nituan botiken mende, pastillak eta zikinkeria artu ta artu. Alaxe gelditu nintzan.

Aguztuaren aurrenean, igarri edo zer neukan ikusi zuten. Azkeneko momentua zan. Pixa egin bearrean, ez dakit zer zan. Odola edo beltz-beltza egiten nuan. Ala, oieratu nintzan eta medikuak etzeukaten zer egiñik.

Naturista bat ekarri zidaten etxera, eta ari esker salbatu nintzan. Egunean zazpi edo zortzi baso ur belarrarekin egosita, beste ezer ez nuan artzen. Makiña bat buelta egin zuan.

Trintxerpen zegoan naturista ori. Emakume fuerte bat. Aren bearra izan nuan. Ez dakit bizi dan edo ez. Ez det aspaldiko berririk.

Lau illabete egin nituan, justu-justuan koarto-bañora edo serbizioko lekura allegatzen nintzala, noiz baño noiz bukatuko nuan pentsatzen. Batez ere gaua etzan motxa izaten.

Ala nengoala, belar-urez pixkanaka ariko nintzan garbitzen, baño analisak oso gaizki azaltzen ziran. Transaminasak seireun bat markatzen zidan. Danak etzaizkit akor-



datzen; baña gibelego pruebak zenbaterano ematen zidaten, ori daukat gogoan.

Ni naiko etsita nengoan, da nere inguruan zebiltzanak ere alamoduz ikusten nituan.

Abenduaren aurrenean eraman niñuten Ospital Probintzialera. Ingresatu ta ogei bat egun egin nituan. Biopsia ta gañontzeko pruebak egin zizkidaten; eta, ondo ikusi ta gero, zorionak ematen asi zitzaizkidan, esanaz zergatik:

–Ogei ta amairu klase badaude, eta uste genduan edo bildurra genduan txarrena ote zeneukan: ogei ta amairugarrena, salbatzerik ez dagoana. Txarrenaren aurrekoa daukazu. Kuidatzen bazera, denbora bearko dezu, baña posibilidaddea daukazu ondo jartzeko. Bi edo iru edo lau urte normaltzeko, eta bizitza osoan erreparatu bearra, nai badezu bizi urte batzuetan.

Orrela izan zan nere gaixotasuna. Lengoak zerbait pasa banituan, gibelego gaitza oso serioa da. Probatu ez duanak ez daki, eta bakarren batek zer esan lezake nere gaixotasunari buruz?

Emen ari naiz gaitz luze orren esplikazioa agertzen. Pixka bat recuperatzen asi nintzan.

Baña 1977-ko Ilbeltza edo Urtarrillaren 8-an, gaueko amar t'erdiak edo amaikak izango ziran. Asten zaizkit tripan edo tripa barrenean alako oñazeak. Ba, gau artako esplikaziorik ez dago ematerik. Nik gogoan daukat. Azien da bat geientxoena ikusi degu azkeneko ostikoak ematen. Ba, orrekin dana esanda dago. Gau itxusia pasa nuan. Miñak lertu bear.

Goizerako ez nuan indarririk eta ongi dominatuta nengoan. Ospital Probintzialera eraman niñuten. Ingresatu ta segituan, jarri niñuten sueroarekin. Analisisak eta gauzak

ikusten eguna pasa zuten. Ni miñak kenduta nengoan eta lasai.

Ez dakit gaueko amarrak edo amar t'erdiak ziran, neukan sueroarekin operatzera eraman niñutenean. Ondo esateko ez dakit nola deitzen zaion. Este sobrea lertuta nengoan. Aurreko gau triste ura etzait bein ere aztuko, bizi naizen arte.

Oiek danak pasa ta buelta eman nionean, ala kontatu zidaten. Jesukristo gurutzean il da piztu irugarren egunean egin zan. Ba, ni il banintzan, Jesukristo bezela ez nintzala piztuko; baña milagro batez nengoala biziarekin.

Ori esan zidatenean, buruari eragin nion. Ni ikusi izan baniñuzuten, gau guzia lurrean bueltaka... Ura zan azkena ikustea! Ez noa geiago esatera. Gauza geiago esango nituzke, baña naikoa da.

Ni ari naizen gauzak agertzen, alde batera lotsa bear nuke. Baña nik nere bizitzan ikusi ta pasa ditudanak ez agertzekotan, zer jarri bear dezu? Nik nere memorian dauzkadan arantzak eta loreak dira oiek. Oraindik bizitzak aurrera segitzen du eta gauza txarrak utzi alde batera, eta berriro ere nere bizitzako lanei eldu, eta beti bezela asi nintzan, ilusio aundiz gañera.

Oraindik beste gizaldi bat daukat kontatzeko. Bizitzan aurrera zoazen bezela, dana aldatzen joaten da. Ume-umetatik leku batean sartuta bazaude, naiz estudioak eta karrera egin, leku ortako berri bakarrik jakingo dezu.

*Al contrario*, ni bezelako ezjakin estudiantu gabeko bat. Beti saltoka baztarrik baztar, sasitik sasira, ainbeste oztopo, estropozoka.

Len ere esan dedanez, Jesukristok gurutzearekin egin zuana Kalbario mendian: naiz erori eta ezin aurrera segitu, miñak min, altza eta aurrera, azkeneko tontorrera alle-

gatu arte. Ba, pobre baten bizitza ere orrela da, eta aurre-  
ra. Ezin da atzera begiratzen asi. Etsi gaiztoa bear da, eta  
ez degu esperantzarik galdu bear bizitzako gauzetan; ezta  
bizitzan ere.

# Lanean

---

**L**entxeago aitatzen nuan bezela, pixkanaka suspertzen lari nintzan. Nere gaixoaldiaren ondorena eta bizimoduari berriro eldu bearra.

Andoain eta Aduna tartean, Pedro Gallo izeneko zerra-tallerra eta muebleria zegoan martxan, eta taller orretara urbildu nintzan. Ezaguera baneukan Pedro Gallorekin eta alaxe sartu nintzan.

An oso ondo arreglatzen nintzan. Jarri zidaten lana zerran eta beste bi makina: zipilladora eta gruesoko makina. Oso gustora jardun nintzan, eta nagusiak ere oso ondo ikusten niñuten.

Urtebete bat pasa nuan, egunean amar edo amaika ordu egiñez. Baña aurrerantzean asi zan lana bajatzen, eta zortzi ordu bakarrak, eta astearen azkenean edo illaren azkenean ere nabarmentzen zan.

Pixkanaka taller ori ixtera etorri zan, naiko prolema-kin. Nik ez daukat ezer gaizki esateko. Ez nagusi Pedro eta ez bere semeak, tallerrean lana egiten zutenak. Danekin ondo arreglatzen nintzan.

Nik lana ixil-ixilik egiten bainuan. Ikusten nituan bestelakoak. Askotan lanari igeska, eta alakoa aguro ezagutzen da. Eta gero derrigor bullak.

Ni konturatu nintzan zer zetorren, eta beste zerbait egitea erabaki nuan. Trintxerpen lengusu bat neukan, eta an segitzen du. Lana Pasai San Pedron arrandegietan egiten zuan, naiz gaur erretiratuta dagoan. Ala esan zidan:

–I, Leon: Pasai San Pedron taberna bat zegok traspasoan eta oso leku politean. Gallego batek naiko abandonatuta zeukak. Bakar-bakarrik zegok eta ez dik lanik egiten. Nik ezaguna diat eta, nai badek artu, itzegingo diat.

Artean mueblerian ari nintzan lanean, baña zerbait pentsatu bearra; eta alaxe izan zan: joan da tratatu nuan zer kondizio zeuden. Orrenbeste diru traspasoan eta olako errenta illeko. Ala, tratua egin genduan.

Baña ez dakit zein izango zan, Bakarren bat enteratu zanean nik nola artzen nuan, inbiriosoren bat, berak eskuratu nai eta neri ezezkoa ematea pentsatu duala abisua. Alaxe, joan gera nere lengusua eta biok. Esan nion:

–Zer pasatzen da?

–Ba, ola ta ola etorri zaidak.

–A bai? Ik ez dakik tratua tratu izaten dala? Orain ezin dek beste bueltarik eman.

Ala, ixildu zan eta amen. An bukatu zan tratua, eta taberna neretzako.

Ala, urrengo egunean tallerreko nagusiei planteatu nien zer egin nuan, eta:

–Baña, Leon! Bai al dakik zer egiten deken?

Aitak eta semeak, biak artu zidaten kargu:

–Bai al dakik nun uzten gaituken?

Ba, nik ere zerbait esan bear ta esan nien:

–Zortzi ordurekin bakarrik gutxi da, famili aundia daukat eta.

–Bueno, naiz lan-eskasia euki, besteei lan-ordurik ez daukagu ematerik. Baña zuretzako bi ordu geiago fijo eguneroko jarri dizkizugu.

Ura konpromisoa ikusi nuan! Zer esan ez nekiala utzi niñuten, lotsatuta. Banekian nerekin gustora zeudela, baña ez nuan orrenbeste pentsatu. Pena artu nuan.

–Bueno, bueno! Ondo pentsa zazu. Eta, joan da berriz etortzen bazera ere, ateak zabalik izango dituzu.

Nik orduan, tratua eginda, oso gogor elduta nengoan atzera egin al izateko. Ondo egindako tratua baineukan. Ni ez nintzan damu izan ura artua.

Ba, taller ori atzeraka joan zan eta bereala itxi zan, naiz gaur ere martxan dagoan. Kanpotik ekarritako muebleen salmenta dauka. Ez bertan egindakoak, garai batean bezela. Ba orrela izan zan nere saltua, lenbizi tallerra utzita.



Tolosako zezen-plazan, 1967ko San Jose egunean.

## Pasai San Pedro

---

**P**asai San Pedron asi nintzan. Reforma egin bearra zegoan: arotz-lana eta pintore, ogei bat egun andik atera gabe. Garbitzen ere bazan premia.

Ba, bi urtez ez nuan lo egiteko denbora asko izan. Bost ume genduzkan: lau neska eta mutilla. Alaba zarrenak amairu urte, eta gazteenak sei zeuzkan, eta bostak eskolan, ikastolan edo kolejoan.

Etxean ere bazegoan naiko lan amarentzako, etxea bete ume. Nik ez neukan ateratzerik San Pedroko txokotik. Goizetik gauera egiten zan lana. Bazkalondora arte andreak ezin joan neri laguntzera, etxeko lanak utzita. Egun batzutan bakarrik izaten nintzan, eta ezin allegatu. Neska bat bear zan ondo eramateko, ondo atendituta eukitzeko klientela. Baña ura ere etzan danen gustoko.

Oiek danak orrela dirala, negozioak oso ondo ematen zuan. Nik abuantatzen naiko lanak. Len gibeletik ainbeste denboran egonda, ez bainengoan fuerteeegi. Lanean ainbeste orduan, ez nuan denborarik ez jateko eta ez lo egiteko. Oso jota nintzan. Sendagille batek onela esan zidan:

–Leon, orrela segitzen badezu, ez dezu denbora askoan lanaren bearrik.

Ortik aurrera bildurtzen asi nintzan. Kasualidadez, or gertuan bizi zan famili bat nere atzetik zebillen, neukan txoko politaz edo negozioaz gustatuta zegoala.

Lenbizi ezezkoa eman nion, baña berriz ere nere billa: zerbait nai zukela eta ea animatzen nintzan ori uzteko.



Ala, artu nuan erabakia eta tratuan asi giñan, eta aguro konformatu zan eta zerratu edo itxi tratua. Iñor enteratu gabe egin genduan bearrekoa.

Jendearen ura sorpresa! Zer pasa zan galdezka neukan klientela. Neuri pena eman zidan, eta besteren batzuei ere bai. Laster enteratu nintzan.

–Iruntxiberri, ederra utzi dek! –esan zidan batek.

Sartu ziranak familiz allegatzen ziran, baña ez balio. Nik kostata egindako klientela, galtzen asi ziran segituan. Sei illabeterako utzi bear izan zuten.

Pasai San Pedroko eliza edo parrokiaren aurrean dago taska polit ori. Martxan egoten da.

Nik ori utzi ta beste lan bat neukan; edo, ori uzterako, banekian nora joan eta segituan asi nintzan.

## Sendoa argitaldaria

---

**S**endoa argitaldaria liburu-etxe famatua da. Etxe ortan asi nintzan liburu partitzen etxez etxe, lenbizi neuk neukan kotxez eta geroxeago *Sendoa*-k berak zeukan furgonetarekin, lenbizi Gipuzkoan eta bereala Bizkaian, Naparroan eta Araban.

Lau probintziak ondo aztertuta dauzkat; lau probintzietako txoko geienak pasata dauzkat. Lenbizitik, pixka bat oitu arte, ez dezu ezagutzen; eta ni bezelako atrasatu bat, pentsa! Baña segi Bizkaian, Araban edo Naparroan.

Berreun edo irureun bat *albarán* artu, furgoneta *a tope* kargatu liburuz, eta *benga* etxez etxe! Askotan direzioak ere alamoduz jarrita. Andik edo emendik billatzen dezu. Ateondora joaten zera. Igoal etxean iñor ez.

Beste batzuetan, berak etxean egonda ere, sumatzen bazaitue, eta ni bezelako itxusi samarra bada, ez dizute kasorik egin nai. Igoal aterik iriki nai ez, bildurrez dardelako.

Beste batzuek atea irikitzen dizute, baña zakur aundiren bat eskuetan dutela. Zuri zer iruditzen zaizu, lanean korrika dabillen batek olako gauzak ikusi bearra?

Ez dizut esan nai danak orrelakoak diranik. Jende gozoa edo jende atsegiña ere asko izaten da. Ez dauka idearik egiterik, atez ate ibili ez dan batek, zenbat kaso ikusi eta pasa bear izaten dan, eta batere kulparik gabe zenbat arrazoi txar entzun bear izaten diran.

Zuk badakizu zer lan dan, eta asko pentsatu joan bear dezu, al dan lasaiena eta trankillena, esaten dizutena entzuteko preparatuta; al dan suabena artzeko.

Leku guzietan eta lan guziak izaten du bere istoria. Kobradore edo zerbait kobratzera joaten bazera, eta pagatu nai ezik dabillena baldin bada, ura izaten da polita. Alakoak jaleoa jarri nai izaten du, pagatu gabe salbatzeko.

Bein Galdakaon pasatakoa etzait aztuko. An genbiltzan bueltaka ezin kobraturik; eta, ala, deitu diot. Bai atea iriki ere. Ezagutzen niñun. Etzidan itzik egiteko denborarik eman. Atea, *danba!*, itxi zidan; eta an gelditu nintzan zer egin ez nekiala pentsatzen. Nere buruari esaten nion:

-Au ere bai? Etzegok, ba, orrela aldegitetik, beste intento bat egin gabe.

Ala, deitu nion ez dakit bi edo iru aldiz. Obe nuan ez bazidan iriki. Laster aldegin bear izan nuan ateondotik. kutxilloa sartzea ez banuan nai.

Zer pasako eta or deitzen du *Sendoa*-ra esanez zerbait faltatu egin niola eta oso gaizki itzegiñez neretzako; eta, askotan, or ofizinan daudenak ez dute ikusten, eta baten arrazoiak baño bestearen gezurrak geiago balio izaten du. Leku askotan pasatzen dana da ori.

Ba, orrela ibili nintzan denbora-puska batean, *Sendoa* argitaldariaren liburuak banatzen, Euskal Erri guzia punta batetik bestera korrituz.

## Beste kiolariekin

---

**E**men kontatzen ari naizenetik aparte, oraindik ixilik daukat zenbat lan egin detan. Nere buruaz aparte, zenbat kirolari pasa da nere inguruan? Au ondo agertze-ko, liburu osoa bete liteke.

Orain ukuitu detan gai au ondo agertu ezkeru, bakarren batentzat mingarria izan liteke; eta igoal batentzako baño geiagorentzat. Zenbat urtez ibili naiz bati lagundu eta besteari? Ez dakit danak aitatzen erreza izango dan. Baña nik denbora geiena enpleatu eta lanik geiena egin diotenak izendatuko ditut.

Orain dala denbora gutxi, ETB euskal telebistaren kamararen aurrean kirolari batek deklaratu du ez duala iñoren laguntzarik bear izan. Berak izan duala naiko jakinduri, beste iñork baño geiago. Galdera izan zuan:

–Iruntxiberri zer moduzkoa izan da zuretzat?

–Bueno, bakarren bat ez da txarra izaten inguruan. Gustora ibiltzen da eta or ibiltzen da danekin.

Orrek zer esan nai zuan? Jakingo bazendute nik bezin ondo zer ikusi ta pasata nagoan tarte ortan berarekin... Argitaratzeko lan aundia, naiz danak buruko zañetan dauzkat sartuta.

Orain galdera txiki bat egingo dizuet: or Telebistan entzundako ori zer iruditzen zaizute? Egia ote da ez duala preparatzallerik bear izan? Ez da sekulan izan besteren laguntzarik izan ez duan kirolaririk. Etorri neregana. Nik

gogoan daukat orrekin egindako ibillerak eta oztopoak, noiztik eta nola ibilita gauden.

Gai au utzi atzera eta zenbat jenderekin kutsutu eta lardaskan ibili naizen jarri nai det bistan:

Agustin Zabaleta, leitzarra, korrikalaria, naparra.

Jose Mari Tapia, Asteasu, korrikalaria.

Agustin Landarbide, Aia, korrikalaria lenbizi, gaur arri edo kargajasotzallea.

Jose Aierbe, Ataungoa, korrikalaria, segalaria eta aizkolaria, istorikoa.

Jesus Mari Repo, Ataungoa, segalaria.

Fausto Mugertza, mutrikuarra, aizkolaria eta korrikalaria.

Elorriaga, aizkolaria, Zumarragakoa.

Arrisidor, segalaria, Belauntzakoa.

Antonio Jaunarena, Zubietakoa, naparra.

Felix Etxeberria, aizkolaria, Sunbillakoa, naparra.

Zelestino Aburuza, segalaria, oiartzuarra.

Jose Etxebeste, korrikalaria, segalaria eta aizkolaria, Igeldokoa.

Migel Mindegia, aizkolaria, eta korrikan ere ez da ibili gabea. Tolosako zezen-plazan aizkora eta korrika jokatzen ikusi nuan. Ezkurrakoa, naiz Zubietako partean bizi, naparra.

Donato Larretxea, Almandozko baserri batean jaioa, gaur naiz Bera-Bidasoan bizi dan, Napparroan. Kirolari aundia. Iru aziotara jokatuta dago jokoak: arri jasotzen, aizkora eta korrika, Tolosako plazan.

Ortik aparte, kirolari askok ibili bear izaten du, edo ibili gera trontzan, txingak eramaten, esibizio modura.

Kirolari geienak nastu bearra izan du lan diferenteak egiten.

Bueno, bakarren bat igoal izango da, nerekin kutsututakoa, aitatu gabe.

Barkatu: orain etorri zait burura Manuel Erasun, Aiakoa, segalari famatua eta aizkolaria.

Momentu ontan nere buruari eltzen diot eta esan: ni nola ibili naiz orrenbeste kirolariren inguruan? Seguru asko, danak nik baño geiago dakitenak. Amabosten ize-nak agertu ditut, eta badakit geiago ere badirala.

Kirolari guziak eukitzen dute beren istoria, eta nere inguruan pasa diran auei buruz gauza asko itzegingo nuke.

Bat, Leitzako Agustin Zabaleta, ezin det ixilik utzi. Kirolez aparte, gizon atsegiña. Eta bere familia, momentu ontan, aurrez aurre ikusiko banituzke bezela nago. Agustin onen ama eta aita eta anai-arrebak, zer pertsona gozokak! Zer gustora ibiltzen nintzan aien etxean eta nunai! Orain, zer esango nuke korrikalari bezela? Arek egiten zuan korrika errez eta gustora, eta azkar preparatu.

Asteasuko Olarrearen kontra joko bat jokatu zuan Tolosako zezen-plazan, zortzi kilometroan, buelta erdia bentaja artuta. Olarrea entrenatzen, Gabriel González eta Irazu zebiltzan. Agustin, nerekin bakarrik. Biok ondo uztartuta geunden. Garai artan nik ere aixa egiten nuan korrika.

Momentu artan, beste korrikalaria, Jose Mari Tapia, etxean neukan nerekin preparatzen. Olarrearekin joko eginda baizegoan, amar kilometrotara jokatzeko, naiz etziran allegatu. Jose Mari Tapiaren sozioak neri jarri zidaten mutilla, ondo preparatzeko ta ondo ordenatzeko. Bost edo sei illabetera jokatzeko joko zan, eta diru asko joka-

tzera. Garai artako berreun milla pezeta; 1973 edo 1974, ez nago seguru urte bat edo bestea. Ala, bi mutillak entrenatzen nituan.

Agustiñekin txoratzen nengoan, ondo zegoalako. Tapiarekin lan geixeago. Naiz ondo zijoan, pixka bat kosta egiten zan errenditzen. Pixka bat nere eskuetatatik atera egiten zan, eta soziedadeak etzuan nai emendik alde egi-tea. Entrenatzen, denbora asko dagoanean, pixkanaka joan bear du. Baña soziedadeak pruebak ikusi nai. Bi prueba egin arazi nizkion: bat Berazubin, pistan, zortzi kilometro; eta plazan, amar. Artean bi illabete ta geiago falta, apustua jokatzeko. Naiko ondo bi pruebak. Nik esan nien laguntzen edo dirua jartzen zutenei:

–Au naiko ondo dijoa pixkanaka igotzen.

Baña dana alperrik. Zerbait ikusi zuten. Jai-arratsalde batean, neri alde egin zidala eta botatako diruak galtzea pentsatu zutela. Neri pena eman zidan, gauza ortaraño ekarrita.

Urrengo egunean jokutzen genduan naparrarekin Olarrearen kontra. Tapiarekin botata zeuden diruak entregatu larunbat-gauean, eta urrengo egunean apustua jokat-zera. Ez nuan asko pentsatzen apustua galtzerik, edo ez gendun pentsatzen. Asteasuarraren alde nai zan aña diru, nola Agustin Zabaleta eta biok ixil-ixilik geunden ikusten genduanarekin.

Igande-eguerdiarekin jokatu zuten, eta ez naiz fetxaz akordatzen. Martxoa zan errezeloa, eta 1974. Ala, asi dira korrika, eta segituan ikusi zan. Ni albotik edo plaza-baz-tarretik Agustin ezin frenatu arazi. Nai etzuala korrika egiten zuan. Jostatzen apustua irabazita joan zan etxera.

Nik ez Olarrea desfamatzeagatik. Baña garai artan, Agustiñek bezin errez korrika egiten, oso gutxi ikusi ditut.

Uste det orrekin dana esanda dagoala. Nik egin nion amaika erregu:

–Preparatu ta beste edozein korrikalariri jokatuko zio-agu irekin.

Eta ortxe euki zuan okerra: etzuan serio artu nai izan.

Geroztik, ni gaixo nengoala giblelekoarekin, 1976 urtea izango zan, or ibili zan, jokoren bat edo bi eginda, Asteasuko Tapiarekin. Neregana etortzen zan, oian nengoan lekura, bisita egiñez. Kontseju batzuk nai izaten zituan, baña etzan len bezela preparatu. Ortan utziko det bi korrikalari auen istoria.

Urrengo korrikalaria, Agustin Landarbide, Aiakoa, izan nuan, gaixo egon da gero mueblerian lana egiten nuan garaian. Au naiko traketsa korrikan, baña jatea geiago gustatzen zitzaion. Berak nai zuten bezela apustua egin da gero, neregana. Ala ere, eman nion marraskatu bat. batere preparatu gabe zegoala. Nere esanei kasorik ez eta Asteasuko Irazurekin egin zuan jokia, Aiatik Getarira, joan da etorri, ogei ta amaika edo amabi kilometroan.

Nik esan nion nola egin jokia, eta:

–Iru illabete bear dituk nere etxean.

Esan banion, esan, ez alperrik! Aian bazeukan beste gizon bat nik baño geiago entenditzen zuana; eta asteleanean or joan dira Tolosara eta gauean or etortzen zaizkit etxera.

–Zer egiten dezute?

–Ba, egin diagu jokia, edo lotu diagu.

–Nola? –esan nien.

–Ola ta ola.



Ez nuan denbora askoren bearrik izan pentsatzen egoteko.

–Zeuen gustora egin al dezute?

–Bai. Beste gure lagun ori ere or genin.

–Ba, nai dezuten bezela artu. Joko ori Irazuri etzegok irabazterik –esan nien–. Nik iru illabete bear diagula, eta zuek berrogei egunetara jokatzeko apustua lotu. Amar kilo galdu bearrak. Denbora ortan etzegok milagrorik egiterik.

Amabost egun bazeuden luzatzeko, eta danak artu giñun, baña ala ere gutxitxo. Berak eta iñork pentsatzen etzuan lana egin arazi nion denbora gutxin. Izugarri mejoratu zan. Bi orduan ezetzean nai zan aña diru, eta ordubete eta 52 edo 53 minuturen azpitik sartu giñan. Justu-justuan joko galdu genduan, pena emateko moduan.

Ondo esanda, besterik etzuten merezi. Tartean alamo-  
duzkoak baizeuden, nerekin fiatu ezinda. Eta nik pagatu bear izan nuan, zer lan eta etxean euki genduan bezela.

Andik zortzi egunera beste joko bat gendukan Azpeitiko plazan, Itziarko Manzidorren kontra, zortzi kilometro. Aurreko jaieko palizaz recuperatzeko etzuan denbora asko, baña neri etzidan arek kezka aundirik ematen, Irazu eta ura ez diralako igoalak izan, eta naiz entrenadore onena zerabilkian: lenbizi nerekin ibili zan Gabriel González. Onek izugarrizko fama artu zuan, eta gero or sartu zan nere kontra Irazu, Olarra, itziartarra eta abarrekin. Alkarren kontra joaten giñan.

Ala, jende asko gure kontra joan zan Azpeitira, Landarbide ondo recuperatu gabe azalduko zalakoan plazara. Aixa irabazi genduan. Batenbatek igoal esango du:

–Ik irabazi al uan?

–Ez; barkatu. Len deskuidatuta esan det. Garai artan, Agustin Landarbide korrika asko egiten zuala jarri zan. Eta ondorenean zenbat mejoratu zan! Denbora askoan egon zan nere etxean.

Korrika-apustu bat eginda zegoan Errezilko bati jokatzeke; eta, oso ondo zegoala, kamioko markak egitera joan bear duala jarri zaio buruan, eta Goizueta-Leitza joan da etorri, berrogei kilometroko bidea, garai bateko marka egon bear du, geroztik iñor joan ez dalako ori egitera.

Alaxe, jai-eguerdi batean joan giñan ixil-ixilik, iñork etzekiala, prueba egitera, Landarbide nik etxean neukala, eta nola egin genduan nik badakit baztarren batean apuntatuta detala. Baña atzendu eta orain ez dakit nun izango detan. Bakarrik dakit amabi edo amairu minutu azkarrago egin zuala.

Ori ikusi zuanean, Landarbideri eman zion plazara etzala joango. Ala, diruak botata zeuden eta apustu ona gendukan. Nik esaten nion:

–Lenbizi apustu ori jokatu bearra zegok.

Uste det amar milla duro egongo zirala boteak.

–Ez nauk plazara joango, kamioko markak egitera baizik.

Alaxe, danak utzi ta alde egin zuan. Bere anai Manuellek eraman zuan desgustoa, ura ala ikusita. Korrika oso ondo egiten zuala jarria baizegoan.

Eta bear zan jana eman banio, zenbat egingo ote zuan? Baña arek bere gustoko klaseak nai izaten zituan. Nik pertsona normal bati bezela ematen nion, baña deskuidatuta nengoan. Agustin Landarbidek pertsona ta erdi edo biren errazioak bear. Geroztik makiña bat lekutan kontatu du Iruntxiberrik naiko jana etziola ematen. Orain ikusten

dezute, naiko jana arrapatu duanean, zer gizon egin dan, eta indarra saltzeko. Utzi deiotan orren istoriari, eta segi deiola ondo.

Kirol-munduan orrenbeste urtez bizitzea ez da broma. Nik lenbizi nere buruarekin asko sufritu nuan. Ba, askoz okerragoa da zenbait jenderen inguruan ibiltzea. Geure buruarekin alegiñak eginda ez bada ondo ateratzen, zeuk pagatuko dezu. Besterekin sartuta bazaude, beti bildurrez zaude, nola asmatu ez dakizula.

Au ere esan bear da: badago jende ona pranko, laguntzea gusto ematen dutenak, eta ondo portatzen diranak. Ez dira danak zaku batean sartu bear. Landare ona zaku batean, eta landare txarra bestean. Jesusek orrela apartatzen omen gaitu pertsonak.

Nik ere naiko bildur daukat ez ote naizen ondo portatu Jesusekin. Kirolariei laguntzen, bai, alegiñak beti egin ditut, al dan ondoena. Baña konprenditu bear ko didazute gaizki portatu naizenak ere izango dirala. Oso zailla da beti zuzen gertatzea.

Ni atrebitua naizelako ibili naiz korrikalariei laguntzen. *Lo mismo* edo berdin esan bear nuan segalariei laguntzen. Berdin aizkolariei laguntzen. Or markatzen ditut orrenbeste kirolari. Eta uste dezu orrenbeste kirolaritatik bakarren bat perfektorik, ezeren premi gabekorik, arrapatu detala? Esan bearra daukat: ez.

Bizkorrenak ere akats aundiak. Batetik bestera egoten da aldea. Batek arreta aundiz artzen du dana; beste batek erdizka; eta beste batek, belarri batetik sartu eta bestetik eskapatu, eta berari komeni zaiona edo iruditzen zaiona egin.

## Jose Aierbe batengatik zer esan?

---

**J**ose Aierbe batengatik zer esan liteke? Ez dakit Euskal Erri guzian olakorik ezagutu detan. Lengo batean Euskal Telebistan aitatzen nuan, galdera egin zidatenean kirolari batengatik:

–Lenbizi, kirolari bat ona ateratzeko, jaio egin bear da ortarako balio duana. Bigarren, bere buruan ortarako griña edo afizioa edo gogoa bear du. Irugarren, ondo preparamatzeko laguntza. Len esan ditudan iru gauza oietatik batek fallatzen badu, zer? Ez bada ortarakoa jaiotzen, naiz afizioa sortu, ez da bein ere danen gañera aterako. Eta ez badu afiziorik, alperrik egingo dizkiozu alegin guziak. Ortarako jaio eta afizioa ere badu, ez bada preparamatzen ondo, zer? Bai; or ibiliko da. Aurretxora joan ere bai. Baña igoa or geldituko da azkeneko saltora allegatu gabe, ez dalako ondo preparamatu.

Jose Aierberen kasoa ezagutzen al dezute, zer deportista edo zer kirolari izan dan? Lenbizi, ortarako jaioa. Bigarren, izan du afizioa. Irugarren datorren galdera egingo dizuet: bear bezela *a tope* preparamatu al da? Ori berak ondoena jakingo du. Orren kontestazioa berak ematea naiago nuke.

Nik geiena ezagutu detan kirolari bat bezela ez dakit preparamatuko zan. Alaz ta guztiz ere, badakizute zer eginga dagoan: ogei kana erdiko eta ogei kilometroko marka berea dago. Berrogei ta amar urterekin egindakoa, zer marka dauka Jose Aierbek? Ogei kana erdiko moztu eta ogei kilometro korritu, Tolosako zezen-plazan. Zer iruditzen zaizute?

Orain beste galdera: berrogei ta amar urte kunplitutakorik bai al dago lan ori egingo lukenik? Iñork jakin nai badu zer marka dauzkan, zein denboratan, berarekin itze gin eta enteratuko zerate. Bestela, erri-kiroletan dauden Federaziokoekin.

Nik askotan aitatu det Jose Aierbe. Alkar ezagutzeko motiboa izan degu. Lenbizi, alkarren kontra; gero, berarekin. Segan zeñekin ikasi zuan ez du aitortu nai izaten. Ori askorena da. Ni nola txikia naizen, lotsatu egiten dira nere izena aitatzaz. Ondo egiten dezute nik erakutsitakorik ez aitatzea.

Segan eta korrika akordatzen naiz nola irabazi zion Oiartzungo Misiyuari Ernanin, Jauregiko belazean. Neuk lotutako jokia zan, eta neuk eraman nuan. Baña gizon onen istoria ez dago orrela azaltzerik.

Beste apustu bat, istorikoa, jokatu zuan Aierbek Jose Etxebesterekin: amalauna tronko irurogei ontzako eta amalauna kilometro, Tolosako zezen-plazan, manorik mano. Amalau tronko, arrapatu ziran gogorrenak eraman ziralako irabazi zuan.

Garai artan Jose Etxebesteri apustu ori irabaztea zer zan askok ez dakite. Irabazi zuan *por churro*. Zergatik? Preparatu zalako kontzientziz. Orduan bezin serio Aierbe ez da preparatu sekula.

Nik ere gaur baño errezago korritzen nuan. Nik ere pasa nituan nereak apustu artan.

Orren apustuen berri emateko, geiago ere itzegingo nuke. Baña soka geiegi luzatzea izango da; eta zerbait gaizki esan badet, edo oker, barkatzeko esango diot, eta segitzeko fuerte, orain arte bezela.


Entzunda nago preparatzen segitzen duala zerbait egin asmotan. Ondo egingo du. Orrek osasuna izan du,

nik izan ez detana, ta ori da bearrekoa, kirola egiten segitzeko.

Len aitazen nuan bezela, kirolari bakoitzarekin zer istori pasata nagoan, danak ez dago agertzerik. Jose Aierberen istoria, erdia ere ez det azaldu.



Tolosako zezen-plazan, 1973ko abuztuaren 26an, Aierbe eta Iruntxiberri alkarren erreleboa eginez.



Ordizin gerri bueltan iru metroko enborra moztutakoan.

# Fausto Mugertza

---

**B**adauzkat seme geiago, esate baterako, korrika ibiltzen nerekin ikasi dutenak.

Zer pasatzen da semeei erakusten ibilitako aita zar batekin? Eskertzen al dute? Zenbat eta mesede geiago egin, orduan da gutxiago agradezitu. Badakizu nola erantzuten dizuten:

–Aita, zuk baño geiago dakigu guk. Zuk dakizuna jakiteko, nik ez det maisu bearrik izan.

Ni tontoa izana ez du iñork kulparik, eta kanbiatzera noa musika.

Orain aitatzera noan seme Fausto Mugertza mutrikua-rragatik zer esango nuke? Danok badakigu, edo ezagutzen degu, baratzuria zer fiña izaten dan. Ba, nik esango nuke oraindik fiñagoa dala Mugertza.

Kirolaririk bada saiatzen danik, bat Fausto Mugertza. Preziso apustu asko ez ditu jokatu; baña baditu emanak bere frutuak. Aizkoran eta korrika oso ondo ibili da, eta azken urte auetan gelditu gabe esibizioetan, bost metroko alturan aizkoran, eta zertan ez? Igoal da aizkoran, korrika, trontzan, danera.

Garai batean buelta pranko egindakoa naiz Mutrikuko Olatz barriora, Fausto bizitzen dan baserrira. Apustu bat baño geiago baditu irabaziak; baña baten berri emango det.

1992 urtean, Ekainaren aurreneko igandean, *Corpus Christi* eguna ospatzen zan, eta egun orretan jokatu gen-



duan, Azpeitiko zezen-plazan, aizkol-apustu famatua: ogei kana erdikotara, egurrak erdi bana plazaratuta.

Faustoren kontrarioa, Migel Mindegiaren anaiaren semea, Naparroako Mugairen bizitzen dana. Migel fama-tuaren illobaren kontra, beraz.

Apustua oso errez irabazi zuan Fausto Mugertzak. Nik ere banuan partea. Jokoa nik egin nuan edo lotu nuan; eta entrenamentu-lanak edo alboan ibiltzea eta egur-goraberak nere kontu izan ziran.

Apustu artan diru asko jokatu zan; alkarrri zortzireun milla pezeta, milloi bat eta seireun milla zeñek jaso. Eta ortik aparte jokatu ziranak.

Kirolari geienak ez dute egur txarrik ikusi nai izaten; eta kosta zitzaidan Fausto ere ortara mentalizatzea. Etzuan nai izaten egur gogorrik. Zeñek nai izaten du? Gure kontrarioak etorri ziran egur gogorrekin; eta orduan ura ikusiarekin, guk, egur gogorra eta ona prestatuta nola genduzkan, egur onak plazara. Egur txarrak an gelditu ziran beste kamioi batean.

Fausto Mugertzak ezin esango du egun artarako etzala ondo preparatu. Zer txukun lana egiten zuan! Eta fonda? Fausto ere ortarako jaioa izan. Mutil gogorra.

Au ere esan bearra dago. Ez pentsa Faustok lana utzita, kirolari batzuk bezela, egoten zala preparatzen ortarako. Bere lantokira goizero, eta andik etorri eta entrenatzera.

Au esaten edo kaleratzen edo argitaratzen ari naiz, onen berri ondo dakitalako. Eta ez det uste gaizki artu bear duanik. Egiak argitzen bakarrik ari naiz; eta zerbait gaizki edo anka-sartzeren bat izan badet, barka idak, Fausto.

# Felix Etxeberria

---

**N**aparroako Sunbillan ere izan det beste seme bat: Felix Etxeberria. Onen istoria ondo kontatzeko edo argitaratzeko, zenbat eskribitu liteke?

Au dala, urte asko dira. Garai artan, Donato Larretxearekin nenbillen Bera-Bidasoan; eta, ala, Etxeberriak aizkol-jokoa jokatzeko lotu ziran, len aitatzen nuan Mindegiaren illobaren kontra. Ogei kana erdiko, erdibana plazara eraman da jokatzeko, Donezteben,

Neregana etorri ziran. Bueno, zitatu giñan jai-arratsalde batean, Bera-Bidasoan, Larretxearen entrenatzeko lekuan; eta nik ikusi egin nai nola zegoan.

Ala, jarri ziran lau edo bost kana erdiko. Egin arazi nizkion beroketak, eta etzuan asko geiagoren bearrik. Bi edo iru kana erdiko ezin moztu. Segituan esan nien:

–Zer egin dezute, mutillak?

An baziran bere lengusu eta lagunak, jokoa egiten parte artu zutenak.

Esan bearra neukan: «Nola egin dezute jokoa, batere preparatzen ikusi gabe?».

Udaberria zan eta denbora gutxira jokatzeko. Etzegan zer egiñik. Denbora bear zuan preparatzeko, eta ura falta.

Ekainaren aurrenean jokatu genduan, izugarritzko beroarekin. Oso apustu ona jokatu zuten. Denbora gutxian asko mejoratu zan. Illabete geiagorekin izango ziran komeri ederrak.

Esan nai nuke nola ezagutu nuan Etxeberria, eta noraño igo dan aizkolari aundia, nere eskuetatik eta nik kuidatuta; nik entrenatuta, Ni bere alboan ibilita, ez dakit nola esan; gizon txikiak, naiz alboan ibili, itzal txikia egiten du. Len Faustorekin bezela esango nuke: beste apustua danak utzi alde batera, naiz bat baño geiago badauzkan irabaziak.

Baten istoria: 1993-an, Maiatzaren 3-an, jokatu genduan, ni laguntzalle nintzala Doneztebeko frontoian. Zer aizkol-joko ederra!

Orduan ere oso berde zegoan, jokoa lotu zan garaian. Esan nai nuke: oso gutxi entrenatuta. Ala, Barberena etorri zaio jokoa egin naian, eta bentaja eskatzen zuan, tronko bentaja, ogei kana erdikotara. Bestela, egur danak plazara ekartzeko eskubidea.

Nik pentsatu nuan, egurrak danak ekartzeko eskubidea emanda, zer zetorren. Ala, esan diet:

–Bueno, jokatu egin bear zioagu. Jokoa lotu eta bi illabetera jokatzera.

Bai serio artu ere egin genduan. Ala, egin giñun geren planak. Bera-Bidasoan ari zan lanean, gaur bezelaxe, Fundizioan.

Lantokitik gertu, frontera ondoan, famili jator batek etxe-bizitza utzi zigun geure kontura, Felix Etxeberria ta biok kontzentratzeko. Etxe aurrean jarri genduan kamioikada bat tronko, entrenatzeko. Oso leku polita euki genduan.

Nere lana, lenbizi, erosketak: zer bear nuan sukaldaritza egiteko. Jango bazan, neuk neukan preparatu bearra edo sukaldaritza egin. Zer komeni zan jan edo nola alimentatu, eta etxeko lanak. Biok bakarrik egin giñun bi illabete. An etzegoan iñori aitzakirik ematen asterik: “Au gaizki jarri dezu, au ez da ona” ta abar.


Neu nengoan konpromiso latza artuta, bai jaki edo alimantu aldetik eta bai zer entrenamentu egin arazi. Dana nere esku. Ez dakit nola atera zan. Suerte pixkaren bat izan genduan danak zuzen ateratzeko.

Kontrarioak, egur guziak, ogeina korte, iñon arrapatu zituan gogorrenak, plazara bezperan, nola zeukan berak eskubidea nai zituan bezelakoak ekartzeko. Nik esperatzen nituan bezelakoak azaldu ziran. Ez balitz Felix Etxeberria preparatuta joan plazara, zer pasako zan? Ogei kana erdiko, arria bezelakoak, gogorrak. Lana kurioso eginda irabazi zuan apustua.

Ez pentsa, Lekunberrin bizi dan Barberenak etzuala lana ondo egin. Izugarrizko lana eginda galdu zuan. Ogei kana erdiko egur onak ebakitzea dala, kasi doblatu egiten da egur txarrekin. Etxeberriari entzunda nago, denbora gutxin eta lana egiñez orduan bezela ez dala iñoiz preparatu.

Etxeberriaren laguntzalleak bere anai Jose, Ezkurran bizi dana, aizkorak ematen, eta erakuslele bezela Iruntxiberri izan giñan. Suerte izan genduan ondo ateratzeko, eta amen!

Geroztik ere baditu Etxeberriak irabazitako aizkol-apustuak. Beste batean ere neuk eraman nuan; baña danen esplikazioa emateko ez daukat lekurik, emen kale-ratu bear detan liburu ontan. Eta Felix Etxeberriaren istoria utzi eta aurrera jarraitu nai det. Beste ainbeste gauza dauzkat oraindik buruan.



Zegaman zutitako kanako enborrekin burrukan.

# Mindegia

---

**D**onato Larretxea daukat ezin burutik kenduan. Benetan aizkolari elegantea eta aundia, kurioa. Ez du suerte geiegi izan. Osasun aldetik urte askoan dago sufritzen, ditxosozko *hernia de disco* dala-ta. Alaz ta guztiz ere, naiko komeri ez al du ematen?

Nere buruak lotsa ematen dit, naiko saltseroa izan naitzela. Ni allegatu nintzan Donato Larretxearen kontra Mindegiarekin Tolosako zezen-plazan aizkol-apustua jokatzeko, eta aixa irabazi zion Mindegiak.

Alderantziz, garai artan Donato Larretxea nola preparamen zara? Ba al zuen bear aña laguntza preparameneko? Nola joaten zara plazara? Ortxe dago galdera.

Ni aspertuta nago gauza au esaten. Bi kirolari aundi, posibilidad berdiñekoak, zeñek irabazten du? Tontoenak ere badauki: ondoen preparamen danak.

Nik nere buruarekin naiko sufritu bearra izan det, kirola dala ta ez dala. Ez dakit nolatan allegatu nintzan Migel Mindegia bizitzen dan Zubietako partera. Baserria Azkarate mendi punta-puntan. Ni lenbizi ara joaten asi nintzanean, ezagutu nuan nik ezagutu detan aizkora-maisu aundiena. Aizkora manejatzen, kortea eramaten, nik ikasi nuan pixka, arekin ikasi nuan.

Bera Ramon Latasa zana da, Sunbillakoa, zeruan deskantsa dedilla. Ez dizut esango mutilla preparamen zekianik, edo entrenamentuak ondo eramaten zituanez. Ori beste mundua da.

Ba, len esaten nuan bezela, Ramon Latasa joaten zan Mindegiarengana, kortean erakustera. Ni, ari begira, oso gustora egoten nintzan. Ni ara joaten asita, zerbait akordatzen naiz ura ikusi nuala; baña oso denbora gutxin. Ni artean gaztea nintzan. Geroztik nik an pasa ditut urteak.

Furgoneta *Mercedes*-ak zenbat lan egin bear izan zuan lau edo bost urtez? Endaiatik Mindegiaren etxera, egiten zituan esibizioetako egurrak eta plazan jokutzen zituan apustu guzietako tronko guziak, nik erabiltzen nituan.

Garai artan gaur baño gerri eta sasoi obeak neuzkan, eta bearra izan nuan. Entrenamentuetan moztutzen zituan tronko guziak, bakar-bakarrik jarri plazan, bear ziran bezela. Ez gaur bezela: iru edo lau lagun egur jartzeko, motosierra eta guzi. Orduan, tronkoak, bakarrik, motosier-rarik gabe, danak aizkoraz jartzen nituan nik.

Entrenamentua bukatu ordurako, asten nintzan moztutakoak askatu, garbitu eta *benga* berriro, urrengo entrenamentua preparamen. Entrenamentua egin bear zanerako, dana presto eukitzen nuan.

Beroketak egitera, biok joaten giñan korrika. Atera Mindegiaren etxetik eta Saldiasa joanda, joan da etorri zortzi kilometro egiten giñun geiengan, eta beste saioa jinasian, aizkoran asterako. Nere akolito-lana orrela izaten zan.

Orretaz aparte, baserrian, naiz ikulluan eta naiz kanpoan, edozer gauza edo edozein lan egiten nuan. Ortik aurrera ez noa ezer kontatzera.

Mindegiaren etxean, etxeko baño geiago sentitzen nintzan famili osoarekin, bai Migelen andrearekin eta bai bere seme-alabekin. Aitona Juan ere an ibiltzen zan.


Seme-alabak artean oso umeak ziran, mutil txikiak eta neska txikia. Gaur ezin esango det mutil koskorak dau-

denik eta neska koskorra dagoanik Maite, Maria Jesusen eta Migelen alaba maja. Eta iru semeak, zein baño zein fuerteagoak.

Migelen apustu-istoririk ez noa kontatzera. Danok badakizute zein izan dan eta zein dan, nik baño obeki.

Nik, ainbeste denbora beraren inguruan pasa ta gero, erretiratzea pentsatu nuan, eta etxerako martxa artu nuan.





Tolosako zezen-plazan, 1974ko apirillaren 28an.

# Larretxea, Mindegia, Olasagasti...

---

**B**aña ez dakit nolatan, Donato Larretxea nere billa presentatu zan, esanez meza ematen bazekiala, baña bere ondoan akolito bat ez litzaiokela gaizki etorriko.

Len ere ezagutzen nuan ordurako naiko bakarrik zebillela, eta sentitu egin nuan, eta animatu egin nintzan berarengana arrimatzerara.

Momentu artan izugarritzko aizkol-apustua lotuta zegoan Larretxea, Jose Mari Olasagastiren kontra jokatzeko: ogeina kana erdiko eta zortzina larogei ontzako egurrak, erdi bana presentatzeko plazara. Olasagastik, zortzi larogei ontzako tronko aundi plazara. Larretxeak, ogei kana erdiko plazara.

Olasagasti lan billa joan zan, egur gogorrekin alegia, Donatorentzako lan geiegi izango zala pentsatuta. Artean etzuan pasa Donatok olako lanik edo ain lan gogorrik. Ez pentsa ura broma zanik.

Gorriak erakutsi nizkion. Ez dakit nola abuantatu zuan onako akolito onekin. Bi illabetez jarri zan dana aguantatzen zuala. Bai apustua irabazi ere aidoso Olasagastiren kontra.

Ziur ez nago, baña uste det 1988 urteko Martxoan, aurreneko jaian, Tolosako zezen-plazan jokatu genduala. Ni akolito, aizkorak eramaten eta botillero. Bi orduko lana edo geixeago izan zan.

Urte berean, Larretxearen eta Migel Mindegiaren apustu famatua jokatu zan, Abenduaren 24-ean, Gabon-egunean: berrogei kana erdiko, bakoitzak egurrak erdibana plazaratuta.

Lengo Olasagastiren kontrako apustuan esaten nuan nola pentsatzen zuan Donatorentzako lan geiegi izango zala. Lana luzatzera joan zan Jose Mari Olasagasti. Ustedet konfunditu egin zala.

Ba, orain dator bigarren kaso. Ba, Migel Mindegiak, nola ondo preparatuta zegoan eta izugarrizko aguantea zeukan, berdin pentsatzen zuan. Donatori lana luzatu ta aixia menderatuko ote zuan. Naiz ikusita zegoan, Olasagastiren kontra jokatu genduanean, zer resultado emanda zegoan, ala ere ezin sinistu Mindegiak, Donatok eman bear zionik tope. Len oso errez menderatzen baizuan Mindegiak Larretxea.

Danak badakizute Mindegiak beste inguruko akolitoak baño geiago zekiala preparatzen. Etzuala iñoren bearrrik eta droga artu bearrrik, premirik etzeukalako. Ba, antxe konfunditu zan edo konfunditu ziran bera eta beste inguruan zebiltzan laguntzalleak.

Ez pentsa apustu artan ere etzuala laguntzailerik. Nik asko ezagutzen detan Migel Iruetagoiena, oso laguntzalle ona, eta Lorentzo Apezetxea, aizkorak eramaten eta botillero

Onek oso ondo jokatzen du plazan. Asko balio du. Orain dala denbora gutxi, Donezteben jokatu genduan Senosiainen kontra Migel Mindegiarekin, eta or Lorentzo Apezetxea eta biok izan giñan plazako akolito.

Len asi naiz nola jokatu zuten Mindegiak eta Donato Larretxeak berrogeina kana erdikotara, Tolosako zezen-

-plazan, Gabon-egun aundian, Jesusen jaiotzako bezperan. Etzait egun ori aztuko bizi naizen bitarte.

Len aitatzen nuan bezela, Mindegia lan billa etorri zan plazara, ogei kana erdiko iñon esistitzen diran egurrik gogorrenekin. Donatoren aldetik, egur normalak. Ala ere, bazan naiko lana. Ogei korte alakoak, egur onekin, ogei ta amazapi edo emezortziren lana dute; eta beste ogei, berrogei ta amazapi edo berrogei ta emezortziren lana. Uste det badala zerbait.

Egun artan etzuten asko pentsatzen, ez Migelek eta ez inguruan zebiltzan koadrillak, zer gertatuko zan.

Ala, asi gera jokutzen, eta lenbiziko amar tronkoak arria bezelakoak ebaten. Minutu bat pasa artu zion bentaja Larretxeak Mindegiari; eta erdi-lanetarako, menderatuta. Andik aurrera, Donato nai zuan bezela bentaja kentzen.

Ni, bere alboan akolito, Donato ezin frenatuz. Pena ematen zidan, len Mindegiarekin ainbeste urtean ibilita nengoan eta ala ikusteak. Bi kana erdiko bentaja kendu zizkion; eta, ni ez banitz bere ondoan egon, egun artan lau tronko kenduko zizkion. Nik ez bainion aizkora ematen.

Bueno, au irakurtzen dezutenak esango dezute:

–Nola liteke Mindegia bati ori egin?

Ba, ez nuke esan bear, baña garbi aitortuko dizuet. Askok eta askok garai batean esaten zuten:

–Iruntxiberrik droga ibiltzen dik.

Eta uste det arrazoi zeukatela ori esaten zutenak. Nik Donato Larretxeari ikusten nuan zerbait sartu bearra, eta droga emango nion eta ezin gelditu. Orixe izan zan nere okerra. Lotsa bear nuke gauza au deklaratzera edo konpentsatzea.

–Bueno, Donato: aspaldiko gauza da eta ez gaizki artu, au kaleratzen detalako. Barkatu bearko didak. Nik ere gauza asko entzun bearra izan diat, ona baño txarra geiago. Ala ere, danei barkatzen ziet.

Izan ere, ni Donatorengana bueltaka asi nintzanerako, akordatzen naiz nola kejatzen zan. Bizkarreko ezurretik zer sufritu zuan eta zer sufritzen ari dan, berak bakarrik daki. Zenbaiten osasuna izan balu eta zenbait kirolari bezela preparatu bazan, zein izango zan? Dabilen bezela ibilita ere, ez al du naiko lana eman?

Badakizute danok Jose Mari Olasagasti txapeldun aundia dala, eta Donatori lau joko irabazteko zerbait izango da.

Onen anai Patxi ez det aitutzen. Orri ez dago drogarik ematerik. Bestela ere, naiko nerbio eta bizitasun jartzen du. Ez du entrenamentu asko egiteko denborarik. Bere mendi-negozioetan sartuta dago *a tope*.

Alaz ta guztiz ere, kirol-mundua mugitzen du. Txingak eramaten, txapelduna. Arri jasotzen ere egiten du. Trontzan zer esanik ez. Aizkoran ere bai. Korrika ere bai.


Ortik aurrera zer esango dezu gizon onengatik? Len esan detan bezela, kirol-klase guzietan defenditu, eta klase batzuetan defenditu baño geiago. Txapelduna ez da edozein izaten, eta entrenatzen oso denbora gutxi galduko du. Ortarako jaioa.

Len esan detan bezela, mendiko konprabentak eta mendi-lanetan artista aundia. Ez noa geiago sartzera, nere lagun Patxi jatorra.

Len ukuitu det nola ibiltzen nintzan drogarekin, askok esaten zutenez. Nik ere gazte denboran artzen nuan, baña gero or gelditu nintzan bestei ematen niela, baña neretzako falta. Orain, ez besteentzako eta ez neretzako. Danak

bukatu ziran edo ez det iñon arkitzen. Nola kotxe bat gel-  
ditzen da karburadorerik gabe, ez gasoil eta ez txispa?  
Berdin gertatu zait neri.

Bueno, ainbeste kirolari ukuitu ditut, eta zerbait dan-  
tzatu ere bai. Baña emen, kaleratu edo argitaratu nai  
nuken liburu onetan, ez dago danen istoriak ondo argitze-  
rik; eta ostera nere buruarekin sartzen naiz. Ainbeste  
egunkari, *hoja* edo periodiko zar dauzkat jasota.



Arruitzko Txikia, Juan Kruz Azpiroz, eta Iruntxiberri  
Tolosako zezen-plazan, 1964ko apirillaren 28an,  
atzetik arrapatu eta pasatzen asteko unean.

# Polipaso

---

**E**men asi naiz pixka bat aztertzen eta emen agertzen det Polipaso famatuarekin nola bi joko eginda edo jokatu-ta gauden.

Lenbizi, amarna milla duro bota giñun, kanako tronko bana moztu eta launa kilometro korritu. Señaleak botata zeuden; baña aiek galdu gabe, amar milla duro galdu gabe, beste bi joko egitea fabore eskatu zidan; eta nik ameto eman nion.

Donostiko *Urola* jatetxean, Martxoaren 20-an, 1982 urtean, bildu giñanean, Polipasok eukiko zituan berrogei ta amazapi urte; Iruntxiberrik, berrogei ta bost. Artean bastante gazte sentitzen nuan nere burua.

Bi joko zerratu edo lotu giñun. Lenbiziko apustua, Tolosako zezen-plazan, Maiatzaren 16-an jokatzekoa zan. Baña Polipasok zortzi eguneko atzerapena eskatu zuan, eta larunbat-arratsaldean, 22-an, jokatu genduan, bina kanako enbor moztera.

Ni amabost minutu aurretik asi nintzan. Bentaja ematen baizidan amabost minutu. Baña dana alperrik. Apustu onek baditu naiko komeri. Aizkoran apustu ortarako bezela ez nintzan bein ere preparatu.

Bi joko lotu giñun egun batean. Lenbizikoa, aizkoran jokatzeko; eta bigarrena, segan. Ordu betean manorik mano jokatzeko, Ekainaren 20-an, Orioko San Martin kanpan. Bi apustuetako dirua edo apustu bakoitza berrogeina milla duro, lareun milla pezeta zeñek jaso.



Ala, joan gera Tolosara. Goizean jarri ziran tronkoak. ortarako esan bear nuke Polipasok plazaratu zituala egur danak, eta erdibana jarri. Jokatzeko denboran, laguntzalle bana, dirijitu eta aizkorak emateko. Nerekin Migel Mindegia famatua izan zan.

Ez naiz sekula apustu ortan bezin lotsagarri gertatu plazan. Egurra ebateko abilidadea bai, eta egurrik ezin bukatu. Badakizute kanako tronkoa nolakoa dan: bi metro ta erdi bueltan. Ez bada ondo artzen gañetik kortea, barruan ezin ondo eman errematea.

Ala, oso ondo asi nintzan. Gogo batekin... Amar minutan erdi izenekoa moztu ta bigarren aldetik. Jaupa batean jende guzia animatzen. Dirua, *mil a trescientos* apustuak. Ederki ikaratuak izango ziran nere kontra diru jokatzeraz joanda zeudenak.

Danak alperrik. Tronkoaren barrena sartu ta aizkorarekin nun jo ez nekiala. Kortea itxi ta aizkorak ez du lanik egiten. Ura zan penagarrikeria! Jo alde batetik, jo bestetik, eta egurrik ez libratzen. Ogei ta bat edo ogei ta bi minutan moztu bear nuan tronkoa, ogei ta zazpian egin nuan.

Ori pasa da, aurreneko tronkoa, eta bigarrena asunto berdiña. Tronkoaren barruan bost minutu, aurrenekoan bezela. Ori ez dago aztutzerik. Apustua galtzea bat da, eta bestea abilidadea euki eta egin zidaten burla.

Jakingo dezute, ba, ia berrogei ta amar urterekin Doneztebeko frontoian, urteko ferietan, Jose Mari Olasagastiren kontra, iru metrokoa zutik Olasagastik, eta nik kanakoa. Aurretik bota nion, eta batere entrenatu gabe joanda: 23' 30". Federazioko gizonak edo juzgalari zegoanak ala esan zidan:

–*Si no lo veo, no lo creo*, Iruntxiberri.

Iruñekoa zan, nola Naparroan zan.

Len esan bezela, punta-puntan preparatuta joan plazara, eta berrogei ta amar minuturen azpitik ebaki bear nituan ondo joanda; baña ez 55' 56"-an, pasa nuan bezela.

Egun artan manorik mano izan bagiña, ikusiko zan. Orduan baño gutxiago preparatuta ebaki ditut bi kanako plazan, batere erakuslerik gabe joanda. Orrela izaten dira apustuko gauzak. Bi begi gutxitxo izaten dira askotan. Lau begi bear, zerbait ikusteko.

Egun artako nere kontrarioa, Polipaso, kirolari aundia izan zan, eta ona egun artan egin zuana, berrogei ta amazpi urterekin: bi kanako ogei ta emezortzi minutuan moztu oso ondo.

Plazan ametitzen ez dan gauza egin zion laguntzalleak. Federazioko kargu daudenak bein txilibitua jotzen dutenetik aurrera, kondizioak jarrita daude, edo reglak. Gizon txikia izan edo aundia izan, berdin kunplitu bearra dago. Ez zuten kunplitu.

Tronko gañera igotzeko ez dago eskallera edo sillarik erabiltzerik. Egun artan, silla bat jarri ta lagundu zion laguntzalleak, Federazioko gizonen aurrean. Ori ez da legean sartzen, edo ez dago autorizatuta.

Zer iruditzen zaizu? Batzuentzako beti dana libre. Nik askotan ikusi ditut gizonak balantzaka, egur txiki baten gañera igo ezinda. Ala dagoan gizona, ez da bereala kanako tronkoaren gañera igoko.

Polipaso aundiak, eun da geiago kilorekin, zer laguntza, metro bat alturako tronkoaren gañera igotzeko, silla bat jarrita!

Bere lana bukatu zuanean, nik kolpe bat nun jo ez nekiala, kortea itxita zegoalako, burua altxatu nuan gora eta an ikusi det Polipaso neri begira. Bakarren batek esan omen zion:

–I, Migel: gaurkoa irabazi dek. Eta zer iruditzen zaik orain daukazuten beste apustua jokatu bearra, berdin-berdiñean?

Ba, orrela kontestatu omen zuan:

–Bobo orrek ez dauka zer egiñik nere ondoan. Nik orrekin apustua galtzekotan, etzanda lurrean jarri bear.

Laster enteratu nintzan zer esan zuan.

Ba, noizbait jetxi nintzanean tronko gañetik, bukatuta, nere arrabiarekin plazan korrika asi nintzan. Bakarren batekigoal esango du, au irakurtzean:

–Iruntxiberrik apustua galtzen etzekian.

Ez; ondo ikasi bearra izan nuan, nai baldin banuan eta ez banuan. Baña apustua zer nolatan galtzen nuan ni konturatu gabe oso gutxitan gertatuko zan. Desgusto ederra pasa nuan egun ortan. Aurrera segitzeko batere animorik gabe egun batzuetan. Momentu artan ez nuan kasik iñor animatzeko. Or entzuten asi nintzan, nigatik nola esaten ari ziran:

–Gizaixo orrek obe likek botatako diruak entregatu Polipasori eta etxean gelditu.

Ordurako, ogei milla duro botata neuzkan; eta, nik kontu oiek entzunarekin, sututa jarri nintzan. Nere buruari esan nion:

–Nik abilidadea euki eta danak parre egin ote die?

Ba, laguntzalle bat edo bi falta nituan, sega erreminta preparatzeko eta eskua emateko. Len ere amaika lagundutako gizona neukan Iruran: Inazio Arregi. Joan da itze gin det, eta egin det lendabiziko entrenamentua.

Bigarren laguntzallea, Inazioren illoba, Belauntzakoa, eta bera ere Inazio Arregi. Oso jende jatorra.

–Bueno, Iruntxiberri: oso apustu peligrosoa eukiko dezu; baña, nai badezu, osaba-illobak artuko degu parte. Erremintak preparatu ta biak joango gera plazara laguntzalle. Batek zorroztu ta besteak eskua eman.

Lau aste eskasak neuzkan segan entrenatzeko. Artu det berriro ta serio asuntua, aurrera beste berrogei millana duro botata, danak galdu edo lengoa erremeditzera.

Ekainaren 20-an, 1982-an, arratsaldeko seiretan jokatu genduan, Orioko San Martin barriotan.

Urte ortan oso legorra izan zan udaberria, eta oso belar arriña, belar sekatua, zegoan, biontzat berdin. Kiloak atera-tzeko, azpiari eldu bear.

Belar biltzeko eta pisaketak egiteko, badakizute sei laguneko taldea bear izaten dala. Bai ekipo jatorra! Danak Aiakoak. Bai portatu ere zuzen asko!

Len jardun naiz aizkol-apustuetako kontuak esaten, Ba, sega-apustua oraindik peligrosoagoa da, ez badezu zerekin ekipo pin bat jokatzeko, jendea ta laguntzalleak, Kirolari batek, inguruan ibiltzeko jende piña bear du, ta ala ere naiko lan izaten da.

Orrelaxe, Orioko San Martin belazean gertatu ziranak. Apustu gogorra izan zan. Oso gustora joan nintzan lanera, eta ez nuan oztoporik izan, eta apustua irabazi. Asi ta bukatu korrika. Etzegoan beste erremediorik jokoa irabazteko.

Polipaso ere ez baizan gelditu, eta oso fuerte. Nik uste baño geiago abuantatu zuan, eta nola belarra ebaki! Laguntzalleak ere ederki saiatu ziran: Aiako Manuel Izeta eta Igeldoko Txomin Alkorta. Etzuten asko uste pasa zana pasa bear zuanik.

Len berak Tolosako plazan esan zuan bezela, nerekin jokoa galtzeko etzan egin bearra zeukala, egiñalak eginda

ere etortzen dira galdu bearrak: eun da amazazpi kiloren aldea kendu nion.

Eta orrela bukatu zan Polipasoren eta Iruntxiberriren auzia.

# Omenaldia

---

**G**eroztik ere zerbait ibili naiz plazan. Gizona zartu eta G etsi ezin eta izugarrizko anka-sartzeak egiten dira.

Nik sasoia nuanean nere ondora arrimatzen etziranak, edo arrimatuko etziranak, edo nere marketara sekula allegatuko ez diranak, igoal sartzten zera eta igoal zure debilidadea aprobeztatzen dute, batetik edadea pasata daukazulako, eta aparte gaixorik plazara. Ori nere falloa da: gutxiago danari apustua erregalatzera joatea.

Baña aztu ditzadan nere apustu-istoriak. Naiko aspergarri izango da emen kaleratzen detan liburu onen argitaratzea edo agermana. Azkeneko pesadilla ta sufrimentua, irurogei urte eginda edo kunplituta, nola okurritu zitzaidan zezen-plazara, amar kilometro egitera, joatea.

Ainbeste edo urte batzuk korrika utzita nengoan, nere bizimodua defenditu bear eta. Legazpin ere an euki nuan ostatua, E. A.-ko etxean. Lan asko egin bear izan nuan. Lur jota zegoan etxea. Iñork artu nai ez ta ni animatu. Eman nion garbitu ederra eta altxatu. Ni sartu nintzanean añako zikin-usairik etzuan nik utzi nuanean.

Inbiria sortu zan eta uraxe bear zutela an zebiltzan batzuek. Juntakoen laguna nola zegoan, desimuloan ari ziran. Baña ni konturatuta nengoan. Ala, alde egin genduan ura utzita. Bi urte paseak egin giñun; eta, len esan detan bezela, lan asko. Arpegi txarrak ikusiz etzuan merezi. Orduan ura bear zutenak ere aldegin bearra izan dute.

Nik batean edo bestean saiatu bearra izan det, eta bai defenditu ere orain artekoan.

Len esaten asi naiz nola buruko aizeak jo zidan irurogei urterekin, eta asi nintzan korrika, pixkanaka kilometro batzuk egiten, eta bastante ondo abuantatzen. Baña sua-bean eta belozidade txikian. Pixka bat fuertexeago jotzen asi ta tiroia berriz, ura sendatu eziñik. Berriz ere suabean ibili bear.

Kilometro-mordoska bat sartzen nuan. Amar kilometrotik amabostera ibiltzen nintzan, beti bildurrez *seriek* egiteko, kanbio edo kanbioko entrenamentuak *a tope* jo gabe.

Azken aldera, berriz tiroia jarri. Akabo nere festa. Alaz ta guztiz ere, bastante gustora sentitzen nuan nere burua. Azkeneko astean ere, entrenamentuak ondo egin nituan. Entrenamentua suabe, igandean jokatu bear eta.

Ala, larunbat-goizean joan naiz tentsioa ikustera, eta bajutxo. Andik aurrera, nerbioak bakarrik. Lo obeto egiteko, pastilla txiki bat artu nuan larunbat-gauean.

Jai-goizean, oetik jekitzeko gogorik gabe. Euria egiten zuan. Amar t'erdia, amaikak...

Iruntxiberrik irurogei urte egin zituan 1997-ko Abenduaren 18-an, eta ni joan nintzan Tolosako zezen-plazara 1998-ko apirillaren 5-ean, eguerdiko amabi t'erdietan. Eguna ta ordua jarrita zeuden; ederki anuntziatuta ere bai.

Festibal polita montatuta zegoan: arri jasotzen, Goenatxo; aizkolariak, Erasun eta Donato Larretxea; trikitilariak, Azpiroztarra eta bere laguntzalle pandero-jotzalle tolosar bat; bertsolariak... Euskal Irratiak parte artu zuan, eta nola saiatu ziran propaganda egiten nere omenez!

Or zegoan *Sendoa* argitaldaria: Joakin Beraqsategi, nausia ta bere familia; bere anai Jesus eta bere inguruan dabilzan ainbeste lagun. Egin zuten alegiña nere onerako, eta Joakiñek egin zidan eskupeko oparia.

Orduan zein zegoan konpomiso aundiagua artuta? Zerbait egin bearra neukan, eta batere gogorik gabe plazara atera bear.

An neukan beste gizon bat, kategori aundikoa, altabozetik festibala presentatzen: Jose Mari Iriondo. Publikoa ere bastante ondo. Jende ura izan bazan frontoi batean, askoz luzimentu geiago emango zuan.

Len aztu egin zait beste gizon bat aitatzea. Zer interes jarri zuan egun ortako jaialdian, Iruntxiberri zarra dala eta ez dala: Julian Beloki, Euskadi Irratiko zuzendaria.

Len aitatu detan Jose Mari Iriondo ere danok ezagutuko dezute. Irrati eta telebistan lan asko egin dute eta egiten ari dira bi gizon auk. Oiek eta beste batzuek nigan interes aundia jarri zuten.

Ba, orain esatera noana benetan esango dizuet: estutu egin nintzan. Nere buruak lotsa ematen zidan. Ango emozioa eta interesa, eta ni gauza ez nerea emateko. Ez nuan buelta bat eman gustora. Artutako lana bukatzea bakarrik nolabait ere. Pena artu nuan, baña arek arreglorik ez. Bukatu nuan, eta ni lotsetan eta beste asko ere lotsatu egin ziran.

Erri-kiroletan lana egiten duten bi lagun izan ziran plazako lanak egiten. Gipuzkoako Erri-kirol Federazioak eskeñi zidan plaka bat bukatu nuanean, eta milla esker eman bear danei.

Ni zorretan gelditu nintzan danekin. Zerbait egingo ote nuan eta ola ikustean, askok zer esan ote zuten? Zerbait entzun nituan, batzuek an esandakoak. Ni ez nin-



tzan apustua jokatzera joan. Baña apustu bat galduta baño okerrago gelditu nintzan, askoren iritzirako, irurogei urte egindako aitona bat.

Amar kilometro pasa nituan. Denbora, uste detanez: 41' 55". Segundo bat edo besteren okerra bada, ez da ezer pasatzen.

Zezen-plazan, eguerdian, euria egiten zuan. Baña eskerrak atertu zuan; eta, naiz leku batzuk motel samar zeuden, etzan zearo gaizki. Motel-une oietan zerrautsa bota genduan, ez leguntzeko, eta *pasable*. Ez daukat eguraldiari aitzakirik ematerik.

Nik ez dakit allegatuko naizen ikustera. Badakit korrika dabiltzanak, utzi gabe nere marka irurogei urterekin egitera joan bear dutela esanez. Nere garaiko marka onenak borratzera baño seguruago joango da batenbat, irurogei urteko marka egitera. Joan ditezela eta jarri dezatela marka berria.

Bueno, ortan pasa zan nere plazako istoria, eta *Hotel Oriá*-n gendukan bazkaria. Ondo zelebratu genduan, umore ederrean. Leku bikaña. Bazkaria ederki zegoan. Eun bat lagun. Bertsolariak egin zuten saio polita. An genduzkan Xanti Etxeberria Arrizurieta eta Juanito Begiristain trikitaliak.

Bazkalondoa animatzeko, ni ere, bazkalduta jarri nintzanean, ango trikitixa-soñuarekin dantzán asi nintzan. Paseak pasa, oso ondo pasa genduan, tertuli ederrean. *Hotel Oriá*-ko nagusia ere oso ondo portatu zan nerekin. Ortan bukatu zan nere istoria eta omenaldia.

Ondorenean, berriro intentatu nuan korrika, pakerik etzegoalako eta ea zerbait egingo ote nuken. Zerbait egitekotan, *serie* batzuk sartu bear.

Baña aurreragoko urtean ere ibili nintzan tiroiarekin, eta ezin sendatu. Eta berriro leku berean, ezkerreko ankan. Pixka bat uzten nion eta asi berriro; eta mediku batek esan zidan egon bearra neukala denbora dezentean. Alaxe egondu nintzan, eta seko desanimatu nintzan

Orrela ibilita etzegok korrika egiterik, bein tiroiekin asi ezkerro. Eta urteak gañean. Ez badute muskuloak aguanta-tzen, alperrik ibiltzea. Ondo dagoana eta fuerte, joan eta demostratu dezala. Len ere ni baño gutxiago egindakoren bat izango dek, eta etzeukak iñork neri parre egin bearrik, eta gutxiago ni baño eskasagoa izan dan korrikalari batek. Korrikalari onenak irurogei urtetarako erretiratzen dituk. Ni bezela sasoian ibilitako jende gutxi ikusten dek irurogei urterekin. Orain modan jarri dek, sasoian ezer izan ez diranak, ala gizonezko ala emakumeak, korrika baztar guziak betean, lumeroa egitera. Onoko Beobia-Donostia zer jarri da? Negozioa, dirua pagatuta. «Nik ere parte artu bear dit, gaur edo biar kontatzeko. Ni ere korrikalari famatua izan nauk, bai. Beobia-Donostia karrera famatu ortan parte artzen nian, edo parte artzen diat». Ala diote, izugarrizko gauza egiten dutelakoan. Nik sasoia izan nuan garaian, etzan olakorik. *Amateur* eta profesional ize-nekoak alkarrekin korritzen ere etziguten uzten. Orain dituk danak libre.

Ni gauza auek esaten ari naiz, nik ola ikusten detalako. Baña zuek segi, gustora bazabiltzate. Aspertuko zerate, nik aña kilometro egiterako.

Eta ni erretiratzeroa noa, ezin detalako geiago, eta buka-  
era ematera noa nere berriketari eta nere aitortzari.



Leon Albeniz "Iruntxiberri", kanako enborekin 2001eko abenduaren 23an, Tolosako zezen-plazan apustua jokatu aurretik.

## Azken eranskiña

---

**G**aur, Azaroak 14, egun istorikoa kirolarientzako, batez ere lasterkari edo korrikalarientzako. Beobitik Donostirako korrikak artu duan indarra edo izen izugarria eta eromena! Zutik dagoan guztia orrera dijoa bere burua agertzera eta bere almena azaltzera.

Neuri ere naiko tentazio txarra ematen dit, orrenbeste jende orrela ikusita. Burua bueltaka jartzen zait, nere denborarekin edo ni izan naizenarekin.

Orain ogei urte leenbiziko antolatu zutela, eta zeñek irabazi zuala uste dezu? Garai batean nere kontrinkante zan Jose Migel Irazu famatua, Asteasukoa. Karrera orrek etzuan izango gaur daukan añako garra eta sua eta eromena. Baña kuestioa da Irazuk irabazi zuala, eta or dago bere meritua.

Jose Migel Irazuk korrikan ondo egiten zuala eta marka ere naiko ona: 1' 03". Zergatik ari naiz ni gauza auei bueltak ematen? Ba nota bategatik.

Pasa dan ostiralean, Azaroak 12, 1999, *El Diario Vasco* egunkariaren orri batean, or ikusten da Irazu bere trofeoarekin; eta or ematen ditu bere denborako agerpenak: zer apustu jokatuta dagoan eta zenbat irabazi zizkion Iruntxiberriri. Ba neri gustatuko zait gauzak argi eta garbi adieraztea, bere lekuan ez dan gauzarik agertu gabe.

Leenbiziko korrika apustua Irazuk eta Iruntxiberrik Tolosako zezen-plazan jokatu genduan amar kilometrota-

ra. San Jose eguna zan, Martxoaren 19-a alegia, 1969-an. Len ere esan detanez, nik irabazi nion.

Fetxa ontatik ogei illabetera, leen adierazita detanez, lau joko jokatzeko apustua egin genduan. Lenbiziko neurketa Tolosako Berazubin, zortzi kilometroan, Abenduak 20, 1970-ean. Nik irabazi nion.

Bigarren neurketa, Azpeitiko zezen-plazan, zortzi kilometrotara, Ilbeltzak 17, 1971-n. Nik irabazi nion.

Irugarren neurketa, Andazarrate-Billabona, Otsailak 14, 1971-n. Nik irabazi nion.

Orain falta zaiguna, laugarren neurketa: Oiartzungo Artikutzako kamioa, aldapa gogorra, amar kilometro, nere gustoko lekua. Jokatzera joan gabe entregatu zuan. Au zan 1971-ko Martxoaren 19-an jokatu bearra. Bi neurketa, berak aukeratutako distantzira eta berak nai zuan lekuan ziran; beste biak, nere gustoko lekuan, luzamena errespetatuta: zortzi eta amar kilometro.

Nere gustokoena, nere espezialidadea, betik gora zan. Zenbat eta malda edo aldapa geiago izan, obe neretzat. Azkenean, nere gustoko nuan lekuan jokatu gabe gelditu nintzan, azkenearte edo fetxa allegatu zan arte preparatzen jardunda.

Naiz azkeneko ori jokatu gabe entregatu zuan, lau aldiz irabazi nion, lau apustu alegia, ez berak egin dituan aitorpenak: lau apustu jokatzeko konpromisoa genduan, eta lautatik iru bera izan zala irabazle...

Orain zer pasatzen da? Irazuren deklarazioa ikusi duanak edo irakurri duten askok galdera auxe egin didate:

–Iruntxiberri, Irazuk zenbat apustu irabazi dizkik?

Ni buruari elduta gelditzen naiz eta parre egiten didate. Ez dute arrazoiaren faltarik.

Nik ez det esan nai Irazu ni baño gutxiago zanik. Oso ondo ibiltzen zan. Jokatutako apustu guziak irabazten zizkien, neri ez beste danei. Or deklaritzen du Iruntxiberriri irabazitako iru apustu eta bi kanpeonatu Españaikoak. Nik ez det orrela kontsideratzen.

Gipuzkoan leenbiziko aldiz organizatu zuten. Ni Palentzira bizitzera joan nintzan, korrika edo lasterketa utzita, nere bizi bearrarekin. Ala, Donostiko belodromoan organizatu zituzten Euskal Erriko kirol txapelketak; erri kiroletakoak, alegia.

Amabost egun aurretik deitu zidaten, eta sorpresa eman, udara guzian batere entrenatu gabe nengoala. Ala ere, etorri egin nintzan, bildur-bildurrez.

Lenbiziko igandean, Iraillak 4, zortzi kilometro korritu giñun. Seguru ez nago, baña zazpi edo zortzi giñan korritu genduanak. Gero, egun ortako bi aurrenekoak, illaren 11-n, amar kilometro zeuden korritu bearrak.

Neu baño gutxiago zanak ia kendu zidan. Denbora igoaletan irabazi nion, zinta aurretik autsi nualako. Joan Ugarte, *Txantxon*, Aginagakoa.

Bigarren igandean, biok manorik mano. *Velodromo*-ko pista berreun metrokoa zan, ondarrezkoa. Alde banatan jarrita korritu genduan. Bakoitzak bere karrera edo lasterketa egin bear, eta *Txantxon* bostgarren edo seigarren kilometroan erretiratu zan. Ni kontentu joan nintzan, nere bi trofeo eta txapela irabazita, eta tokatzen zan premioarekin.

Esan nai nuke, Gipuzkoan ainbeste urte pasa dirala erri kirolak ezagutu ditugula, eta iru aldiz bakarrik eza-gutu det korrikalarien txapelketa. Leenbizikoan sorpresan arrapatu niñuten; eta beste bi aldiz okerrago arrapatu niñuten. Bigarren txapelketan, garai artan Palentzin bizitzen nintzan, eta Tolosako Berazubin organizatu zuten.

Andik edo emendik bazekiten noiz organizatu. Amabost edo ogei egunez aurretik abisatzen zidaten. Nik etorri nai ez, baña nola edo ala ekarri arazten ninduten, eta ortxe poztutzen zan Irazu. Neuk esaten nion ez neukala zer egiñik.

Azkenik, bost kilometroko apustua galdu nuan Tolosako zezen-plazan, Irazuren kontra, gibeletik gaixo nengoala.

Gaur Azaroak 14, 1999-an. Orain ogei urte leenbiziko Beobitik Donostira. Karrera ori asi zanean, nik berrogei ta bi urte. Ordurako nere sasoi pasata zegoan. Nik nola ez nuan arrapatu 1970 edo 1971-n, Andazarrate-Billabona korritu genduanean? Nik ez nuan garai artan iñor arrapatu nere gustoko apusturik egitera. Ni ez nintzan bost kilometrotako korrikalaria. Amar kilometrotik gora nai izaten nuan.

Alperrik etzidan iñork onartu, eta orregatik daukat pena, nola ez nuan arrapatu gaurko tentazio ori, Beobitik Donostira, alegia. Korrikalari bat preparatuta dagoan garaian izan liteken rekorridorik eleganteena. Gaur ni nola joango naiz, nere erdia izan ez diranen atzetik ibiltzera, nere garaian epoka auek etziralako?

**Leon Albeniz Maiz**

**Iruntxiberri**

**1999-ko azaroaren 14-an**

**Aurkibidea**



Itzaurrea .....	7
Iruntxiberri baserria .....	15
Morroí .....	35
Korrikarako griña .....	39
Kanpora lanera .....	45
Zalantzak .....	49
Lendabiziko apustuak .....	53
Soldaduska .....	57
Ezin erabakiz .....	67
Iru apustu .....	69
Esteban Agirrezabala, Bedaiokoa .....	73
Polipaso eta Ergobitik Sosperrira .....	75
Doneztebe .....	79
Venta de Baños .....	83
Donezteben, biren kontra .....	93
Arruitzko Txikia .....	95
Aldatzen marka austera .....	99
Ezkontza .....	101
Joko zikiña .....	105
Bizimodua .....	109
Donostiko <i>Velodromo</i> -an .....	115
Agirrezabalaren kontra .....	119

Tolosako Berazubin .....	125
Miñez .....	129
Jose Migel Irazu .....	135
Aizkora .....	151
Segan eta korrika .....	153
Jokatu gabeko bi apustu .....	157
Beti aurrera .....	161
Jose Maria Agirrezabala eta bi napar .....	167
Bi biren kontra .....	171
Juan Jose Irazusta .....	173
Zarautz-Aia .....	177
Tolosako Berazubin berriz ere .....	183
Jose Migel Maiz .....	187
Andoain .....	195
Beste apustu batzuk .....	199
Segan eta korrika berriz ere .....	201
Amezketeta .....	207
Arria II .....	209
Fidel Garmendia .....	211
Jose Aierbe .....	213
Jose Migel Irazu berriz ere .....	215
Ondo ezik .....	217
Lanean .....	221
Pasai San Pedro .....	225
<i>Sendoa</i> argitaldaria .....	227
Beste kirolariekkin .....	229
Jose Aierbe batengatik zer esan? .....	237

Fausto Mugertza .....	241
Felix Etxeberria .....	243
Mindegia .....	247
Larretxea, Mindegia, Olasagasti... ..	251
Polipaso .....	257
Omenaldia .....	263
Azken eranskiña .....	269

## **Auspoaren azken liburuak:**

- 274 Joxe Mari Aranalde  
*Xalbadorren barruan*
- 275 Joxemari Iriondo  
*J. Lizaso: nere aldiko kronika*
- 276 Jose Insausti  
*Beti bertsoa buruan*
- 277 Manuel Matxain  
*Uste gabea*
- 278 Inozentzio Olea  
*Ostiraleko kronika I*
- 279 Inozentzio Olea  
*Ostiraleko kronika II*
- 280 "Ataño"  
*Markesgaiak. Dirua jainko*
- 281 Antonio Zavala  
*Estropadak bertsoan*
- 282 J.M. Iriondo  
*Segi, Mugartegi*
- 283 R. Iraola  
*Nañarriri begira*
- 284 Ramon Artola  
*Sagardoaren graziya II*
- 285 Leon Albeniz "Iruntxiberri"  
*Nere berriketa eta aitortza*

Iruntxiberri korrikalaria izen bereko baserrian jaio zan, Aiako errian, 1937-ko abenduaren 18-an. Leon Albeniz Maiz ditu izen-abizenak.

Zenbat apustu jokatu ote ditu bere denboran? Korrika geien-geienak, baiña bai banaka batzuk bestela ere. Zenbait marka arrigarri utzi ere bai gerorako.

Markarik aundiena, edo ustegabekoena beintzat, orain jartzera datorrela esango nuke: liburu mardul au idatzi, alajaiña, bere bizitza eta apustularien mundua azalduz, bere jaioterriko euskera jator, aberats eta garbiarekin.

Anketako bizkortasuna plazetan erakutsi oi zuan bezela, orrialde auetan idazle-sena agertzen digu, iñor gutxik olakorik usteko ez bazuan ere.

Aren izena orain arte gure kirol-gizonen zerrendan idatzita zegoan; emendik aurrera, berriz, liburu eder baten azalean ikusiko degu, egille bezela. Bejondaiola!



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
**Diputación Foral de Gipuzkoa**

Diputatu Nagusiaren Kabinetea. Kultura Zuzendaritza Nagusia  
Gabinete del Diputado General. Dirección General de Cultura

ISBN 84-7907-267-9



9 788479 072674